

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

1993, 1
38. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Argitalpenen-Batzordea / Comisión de Publicaciones:

Burua:	Jean Haritschelhar
Kideak:	Juan Mari Lekuona Endrike Knörr J. A. Arana Martija Patxi Altuna Txomin Peillen Ibon Sarasola
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564
Euskera
ISBN. 85479
Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposaketa: Rali. Particular de Costa, 12-14 - 48010 Bilbo
Elkar, E. Koop. grafikagintza. Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

Aldizkari hau beste agerkariekin trukatzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEMUGA

Jean Haritschelhar euskaltzainburua, <i>Euskaltzaindiaren 75. urtemuga</i>	9
Jose Antonio Arana Martija, <i>Euskaltzaindiaren 75. urtemuga</i> ...	13
Jose Alberto Pradera Bizkaiko foru diputatu nagusia, <i>Euskaltzaindiaren 75. urtemuga</i>	23

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

<i>Euskaltzaindiaren adierazpena erdaratiko deituren idazkeraz</i>	27
<i>Declaración de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre la grafía de los apellidos de origen no vasco</i>	29
Euskaltzaindiaren batzar-agiriak (1993-I, II, III eta IV)	33
<i>Euskaltzaindiaren batzorde-organigrama</i>	51

BATZAR-TXOSTENAK

Frantzisko Ondarra, <i>Goñerrin aurkitutako testuak (VIII)</i>	59
Jose Garmendia Arruebarrena, <i>Iztuetaren Guipuzcoaco condaira-ren inguruan</i>	125
Jose Garmendia Arruebarrena, <i>Textos inéditos de autores vascos</i> ..	151
Patxi Salaberri Zaratiegi, <i>Nafarroako hiriburuaren izenaren gainean.</i>	167

BERRIAK

Jose Antonio Arana Martija, “Resurreccion Maria de Azkue” sariak	195
--	-----

Euskaltzainak antzinatasunaren arabera	199
--	-----

Presentación de los siguientes tomos de:

- *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (I)*
- *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (II)*
- *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*
- *Morfología del verbo auxiliar roncalés*

Ponentes:

Juan Cruz Allí, Presidente del Gobierno Foral de Navarra ..	201
---	-----

Pedro de Yrizar	205
-----------------------	-----

E. Knörr, <i>Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak (Iker 7)</i> ..	217
---	-----

Xarles Videgain, <i>Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak (Bilbao, 1991-10-21/25) liburuaren aurkezpena</i>	221
--	-----

Xarles Videgain, <i>Presentation de l'ouvrage Nazioarteko Dialektologia Biltzarrak. Agiriak</i>	227
---	-----

Jose Luis Lizundia, <i>1993. urterako Euskaltzaindiaren egutegia</i> ..	233
---	-----

EUSKALTZAINDIAREN AURKITEGIA

Egoitza / Sede	239
----------------------	-----

Ordezkaritzak / Delegaciones	241
------------------------------------	-----

Euskaltzainburugoa / Cargos académicos y ejecutivos	243
---	-----

Euskaltzain osoak / Académicos de número	245
--	-----

Euskaltzain ohorezkoak / Académicos de honor	247
--	-----

Euskaltzain urgazleak / Académicos correspondientes	249
---	-----

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEMUGA

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEMUGA

Egoitza, 1993-01-29

*Jean Haritschelhar
eusklatzainburua*

Agintari agurgarriak,
Euskaltzain lagunkideak,
Andereak eta Jaunak, agur

1918-ko urtarrilaren 25-ean, duela beraz 75 urte, Bizkaiko Aldundia-
ren jauregian Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu diputatuek presenta-
tu zuten txosten bat euskaraz Kosme Elgezabalek irakurtu zuena. Txos-
ten horretan galdegiten zioten Aldundiari kontuan har zezan eskakizuna,
hots, euskal Akademia baten sortzea. Onartu zen eta Bizkaiko Aldundi-
tik, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko aldundietara asmoa zabaldu zen,
lauek erabaki zutela Oñatiko biltzar nagusian eramanen zela gaia.

Aspaldian jendeen artean zebiltzan euskal Akademia baten sortzeko
ideiak. Lehen aldikoz Kosme Elgezabal eta Felix Landabururi esker,
idea ez da hitz huts gelditzten, gauzatzen ari da aldiz, urtarriletik eta
irailearen arteko epean.

Bigarren urratsa: Oñatiko batzarrean Kosme Elgezabalek —Felix Lan-
daburu zendo zen anartean— mahaigainean jarri zuen Bizkaiko Aldundia-
ren erabakia, parte hartuz eztabaidean. Han izendatuak izan ziren lehen-
biziko lau euskaltzainak: Resurrección María de Azkue, Arturo Campión,
Luis Eleizalde eta Julio de Urquijo.

Hirugarren urratsa: 1910-ko irailaren 21-ean, Eusko Ikaskuntzak dei-
turik, Gipuzkoako Aldundi jauregian bildu ziren lau euskaltzainak eta
*Jaungoiko-zale, Euzko Deia, Jesuseen Biotzaren Deia, Irugarreng Prantsis-
kotarra, Euskal Erria, Euskal Erraren alde, Euskal Esnalea, Revista Inter-
nacional de los Estudios Vascos* eta Baionako *Eskualduna* deritzan agerka-
rien ordezkariak. Egun hartan izendatzen dituzte zortzi euskaltzain: Adema,
Agerre, Agirre, Broussain, Eguzkitza, Intzagarai, Lhande eta Olabide.
Orotara 12 euskaltzain euskalki guzien lekuko direnak, haien artean
Iparraldeko hiru, erakutsiz —eta nola ez aipa aurten mugak ezeztatzen ari

direnean— Euskaltzaindiak, sortu orduko, mugaren gainetik nahi zuela izan.

Laugarren urratsa: 1919-ko urriaren 7-an Gipuzkoako Aldundi jauregian biltzen dira lehen aldikotz 11 euskaltzain —Adema-k adierazi du ez duela izendapena onartzen— eta izendatzen dute Azkue euskaltzainburu, Agerre diruzain, Urkijo liburuzain eta Eleizalde zadorlari. Lanean has daiteke Euskaltzaindia. Lehenbiziko xedeetan agertzen da “Euskeraren batasun bideen aztertza”, 1920-eko jorrailaren edo apirilaren 26-an irakurtu zelarik Campión eta Broussain jaunen txosten edo “idazkin ederra euskeraren batasunera eltzeko dagokezan bideak zeero ta sakonki agerturrik”, haren izena zela “Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera”.

* * *

Berregeita hamar urteren buruan, Bilbon, Euskaltzaindiaren etxearen ilbeltzaren edo urtarrilaren 26-an goizeko hamaiketan hasi da Euskaltzaindiaren Urre-eztaietako lehenbiziko Biltzarra, Manuel Lekuona dela buru. Jadanik urre ezteiez mintzatu zen Euskaltzaindian, baina egun hartan goraki mintzatu zen Aresti. Hona zer dioen orduko agiriak: “Aresti’k dio ordua dela euskararen batasuna serioski artzeko eta biltzar nausi orretarako gairik bearrezkoena euskeraren batasuna dala. Gero euskeraren batasunari buruz erabagi batzuek artzeko, euskaltzaiñak bakarrik, beren artean autatzen dituzten beste norbaitzuk ekipoan arturik, oinarri batzuek artu bear lituzkeela esan da. Euskalki bakoitza errientzat errespetatuz, literaturarako euskera batasun bat lortzeko”.

Antolatu zen kongresua, Arantzazuko kongresu famatu hura, bildu zelarik hiru egunez, 1968-ko urriaren 3, 4 eta 5-ean. Han agertu zen Mitxelena egiazko maisu, gauzak argi eta garbi azaltzen zituela, bakoitzari emanet zor zitzaiona, bereziki 1964-eko Baionako biltzarreko proposamenak kontuan hartuz. Aski da irakurtzea eman zuen txostena eta bereziki lehenbiziko pundua: “Oinarriak. Ze batasunen bila gabiltzan” izenekoa. Sarrera horretan datza euskara batuaren filosofia osoa, agertzen dituela arrisku eta traba guziak eta batasunaren lortzeko urratu behar den bidea, Euskaltzaindiaren ahalak, ahalen mugak, hots, hitz batez, geroari buruz Euskaltzaindiaren eginbidea.

* * *

Badakigu geroztik batasunari buruz egin diren urratsak: deklinabi-dearen batasuna, erakusleena, aditz laguntzaileena. Badakigu bertzalde batzordeei esker Euskaltzaindiak segitzen duela batasunerako bide luzea.

Hor dira lekuko *Orotariko Euskal Hiztegia*, Gramatika, Hizkuntz atlasa, Onomastikako ikerketak, literaturari buruz egin diren kongresuak...

Bide urratzaile gisa jokatzen da Euskaltzaindia. Ikusten du denbora berean segitua dela. Idazle gehienek beren adostasuna agertzen dute, hor daudela lekuko urtero kaleratzen diren liburuak, hilabetero eta astero publikatzen diren aldizkariak, halaber *Euskaldunon Egunkaria*.

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Euskal Komunitate Autonomoko hiru foru aldundiek, hiriek, herriek onartzen dituzte eta errespetatzen Euskaltzaindiak eginikako proposamen eta erabakiak. Berrikitan irakurtu dukezue Pyrénées Atlantiques deritzan Kontseilu Orokorreko buruzagiak galdegin diola laguntza Euskaltzaindiari bide seinale elebidunen ezartzeko, Bayrou jaunak ziarrik: "Euskaltzaindiak ezagutze eta defenditzea merezi du" eransten zuela gero "Euskararen aldeko Erakunde premiazkoa da".

Eremu guzietan sartua da euskara batua, bereziki erakaskuntzan, hizkuntz politikari esker, sekulan baino gehiago gure hizkuntza hau zapti eskualdetako eskualdunen lokarri premiazkoia izanez. Atzekaldera soako bat emanez, zer aldaketa 75 urtez, zer aldaketa, bereziki, azken 25 urte hauetan.

Egun hasten ditugu Euskaltzaindiaren 75. urteurrenaren eta Arantzazuko kongresuaren 25. urteurrenaren ospakizunak. Bi urte iraunen dute, hasieran aipatu ditudan urratsei, jarraikiz:

– Egun, 1993-ko urtarrilaren 29-an, Kosme Elgezabal eta Felix Landabururen omenaldia.

– 1993-ko urriaren lehenbiziko egunetan, Oñatin, jardunaldi batzu, lehenbiziko lau euskaltzainen izendatzea eta Arantzazuko kongresua goratuz.

– 1994-eko urrian bururatuko dira ospakizunak Donostian, bertze jardunaldi batzuekin, ez baitu ahanzten Euskaltzaindiak duela 75 urte, irailaren 21-ean, izendatu zirela bertze zortzi euskaltzainak eta urriaren 7an bildu zirela lehen aldikotz Gipuzkoako Aldundi jauregian. Bi jardunaldien helburu nagusia da urrats batzu gehiago emaitza euskara baturako bide luze horretan. Etorria da garaia. Alabaina, orain artinoko aldaketa-k behar ziren iretsi. Ikus daiteke eginak direla. Badu orain urte bat sortu duela Euskaltzaindiak Euskara Batuko batzordea. Proposamen batzu eginak ditu, eztabaидatuaak izan dira euskaltzain osoen artean eta zabaldua gero, jakiteko zer harrera daukaten. Hiztegi Batuko batzordea, hau ere berrikitan sortua, ari da lanean.

Euskaltzaindiko batzorde guziek beren helburuak finkatuak dituzte euskara batuari buruz. Bi jardunaldientzat, aurtengo urriko eta datorren

urteko urrikoa, Zuzendaritzak euskara batuko batzordearen laguntzarekin egitarauak prestatuko ditu, gomitak igorriko nasaiki, nahi baitugu biltzar horiek oso idekiak izan daitezen eta eztabaidatsuak. Jadanik badu Euskaltzaindiak Arantzazuko (1968-an) eta Bergarako (1978-an) kongresuen esperimentzia. Biak izan dira aberatsak, euskara batuaren onerako. Ez da Euskaltzaindia bere baitan bizi den erakunde. Erakunde publikoa izanez idekia da, bertzeen iritziak jakin nahi ditu eta hartzen ditu, gure euskara bezalako hizkuntza batek, batasunerako bidean, gehiengoaren onespena behar baitu orain artino bezala.

Hauxe da beraz bi urteren lan-programa. Bada zer egin eta, beldurrik gabe, sartuko da lan horietan Euskaltzaindia, pentsatzen duelakotz bere diamantezko ezteien ospatzeko Euskal Herriari eskain lezakeen oparirik ederrena dela zuhurki eta fermuki aurreratzea batasunerako bidean, ahantzi gabe hizkuntzaren batasunak sor dezakeela, bidenabar, gogo eta bihotzen batasuna.

Denbora berean ikusten dugu Europaren garela, mugak suntsitzen ari direla, hizkuntza gutxituen gaia Europako kontseiluak zabaldu duela eta hizkuntza gutxitu horiek ez direla maila berean jarriak Europan. Aspaldian harremanetan sartua da Euskaltzaindia bertze hizkuntzez arduratzent diren erakundeekin. Aurtent, diamantezko ezteien karietara, Jagor sailak jardunaldi batzu antolatuko ditu —azaroan edo abenduan— harreman horien sendotzeko eta jakiteko zer egiten duten eta nola jokatzen diren Katalunian, Galizian, Flandrian, adibidez. Jagor saila alde batetik, Iker saila bertzetik, Euskaltzaindiak sortuz gero dauzkan bi sail nagusiek beren emaitzak eskainiko dituzte beraz, diamantezko ezteietako ospakizunetan.

Duela 75 urte, Kosme Elgezabal eta Felix Landabururi esker Akademia baten sortzeko ideia gauzatu zen. Geroztik egin da bide, goiti beheitiak izan dira, urte ilunak, baina segitzen du Euskaltzaindiak Euskal Herri guziko agintarien ezagutza eta laguntzari esker, 75. urteurreneneko ospakizunak bere egoitza berrian hasiz. Ez baita ahanzkorra Euskaltzaindia, baitaki zer den historia eta kondairaren balioa, nahi ukant die, belaunaldi berrien jakinerako, bere esker ona erakutsi bi bizkaitar diputatuei, Kosme Elgezabal eta Felix Landabururi, marmolezko harri baten bitartez. Hemen daukazue. Bertze egun batez erabakiko da non ezar. Bizkaitako diputatu nagusi den Pradera jaunari galdegiten diot ager dezan nirekin batean oroitzapenezko harri hau. Eskerrik asko!

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEMUGA

Bilbo, egoitza, 1993-01-29

Jose Antonio Arana Martija

ELGEZABAL ETA LANDABURU, BI BILBOTAR, EUSKALTZAINDIAREN ERNAMUINEAN

Mahaikide agurgarriak,
Euskaltzainkideak,
Herri-Aginteen ordezkariak,
Omenduen senide eta adiskideak,
arratsalde on.

Berriz ere biltzen gara egoitza eder honetan, Bizkaiko Diputazioari eskerrak eman beharrean. Baino orain arteko eginkizunetan etxea izan baita eskergarria, hau da, eraikuntza eta beronen horniketa izan badira Herri Aginteei eskertzekoak, oraingoan beste zio batek eragiten du gure bihotzaren taupada: etxe honen barrruan gordetzen den euskararen arimak, izpiritua, duela 75 urte jaioak, gorputzik gabeko izaki iraunkorrak. Baino nola erabil dezaket “gorde” hitza, *Sancta Sanctorum* balitz bezala edo *Sancta sedes deorum*, jainkoen altxorraren gordailua, Birgiliok nahi zuen bezala hizkuntzaren *Sancti ignes* izan beharrean, euskararekiko jakituria eta maitasuna hedatzen duena, Euskal Herri osoan sua bizirik mantentzen duena, edo hurbilago dugun Etxeparek desiratzen zuena, *Euskara, jalgi hadi kanpora!*

Eta hau da, hain zuzen, gaur hemen ospatu nahi duguna: gero erakundea izango zen izpirtiuaren sorrera, hemen, Bilbon, hiri handi eta eraldun honetan bi bilbotarrek kimatutako ernamuina. Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon jartzeko izan ziren eta badira arrazoiak; baina Bilbori zor zaiona ere bada. Argi eta garbi ikusi zuen Luis Eleizaldek (1865-1923) kitatze honen beharra egoitza hemen kokatzea proposatu zuenean “euskar bilitzaren agerpenetarako hemen sortzen ziren bulkadarik indartsuenak eta”. Euskal Akademiari dagokionetik, behintzat, Bilbo izan zen sorgunea. Gero Bilbo izango zen Abando elizatean proposatu zuen Jose Paulo Uribarri arabarrak (1775-1847) hogeita lau gizon izendatzea “euske-

raren ganean egiteko ahalegine hau” (1832). Bilbotarra izan zen Aristides Artiñano (1840-1911) euskararen Akademiaz arduratu zena, Durangoko Euskal Jaietan (1886) Arautegia aurkez tuz. Eta bilbotarra izan zen Adolfo Gabriel Urkixo (1866-1933), Julioren anaia nagusia, 1906an, Bizkaiko diputatu nagusia zelarik, beste hiru diputazioei Euskararen Akademia sortzea proposatu ziena. Baino proiektu hau ere ezerezean geratu zen.

Louis-Lucien Bonaparte Euskal Herrira etorri zen urte berean, hots, 1856an, akademiaren premiaz lehenbiziko aipamena egin zuena Jose Franzisko Aizkibel (1798-1865) azkotiarra izan zen; baina idazkietan geratu zen lekukotasun hau. Ekintzetara jo zuen, ordea, Baionan 1911an sortua izan zen *Cercle d'Etudes Basques* izeneko elkartea akademiaren antzera 1913 arte lanean iraun zuena. Mendearen bigarren hamarraldi honetan euskararen alorra jorratuagoa zegoela dirudi. Apologisten garaia gaindituta zegoen eta ikerketak zientziaren bidetik zihoa zen Bonaparte, Van Eys, Vinson, Dodgson, Schuchardt, Uhlenbeck eta beste hizkuntzalariei esker. Julio Urkixoren eraginez, eta babespean, sortu zen RIEV aldizkariak ematen zion euskarari beste irudi berria ikerketen munduan. Bestalde, euskaraz idatziriko Azkueren aldizkariek (*Euskalzale, Ibaizabal*) eta *Euskal Esnalea, Eskualduna* eta beste aldiroko argitarapenek idazle eta irakurleen artean gero eta aukera gehiago eskaintzen zuten euskara erabiltzeko eta zaintzeko. Ez dugu ahantzi behar Sabino Aranak, abertzalesunarekin lotuz, nolako bultzada eman zion euskararen erabilera. Pulpituetatik eta aldizkarietatik kalera zetorren euskararen estima, base-rritarkeria kutsua galduz. Apaizen esparrua zabaltzen zihoa eta abokatuek, osagileek eta beste motetako profesionalek ez zuten batere euskara-rekiko higuinik; Eleizaldek noizbait esan zuenez, metamatekariak ere euskalariak izatera iritsi ziren, “Bustinta eta ni”. Hori baino gehiago aitortu zigun Azkuek 1921ean, Durangon ospatutako *Lenengo Euskaleguneako Itzaldietan*: “Gu euskaltzainok intzentsu-usaina artzera yoanaz, Euskaltzaindiko aulkia onek emakume astitsuentzat itziko geukez”. “Asti-tsuna” kenduta, hara hor non betea izan den Azkueren profezia.

Euskara bera irauntzeko eta indartzeko urratsak ematen zihoa bitartean, euskarri behar zuen gizartea ere nabariro aldatze giroan zebilen. Bizkaian, behintzat, abertzalesuna, eta honek euskararekiko zekarren ondorioa, adoretsu indartu zen bigarren hamarraldi horretan. Iratzeder-ek Aita Donostiarri zuzenduriko olerki baten hasiera datorkit orain gogora:

Mendiz bertzaldeko Eskual-Herria
ezin geiago zait xoragarria,
badu bihotzeko su pizgarria,
zainetan indarra, soan irria.

Alde huntako Eskual-Herria
etzait gutiago maitagarria.
Eztu bertzean den suzko-jauzia
bainan bai: Goxoa eta neurria (1).

(1) *Euzko Gogoa*, 1956, orrila-garagarrila, 10. orr.

Benetako su pizgarria, suzko-jauzia eta zainetako indarra gertatu zen 1917an Bizkaiko Diputaziorako hauteskundeak eratu eta burutu zirenean. Maiatzaren 1-ean, 20 diputatutik, 11 Euzko Alderdi Jeltzalekoak atera ziren, gehiengoa lortuz. Tartean ziren Ramon de la Sota Aburto, maiatzaren 4ean diputatu nagusia izendatua, Luis Urrengoetxea, Fernando Zubikarai, Horazio Rotaetxe, Manuel Egileor eta gaur omentzen ditugun Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu.

Ramon de la Sota Llano (1857-1936), diputatu nagusi berriaren aita, Azkueren adiskidea zen aspaldidanik eta euskararen aldeko ekintzak burutzeko maiz luzatu zizkion diru laguntzak. Ramon de la Sota Aburto (1887-1978), semeak, bi urteren zehar ihardun zuen Diputazioko karguan, 1919.eko maiatza arte. Haurtzaroan Azkueren ikasle izan zen Jardines kaleko Ikastetxean eta gero Institutuan on Resurreccionek zuzentzen zuen katedran. Beraz, hogeita hamar urtekin Diputazioaren ardura nagusia hartu zuenean, eta euskalzalez ondo inguraturik, bazekien euskararen alde fermuki jokatu behar zuela euskaldun berri honek. Diputaziora heldu eta bi hil barru izan zuen lehen istilua, non eta Gernikako Batzar Etxean, norekin eta apaiz batekin, Gernikako artzapeza zen Jose Domingo Iturraranekin. Hamaiketako meza beti bezala gaztelaniaz ematera heldu zenean, galarazi zion euskaraz ematea aginduz. Uztailaren 15ean gertatu zen hau eta hainbat apaizen protestak eta salaketak izan zituen. Euskal Herriko apaizgoa euskararen jagole izan dela ez du eginkizun honek frogatzen, nahiz eta salbuespina izan. Baino beste euskararekiko erasoa ere gertatu zitzzion diputatu nagusi honi, hau ere apaiz batengandik jasoa: Zamudioko parrokoa zen Domingo Abonak ez zion aita bat onartu semeari bataioan euskarazko izena jartzea. Eta jarrera hau Diputazioak 1918.eko urtarrilaren 25ean egin zuen bileran salatua izan zen, gaur aztertu behar dugun bileraren agirian azaltzen delarik. Egileor diputatu abertzaleak aurkeztu zuen gai hau bileran, salaketaren ondorio gisa zera esanez: “Como no existe hoy ninguna entidad, pues aún no se ha formado la Academia de la Lengua Vasca, a nadie corresponde mejor que a la Diputación bizkaina el salir por los fueros de nuestro idioma”.

Bilera honen agiri luzea 1919.eko urtarrilaren 2tik 14ra argitaraturiko *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya* delako hamar aletan agertzen da, eta Euskaltzaindia sortzeko Elgezabal eta Landabururen proposamena urtarrilaren 14koan, beraz, egin eta urte bete beranduago. Iragandako astelehenean, urtarrilaren 25ean bete dira 75 urte 1918an proposamen hura aurkeztu zenetik eta hor dago ospakizun honen zioa.

Baina proposamenaz hitz egin orduko, bizpahiru irazkin egin behar ditut. Egun hartan bildutako diputatuak hauek izan ziren:

Burua: Ramon de la Sota Aburto

Buruordea: Luis de Urrutia

Idazkariak: Felix Landaburu

Manuel Egileor

Diputatuak: Vicente Fatrás, Hilario Bilbao, Jose Maria Garay, Lorenzo Goikoetxea, Mariano de la Torre, Ramon M.^a Rotaetxe, Vicente Ibarra eta Kosme Elgezabal.

Eguneko gaietan azkena zen dagokigun proposamena eta Sota jaunaren baimenarekin proposamena irakurtzen hasi orduko, hara nolako istilua sortu zuen Vicente Fatrás Neira diputatuak:

“Pido la palabra con carácter previo. Viene ahora en el orden del día una moción redactada en vascuence para someterla a deliberación de esta Excma. Corporación, y el hecho de que el Sr. Presidente la haya admitido y la haya incluido en el orden del día es un acto de patente separatismo, pues en esta Diputación no es habitual el uso del vascuence, ni los Diputados firmantes hablan habitualmente ese idioma. Esa moción tiene un carácter verdaderamente antiespañol y separatista, que no se puede tolerar pase sin mi protesta más enérgica. Se habla en ella de regiones de Euzkadi y de hermanos transpirenaicos. Eso viene a ser un alarde de separatismo que no os atrevéis a hacerlo público, presentando en castellano como debierais haber presentado esta moción. Yo protesto de tal proceder y pido sea retirada esa Moción atentatoria a la unidad nacional.

El Sr. Presidente: Se va a dar lectura a la Moción.

El Sr. Fatrás: Eso es antipatriótico; eso es separatismo puro. Yo protesto y abandono el salón, pues no quiero con mi presencia contribuir a que sea tomada en consideración una moción de esa índole y por añadidura escrita en vascuence”.

Hau esan ondoren, gelatik atera zen Fatrás diputatu sozialista eta berarekin batera Hilario Bilbao eta Jose Maria Garay diputatuak. Eta esan behar nuen hirugarrena da gaztelaniaz eta euskaraz irakurri zela proposamena, Fatrás, Bilbao eta Garay diputatuek entzun ez zutena eta nahi izan bazuten ulertuko zutena. Baino itsurik txarrena ikusi nahi ez duena omen da. Egiaren mesedetan esan dezagun urtarriaren 12an sinaturiko proposamena zela 25eko bileran aurkeztu zena, eta gaztelaniatzko testua Kosme Elgezabalek eta Ramon M.^a Rotaetxek sinatura zetorrela, eta euskarazkoa Kosme Elgezabalek eta Peli Landaburuk sinatura. Beraz, Rotaetxe jaunari ere nolabaiteko begirunea zor zaio, eta gera bedi hemen Euskaltzaindiaren onespen eta eskerrona. Hauak izan ziren aurkezturiko proposamenak:

«EXCMA. DIPUTACION DE BIZKAYA.—*Excmo. Sr.:* Un trabajo difícil de suyo para realizarlo y organizarlo y más difícil en las circunstancias en que nuestro pueblo se encuentra y al que debemos sostener con todas nuestras fuerzas, es el de la cultura. Los prejuicios traídos por la

ignorancia y la mala voluntad por la conciencia extraviada sobre las cosas de la patria, la intromisión indebida de culturas extrañas, el estrecho criterio de sus directores y el abandono en que durante mucho tiempo hemos tenido nuestra personalidad, son las causas de la triste situación en que en este concepto se halla nuestro Pueblo. Mucho hay que destruir y casi todo está por hacer.=Con este ambiente miserable, vanos serán los esfuerzos de algunas beneméritas personas si no cuentan con un poder organizado que les sostngua y difunda, y á pesar de una preparación miserable pretendemos, con mayor voluntad que método, crear y propagar la cultura: que se escriban muchos libros, que el euzkera se robustezca, perfeccione y se le acoja con los honores que le corresponden el en Púlpito, en la Escuela y en la Cátedra; que sea el elemento principal de nuestra vida de relación que él vigorice la personalidad vasca. Deseo plausible, pero ineficaz, si no nos valemos de medios adecuados para realizarlo. La vida social del idioma no puede afirmarse sin un buen grupo de escritores y lectores, y ni unos ni otros tendremos si al pueblo de donde han de salir no se le enseña á ser euzkeldun consciente. Siempre quedarán cortos por su carácter individual ó por otras causas los plausibles esfuerzos que para colmar esta falta se hagan por algunos.=Adviértense las deficiencias en el instrumento primordial de todo trabajo. El euzkera el campo abierto á cualquier capricho. La presunción del propio saber para dogmatizar en la materia, es señal de casi todos los escritores. Nadie quiere ceder en sus apreciaciones, las diferencias subsisten, y gracias á Dios si á pesar de todo esto se adelanta algo.=Ante todo, pues, hemos de preparar el instrumento para valernos y servirnos de él. Una Corporación de personas competentes que dirima las diferencias después de examinadas y contrastadas, llene las lagunas, fije el sentido y significación de las palabras, establezca una ortografía uniforme los dialectos, sin prescindir de ninguno de ellos, sino completándolos y enriqueciéndolos entre sí, forme Bibliotecas, y, en resumen, nos dé un lenguaje puro, sin imperfección, apto y fácil para los trabajos científicos, digno del Pueblo vasco.=Un espíritu amplio nada egoísta, es preciso que anime la organización, naturalización y desarrollo de tal Corporación, sin más miramientos que los debidos á la verdad y al patriotismo, sin pretender por encima de todo que prevalezcan determinadas opiniones, nos dará después de serenas discusiones las reglas directoras de nuestro idioma.=No ha de encerrarse este proyecto en Bizkaya, puesto que á todos los vascos interesa. ¡Menguado éxito el suyo si lo limitáramos á nuestra región! Gipuzkoa, Alaba, Nabarra y nuestros ciento cincuenta mil hermanos del lado de Francia, oirán seguramente nuestra invitación y nos darán su cooperación con el amor debido al lenguaje de nuestros antepasados, cuya sentencia de vida ó muerte ha de dictarse en el presente siglo.=Las bases de la Institución serán:=1.^º Al amparo de las Diputaciones de Bizkaya, Gipuzkoa, Nabarra y Alaba y la representación de los vascos ultrapirenaicos, se funda una Institución que se denominará cuyo fin será estudiar, purificar, robustecer, unificar y difundir el euzkera y sus variedades dialécticas. Sus resoluciones y acuerdos en tanto lo permitan el apoyo y la Autoridad de las entidades

que la amparan, deberán cumplirse estrictamente. De igual modo las citadas entidades amparadoras de la Institución, recurrirán á ésta en cuantos asuntos afecten á materia euzkerica.=2.^º Los miembros que integrarán la nueva Institución serán veinte, nombrados en forma que debidamente representen las distintas regiones de euzkadi y las diversas variedades dialécticas del euzkera. La Institución podrá nombrar socios honorarios á aquellas personas que por sus meritorios trabajos en pro del euzkera se hallen por especiales circunstancias (residencia, ciudadanía, etc., etc.) imposibilitadas de ser miembros activos. El número de miembros no excederá de veinte. Igualmente se nombrarán miembros cooperadores para ejecución de determinados trabajos que la Institución les encomienda. El trabajo de éstos será debidamente retribuido.=3.^º La Institución se reunirá una vez al mes cuando menos. Los miembros que acudan á la reunión percibirán dietas que se señalen en el Reglamento.=4.^º Desde luego se nombran designándose por de pronto miembros á los Sres. Lhande, Campión, Azkue, Agiñe, Arriandia-ga, Bustintza, Etxalar, Eleizalde, Olabide, Belaustegigoitia, Basabe, un representante de «Euzkeltzale-Bazkuna», Eguzkitza, López Mendizabal, Urkixo (D. Julio), Agefe, de Pamplona, y un representante del periódico «Eskualduna», de Bayona. Estos señores redactarán el Reglamento de la Institución.=5.^º Una vez constituida la Institución, ella misma determinará su domicilio social.=6.^º La Excelentísima Diputación de Bizkaya subvencionará con 10.000 pesetas anuales. Hasta tanto se confeccione nuevo presupuesto, la Comisión de Hacienda determinará de qué Capítulo habrá de extraerse la cantidad necesaria.=7.^º Este proyecto y la resolución que sobre él recaiga deberá comunicarse á las distintas Diputaciones de Euzkadi y á los representantes de los vascos ultrapirenaicos, recabando al propio tiempo su apoyo moral y material.=8.^º Cada Diputación nombrará un Sr. Diputado que la represente. Los Sres. Diputados designados constituirán la Comisión gestora hasta tanto quede constituida definitivamente la Institución.=Bilbao á 12 de Enero de 1918.—Kosma Elgezabal'tarra.—Ramón M. de Rotaeché.»

«Jaunoi: Benetan urgazi bear dogun aurrenetarikoen lan artian, nekeza berez ta gure erriya bizi dan bereizkiñakaz egitzu ta atonduteko gatx-gatxa, agertzen yaku irakaskintziena, Jakiñezak eta naikunde zitalk sortu dabezan zentzugabeko ustiak, ezaupen okertuak aberriyatzaz, jakintzatzerriaren sarkunde bidebakoak, bere artezkari andikiyen erizpen bedarrak eta gure buruaz aspaldiyen ihan oi dogun arduraezak, ekarri dabe oraingo geure errien egoera tamala. Asko deuseztu ta iya gustiya iragiteko dago.

Olako inguru bageaz, notin ta aldra bikain batzuen alegiñak, onek urgazi ta zabaltzeko almen eraldu bat izan ezik, alperrik dira. Eta egipidiaz baiño naikunde obiaz gura dogu, geure gerkunde au txiro arren, jakidiya irasi ta zabalua; idazti ugari iratzi; euzkeria indartu, obetu ta berari dagokion abegiyaz, artu dayela txoniztegi, ikastol eta irakastoki-yetan; bera geure artu-emoneko lenengoetarikoen lankiya izan daitela, euzkeriak euzko-notintasuna sendotu dagiyan. Naikunde zintzoa, baiña dagokazan bidiak artzen ezzapadoguz, elduko etxakuna.

Izkuntzen gixarteko bizitza, idazle ta irakurle pillo on bat barik, ezin sendotu lei; eta ez idazle ez irakurlerik izango dogu, eurek sortu bear dauzen erriyari, benetako euzkelduna izaten irakasten ezpadotsagu. Labur geldituko dira beti, bakoizdunak edo diralako, utsune au betetako baten batzuek egiten dabezan iñungo alegin txalogarriyak.

Lan oroen lendiko bidian agiri dira gabe orrek. Zelai muga bako bat da euzkeria edozelako naikeriyentzat. Norberen jakintzen autustia, au da ta au ezta euzkeriatzaz irakasteko, idazle geyenen atza da; iñok be eztau bere erizpena jarein gura, irauten dira aldiak eta eskarrak Jaungoikuari ozta-ozta izan arren be, zerbait aurreratzten ba-gara geure lanian.

Lenen-lenen ba, bidia atondu bear, beragandik ondo ibilteko ta bera zuzen erabilteko. Biar-añeko notiñen Bazkun bat, aldiak batak bestiakin aztertu ta al dan ondoen erabagiteko; utsunak bete; itzen ikur-pena eta esanguria tinkotu, idazkera bat jarri; izkelgiak bata be ezetsi barik eta alkarré geitu ta aberastuta baiño, orobatu; idaztiyak bildu, eta azkenez, izkera garbi, makezbako jakintzlanetarako egoki ta erabilkorra, euzko-errien gaigarría, emon dagizkun.

Gogo zabal batek eta ezetan bez berekoyak eragin bear dauz iragiko dan Bazkunen antolakizuna, izakera ta bizkitza. Egiyari ta abertzetaletasunari begira eritzi batzuk danen gain edozelan ipiñi nai barik, emongo dauskuz eztabaida bare ondoren, euzkerien arau azterkariyak.

Asmo onek, euzko orori dagokiozalako, eztira esi bear Bizkai egaletan. iGaraipen gixajoa geure erkiyan xedatuko bageunke bera! Gipuzkoa, Araba, Naparra ta Parantzeko 150.000 anayak entzungo dabe, orixe bai, geure deya eta ekarriko dausku euren laguntza, gagozan eunkiyan bizi edo ilteko epaya artuko daben asaberi mintzari, zor yakon maitasunaz.

Iraskunden eustazpiyak ixango dira:

1.ⁿ Bizkaya, Gipuzkoa, Araba eta Naparraen Diputaziño eta Parantzeko euzkeldunen ordezkarien keriz ta babespien, irasten da Bazkunde bat ixenaz, euzkeria ta bere izkelgi oro adiratu, garbitu, obetu, orobatu ta zabaltzeko. Bere erabakiak, agintzallen sorospen eta almena eltzen danaña, bear-etsiko dira; eta agintzalle oyek ukutzen daben euzkelgaiaz oroetan beragana zuzenduko dira.

2.ⁿ Ogei lagunek osotuko dabe Bazkundia eta izango dira Euzkadi-ko erki ta izkelgi gustiaren ordezkariyak. Euzkeriaz lan ondoen egin daben euzko edo atzerritarak, euren zertzeladagaitik (biztokiya, erritasuna, t. a.) Bazkunde bertan bazkide egizkorra sartu ezin ba-dire, lagun omengarriak bezela ixentau leikioe Bazkundiak. Onek eztira izango ogeitik gora. Baita be jarten dira bazkide lankidiak. Bazkundiak aldunduta zeregin mugatu batzuk egiztuteko. Onexen jardunduntzia, ordaindua izango da, eta bere zenbakuna bear dan beste.

3.ⁿ Illian bein gitxienez batzauko da Bazkundia; eta Araudiyak tintoku daben sariya emongo yake batzaldira datozanai.

4.ⁿ Jarten dira oraindik lagun, Lhande, Campion, Azkue, Agirre, Arriandiaga, Bustintza, Etxalar, Eleizalde, Olabide, Belaustegigoitia, Basabe, Euzkeltzale-Bazkunako bat, Eguzkitza, López Mendizabal, Urkixo (Julio), Agerre, (Iruñakua) eta Bayona'ko «Eskualduna»en ordezkari bat. Jaun orrek gertuko dabe Bazkundien Araudiya.

5.ⁿ bein eratu ezkero bereztuko dau bere jartokiya.

6.ⁿ 10.000 laurlekogaz urtian urgaziko dau Bizkai-Diputaziñuak J. Zergaiti barriya egin arte eralgi behar dana, Ogasun-Batzordiak bereztuko dau nundik atara.

7.ⁿ Asmo au ta beratzaz ezarriko dan erabakiya egiztuteko jakin erazoko jakoe, euren gogozko ta txindiz laguntza eskatzen yakoela, Euzkadi'ko beste Diputaziñeroi eta Parantze aldeko euzkeldunari.

8.ⁿ Diputaziño bakotxak aututen daben Diputadua sartu ta izango da nagusi Batzorde gerlian, Bazkundia bear dan lez jarri arte.

Bilbon Lotazilleko 12.ⁿ - 1918.=Kosma Elgezabal'tarra.=Landaburu taŕ Peli.»

Testu hau, euskarazkoa, Bizkaiko *Boletinean* agertu baino lehen *Euzkadi* egunkariak argitaratu zuen 1918.eko urtarilaren 28ko alean, hau da, ostiralean Diputazioan aurkeztutakoa hurrengo astelehenean kaleratu zuen Plaza Barri honetan administrazio bulegoa zeukan egunkariak. Beraz, irakurleek bazekiten zertan zegoen euskal Akademia sortzeko asmoa. Gero *Euskeria* Euskaltzaindiaren agerkariak, 1920an kaleratu zuen lehen zenbakian, eman zuen berriz testua. Baino ohartxo bat egin behar zaio Akademiaren argitalpen honi, ortografiarena, hain zuzen: *Boletinean eta Euzkadin* bi rr letrekin agertzen diren hitzak, gure agerkariak r gangardunarekin atera zituen.

Zein zen Akademiari egozten zitzaison helburua? Euskararen jagole izatea: "euzkeria ta bere izkelgi oro adiratu, garbitu, obetu ta zabaltzeko" sortu nahi zen *Bazkunea*. Eta horretarako hogei lagun hautatzea proposatzen zen. Honek ere izan zuen Goikoetxea diputatuaren kontrako iritzia, Diputazioaren aurrekontutik ordaindu beharko zirela dietak eta. Sota jaunak erantzun zion ez zela Bizkaikoa bakarrik, beste hirurak ere horretan partaide izango zirela. Proposamenean izen eta guzti agertzen ziren hautagaiak, herrialdeka, hauek ziren:

Bizkaitik, 7: Azkue, Agirre, Arriandiaga, Bustintza, Belaustegigoitia, Basabe eta Eguzkitza.

Gipuzkoatik, 4: Lhande, Eleizalde, Lopez Mendizabal eta Urkixo.

Nafarroatik, 3: Campion, Etxalar eta Agerre.

Arabatik, 1: Olabide.

Euskaltzaindia Oñatin sortu eta berehala hautatu ziren lehen lau euskaltzainak zerrenda honetan zeuden: Azkue, Campion, Eleizalde eta Urkixo. Eta hurrengo urtean hautatuko ziren batzuk ere bai: Lhande, Agirre, Olabide, Eguzkitza eta Agerre. Nik nire buruari egindako galderai erantzuna eman behar diet une honetan:

1. Iparraldekorik ez baita aipatzen, zergatik agertzen da zerrendan Lhande? Une hartan Hernanin zegoelako, ene iritziz.

2. Nor zen aipatzen den Basabe hori? Kandido Basabe Retolaza lekeitiarra zelakoan nago. Proposamenaren urte berean *Jesusen Biotzaren Deya* sortu zuen josulaguna zen.

3. Zergatik ez zen Iparraldekoen izenik ematen? Baionako *Eskual-duna* aldizkariaren ordezkoa aipatzen zen, izenik eman gabe. Bainaz bazeuden izendatzeko beste ezagunak ziren Barbier, Etxepare, Landerretxe, Saint-Pierre, "Oxobi", Lacombe, Broussain, eta abar. Hauetatik, dakigunez, Landerretxe, Lacombe eta Broussain euskaltzain oso izendatuak izan ziren 1919/1920an. Eta geroago "Oxobi" eta Saint-Pierre.

Dena den ez ziren erratuak izan eta bide okerretik ibili Elgezabal eta Landaburu hautagaiai proposatukeran.

Baina omenaldi honetan gogoratzen ditugun proposatzaileak dira azken lerroetarako utzi ditudanak, amaierako hitzak izaten baitira oroitzapean hobeto finkaturik geratzen direnak.

Kosme Elgezabal Urrengotxea. Bilbon, Artekaleko 65. zenbakia zerman etxean jaio zen 1877.eko irailaren 27an. Kosme-Damian izena jarri zioten izena gurasoek San Juan parrokiaren egun berean bataiatu zute-nean (2). Gorozikako Oka auzunekoa zen aita, Basilio Elgezabal Oñarte-sagasti, hargin lanetarako Bilbora etorria. Gertrudis Urrengotxea Mandiola ama Ibarrurikoa zen. Axpe-Martzanako Isidra Gorostiza Ortueda andrearekin ezkondu zen Kosme Elgezabal 1910.eko uztailaren 2an, Durangoko Andra Maria elizan. Andraren familiako etxean bizi izan zen (orain Kurutziaga Hotela dagoenean) eta zazpi seme-alaba izan zituzten: Lutxi, Bitor (zeinen alarguna, Cristina Cabrera hemen dagoena), Maria, Jon, Paul, Elizabet (ezkongabe hila) eta Xabier. Deustuko Unibertsitatean egin zituen Filosofia eta Letren ikasketak, lizenziaduna izanik, eta Zuzenbidean Doktoregoa ere bertan lortu zuen 1902.eko urriaren 18an, tesiaren gaia hau izan zelarik: *Un punto de Derecho Político en la Historia de Bizkaya. ¿En quién radicó la facultad suprema legislativa de Bizkaya?*, Euzkadi aldizkarian argitaratua, zatika, 1906/1907 urteetan. Euskaltzaindia sortzea proposatu ondoren, ikusi dugunez 1918an, Oñatiako Biltzarrean ere gure erakundearen sortzearen lekuko izan zen eta bertan hizkuntzalaritzako saioetan partaide, Arautegia idazteko lanetan ere bat izan zelarik Azkue, Agirre, Eleizalde, Olabide, Urreta eta Biziola batzordekideekin. Gero harreman estuak izan zituen Euskaltzaindiarekin. *Lenengo euskal- gunetako itzaldia* Durangon antolatu zirenean, 1921.eko irailaren 4tik 8ra, han zen Kosme Elgezabal *Astarloakoia*ik taldean. Urte berean, *Erizki-zundi Irukoitza* lana Azkue prestatzen hasi zenean, azaroaren 24an egin zen bileran, Durangaldeko erantzunak betetzeko Kosme Elgezabal proposatu zuen Eleizaldek. Gerra hasita frankotarrak Durangora heldu zire-

(2) Bataiatuen 16. Liburua. 102. folioa.

nean, bertako gartzelan atxilotu zuten lau hilabetetan eta gero Palencian bete zituen beste lau urte erbesteratuta. Euskal hiztegi bat prestatzen ari omen zen heriotzea heldu zitzaionean 1953.eko uztailaren 30ean. Testamentu idatzia utzi zuela dio Paul semeak, baina seme-alabei ahozko azken gomendioa honako hau izan zen: zain ezazue euskara eta zuon seme-alabei irakatsi. Kosme Elgezabal Urrengoetxeari eskerrona eta ohorea!

Felix Landaburu Madaria. Honen alaba izan zen Begoñak, Larroque pintoreak aitari egindako oleoa Euskaltzaindari eman zionean (1986-1-31) idatzi nuen Landabururen biografia (Ikus *Euskera*, 1986, 436-437 orr.) Bainan geroztik lortutako datu batzuk gehitu behar ditut orain. Bilbon, Tenderia kaleko 50.zenbakia zeraman etxearen jaio zen Felix-Maria-Gregorio izeneko haurra, 1886.eko maiatzaren 25ean, egun berean San Anton elizan bataiatua izan zelarik (3). Aita, Juan Landaburu Idigoras bilbotarra zen eta ama, Maxima Madaria Alava, Urduñakoa. Bilboko San Bizente elizan ezkondu zen 1916.eko maiatzaren 15ean Ramona-Teresa Azkue Gorostizaga andrearekin, eta aiko horretan sartzen da, emaztearen aldetik, hemen dagoen Iñaki Zarraoa, dakidanez Azkuek bataiatu zuena. Ezkonduta bi urtera hil zen Peli Landaburu 1918.eko abuztuaren 4an. Urte bereko urtarrilaren 25ean Euskaltzaindia sortzea proposatu zuen honek, ez zuen ikusi, Elgezabalek bezala, Erakundearen jaiotza. Bainan Oñatiako Biltzarren eraketa lanetan ibilia izan zen bilbotar hau ez zuten ahantzirik utzi eta irailaren 5ean meza bat eskaini zion Biltzarra, meza-emaile Mateo Mujika izan zelarik, garai hartan Burgo de Osma-ko apezpikua zenak. Felix Landaburu Madariari ere eskerrona eta ohorea!

Honekin amaitzen dut. Gerokoak, gero.

(3) Bataiatuen 16.liburua, 104. partida.

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEMUGA

Egoitza, 1993-01-29

*Jose Alberto Pradera
Bizkaiko foru diputatu nagusia*

Euskaltzain Jaun eta Andra agurgarriok eta hemen batu garen lagunok:

Aurretiaz ederki azalduta Haritschelhar eta Arana Martija euskaltzainen hitzetan entzun dogun legez, hainbat euskaltzalek euskararen iraupenaren eta etorkizunaren kezka barreneraino sartua eukan. Ezin da ahaztu, bestalde, hizkuntza beti joan dala herriaren izatearekin eta senarekin batera, edo, bestela esanda abertzalesunarekin batera. Garaiak berak, euskararen ardura hartzeko erakunderen bat sortzea eskatzen eban, eta horrelaxe sortu zan, zorionez, Euskaltzaindia.

Hirurogeita hamabost urte bete dira Euskaltzaindiaren sorreratik eta ordutik hainbeste lan egin dau. Baino, beharbada, egin dituen lanak baino garrantzi haundiagoa dauka euskararen sua eta garra beti pizturik gorde izatea, urte txarretan eta onetan, eta hori Euskaltzaindiari zor jako neurri on batean. Azkenaldi honetan, bestalde, bere emoitza, hizkuntzari jagokozan alderdi danetatik, asko ugaritu dira.

Horregatik, harro egotekoa da Bizkaiko Foru Aldundiarentzat Euskaltzaindiaren sorreran hasiera-hasieratik horrenbesteko partaidetzat izatea. Lehenengo urratsa emoteko Bizkaiko Foru Aldundiarekin kontatu eben eta Foru Aldundiak hizkuntzari eta herriari jagoken erantzuna emoten jakin izan eban.

Bi Ahaldun abertzale eta euskaltzale izan ziren hori bultzatu ebenak, Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu, hain zuzen, Ramón de la Sota gure herriko kulturari zuzperraldia emon eutsonaren lankide zintzoak. Horreei esker aurkeztu zan Bizkaiko Foru Aldundian euskara zaintzeko akademia bat sortzeko proposamena, eta proposamen hori onartua izan zan. Gero beste hiru foru aldundiak ere batu ziren, eta honela sortu zan Euskaltzaindia.

Ohore, beraz, Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu jaunei jakin ebelako herriaren kezka jasotzen eta bideratzen. Esker on hau gaur

ekitaldi honetan dagozan jeuron senideei luzatu gura deutsiet, eta ohore, baita ere, Euskaltzaindia sortzeko ahalegindu ziren euskaltzaleei. Zorio-nak Euskaltzaindiari ere hirurogeita hamabostgarren urteurrena ospatzen daualako, eta aurrera egin dagizuela kementsu eta adorez euskara-ren alde beharrean eskatzen eta opa deutsuet...

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA ERDARATIKO DEITUREN IDAZKERAZ

Maiz aski erdaratiko deiturak euskal grafiaz idatziak ikusten dira, hala nola *Kaballero*, e.a. Era berean, euskal hitz ondarekoak ez diren izen arrunt ugari agertzen dira bazterretan euskal grafiaz jantziak, adibidez, *kaña*, *intsumiso*, *txupinazo*, e.a.

Gertakari hauen aurrean, eta Erakunde honi egiten zaizkion galderak kontuan izanik, Euskaltzaindiak honako hau nahi du aditzera eman:

1. Euskal jatorri garbia duten izen propioei dagokiela, gizabanakoak badu bere deiturak euskal grafiaz idazteko eskubidea, adibidez, *Etxeberri*, *Ezkerra*, *Karrikaburu*, *Arregi*, e.a., *Echeverri* edo *Echeberri* edo *Etcheberri* edo *Etcheverry* idatzi beharrean, orobat *Ezquerra*, *Carricabourou* edo *Carri-caburu*, *Arregui* edo *Arreguy* edo *Harreguy* formen ordez. Forma horiek, jakina denez, ofizial bihur daitezke, indarrean den legeriaren arabera.
2. Euskal Herrikoak ez diren deituretan, zein-nahi den ere jatorrizko hizkuntza. Euskaltzaindiak ezin du bere irizpena eman euskal grafia-ren alde, hain zuzen ere hizkuntza eta kultura horiei diegun begiruneagatik. Ez zaizkigu bidezko iruditzen, bada, *Kasenabe* (*Cazenave* edo *Casenave*), *Balberde*, *Karballo*, e.a. Halaber ez ditugu onetsiko *Mitxelin* eta bestelako idazkerak.
3. Ezaguna da asko direla arazoak euskal jatorriko deituren idazkeran. Euskaltzaindiak aurrera darama deiturei buruzko ikerlan bat, izende-gi bat argitaratzeko asmoz, euskaldun hiritarra ematen zaion aukeraz jakinaren gainean egon dadin.
4. Hala ere, Euskal Herriko jatorria ez duen deitura norbaitek aldatu nahi badu, *Cifuentes*, *Sanchis* edo *Vaillant*, adibidez, halakoak ez du Euskaltzaindira zuzendu behar.

Bilbon, martxoak 15, 1993.

DECLARACION DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA SOBRE LA GRAFIA DE LOS APELLIDOS DE ORIGEN NO VASCO

Con frecuencia se observa el empleo de apellidos de origen no vasco, en los cuales se hace intervenir la grafía del euskara. Así, por ejemplo, se han podido ver *Kaballero*, etc. Este es un hecho paralelo con la profusión de grafías pretendidamente vascas en nombres comunes que no pertenecen al acervo euskaldun, como *kaña*, *intsumiso*, *txupinazo*, etc.

Ante estos hechos, y por las numerosas consultas recibidas en esta Institución, la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia desea manifestar ante la opinión pública lo siguiente:

1. Por lo que toca a los nombres propios, en los apellidos de claro origen vasco, es un derecho que asiste al individuo al escribirlos según la ortografía vasca, v. g., *Etxeberri*, *Ezkerra*, *Karrikaburu*, *Arregi*, etc., en lugar de *Echeverri* o *Echeberri* o *Etcheberri* o *Etcheverry*, *Ezquerra*, *Carricabourou* o *Carricaburu*, *Arregui* o *Arreguy* o *Harreguy*. Estas formas, como es sabido, pueden ser elevadas a categoría oficial, de acuerdo con la normativa vigente.
2. En aquellos apellidos de origen no autóctono, cualquiera que fuere la lengua de origen, Euskaltzaindia no puede dictaminar su conversión a la grafía vasca, y ello por una elemental razón de respeto a esas lenguas y sus pueblos. No consideramos procedentes grafías como *Kazenabe* (*Cazenave* o *Casenave*), *Balberde*, *Karballo*, etc. Del mismo modo, la Academia no puede amparar grafías como *Mitxelin*, etc.
3. Es conocido que no son pocos los problemas en la grafía de los apellidos de formación vasca. Euskaltzaindia lleva adelante un estudio sobre apellidos, con vistas a un nomenclátor general, de modo que el ciudadano esté informado de la posibilidad que se le ofrece.
4. Si alguien desea, pese a todo, cambiar la grafía de su apellido de origen no vasco, por ejemplo, *Cifuentes*, *Sanchis* o *Vaillant*, no es Euskaltzaindia la instancia a la que debe acudir.

Bilbao, 15 de marzo de 1993.

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

Bilbo, 1993ko urtarrilaren 29a

Haritschelhar, J., euskaltzainburua; Lekuona, J. M., euskaltzainburuordea; Knörr, E., idazkaria; Arana, J. A., diruzaina; Azkarate, M.; Charriton, P.; Davant, J.-L.; Diharce, X.; Irigoyen, A.; Krutwig, F.; Larre, E.; Oyharçabal, B.; Peillen, T.; Salaburu, P.; Sarasola, I.; Satrustegi, J. M.; Villasante, L.; Lizundia, J. L., idazkariordea.

Akademi-gaietan: Gandiaga, B.; Kintana, X.

Bilbon, egoitzan, 1993ko urtarrilaren 29an, egin du Euskaltzaindiak hileko batzarrea, goizeko hamarretan hasita. Aldamenean aipatzen diren lagunak etorri dira. Ezin etorria P. Ondarrak eta J. San Martinek adierazi dute.

Agiria

Abenduko agiria onartu da, zenbait zuzenketarekin. Eztabaidatu da, bereziki, abenduko batzarrean hitanoarentzat batzorde bat sortuko dela erabaki zenentz. Azkenean, gaia Barne Jardunaldiaren aztertuko dela agirian ezartzea erabaki da.

Barne gaiak

Miren Azkaratek Donostiako domina jaso duela-ta, zorionak eman dizkio Euskaltzainburuak, Euskaltzaindiaren izenean. Orobak Alfonso Irigoyen, Euskal Herriko Bersolarien Elkarteak hari eta S. Onaindia euskaltzain ohorezkoari omenaldia eskaini baitzien Donostian, aurreko egun batean. Omenaldiaaren kariaz, *Aita Santi Onaindia eta Alfonso Irigoien bertsogintzaren lekuoa* deritza liburua, argitaratu du Elkarte horrek (Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbo 1993).

Eragile Teknikariaren arazoa aztertu da ondoren. Euskaltzainburugoaren proposamena azaldu du J. Haritschelharrek. P. Salaburuk lehiaketa publikoa eskatu du, gardentasunagatik, eta, bestalde, baldintzak gehiago zehaztu behar direla esan du, hala nola hizkuntzen ezaguera. E. Knörr-en iritziz, gardentasuna eta lehiaketa

mugatua ez dira inondik ere elkarren etsai. Ordu laurdeneko eztabaidaren ondoan, Euskaltzainburuak gaia mahai gainean uztea proposatu du, otsaileko batzarrean erabakitzeko. Zuzendaritzak egungo batzarrean entzundako oharak entzunik, testuan aldaketa batzuk egindo ditu.

Euskaltzaindiko karguen horniketa izan da ondoren gaia. Egutegia aurkeztu du J. Haritschelharrek. Otsailaren 20rako proposamenak egin beharko dira izkribuz. Martxoaren 20rako, beriz, euskaltzain osoek eta urgazleek behar dute adierazi zein batzordetan nahi duten lan egin. Apirilean egingo dira Barne-Jardunaldiak, baina gai bakar batekin: Euskaltzaindiaren Barne-erregelak berriztatzea. Orduko, lantalde batek bere testu-proposamena aurkeztua behar du izan, bakoitak bere iritziak garaiz adieraz ditzan.

Eskuartekoak

Nafarroako Parlamentuak itzultzaien azterketarako ordezkarri bat eskatu dio Euskaltzaindiari. Jose M. Satrustegi izendatu da, eta Andres Iñigo ordezko.

1992an osoko batzarreetara etorritakoena zerrenda banatu da, Euskaltzaindiaren Arautegiak agindu bezala moldatua.

Gramatika Batzordearen aurtengo eginkizunen programa banatu da.

Príncipe de Asturias Fundazioak aurtengo sarirako hautagaiak eskatu dituzte. Martxorako egin behar da proposamena, egingo balitz.

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutzaren laguntzaz antolatzen dituen Azkue Sariak, 1992ko urteari dagozkiola, erabaki dira. Haurren sailean (1979-1982 bitartean sorturiko egileak), Maia Duguine, Kanboko Beñat Etxepare eskolakoa, izan da irabazlea, *Amets eta negar kontaera*, eta Beñat Ugartetxea Mallabiko Herri-Eskolakoa, *Ikasturtea* izeneko olerkiaz. Gazteen sailean (1975-1978 bitartean sortuak), Erika Usabarrena Donostiarra La Salle eskolakoa, *Love story* kontaera, eta Iñaki Azurmendi, Legazpiko Batxiller Institutukoak, izan dira irabazleak, *Hizki tipien harmonia* olerkiaz. Sari banaketan J. A. Aranak eramango du euskaltzainburuaren ordezkaritzza.

Euskal Herriko Herri Erakundeen Barne Errutulazioa deritzan liburuaren aurkezpena atzo egin zela aditzera eman du M. Azkaratek, Euskaltzaindiaren izean horretarako eratu zen batzordean aritu denak.

A. Irigoyenek *I. Jardunaldiak Soziolingustikaz* liburuaren berri eman du. Bilbon egindako Jardunaldietan irakurritako txostenak biltzen ditu liburuak. Besteak beste, A. Irigoyen, I. Gaminde, K. Zuazo eta Jose M. Sánchez Carrión izan ziren txostengileak.

Akademi-gaiak

Une honetan X. Kintana eta B. Gandiaga urgazleak sartu dira batzar-gelan. P. Salaburu Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika laburra*-ren oraingo egoeraz

mintzatu da lehenik. Historia egin du, horrelako gramatika bat argitaratzearen alde onaz, bereziki, ahaztu gabe, jakina, aurreko batean *EGLU I eta II liburukiei zenbaitek egin zien plagioa*.

Ondoren, zenbait euskaltzain osok eta urgazlek testuari egindako oharrak aipatu ditu. Edukinari buruzko oharrak ziren, batetik, eta terminologiari eta estiloari buruzkoak, bestetik. Batzordak ohar horietako batzuk ontzat hartu ditu, besterik gabe, eta beste batzuk zergatik ez diren onartu azaldu du P. Salaburuk. *Nominatibo* deitura, adibidez, ez du Gramatika Batzordeak egoki jotzen. *Ukan*, **edun* eta **edin* partizipoen kasuan azalpen bat emango da liburuan, nahiz gero, testuaren barrenean, *ukan* eta *izan* erabiliko den. *Bazkaldu* eta *afaldu* aditzei dagokielo, ohar bat agertuko da bizkaierazko eremuan izen-osagai zuzenarekin erabiltzea zilegi dela esanez (*Arrautzak afaldu genituen, adibidez*). *Objektu/objetu* forma bikoizketaz, beste ohar bat sartuko da, Euskaltzaindiak hitz honen idazkera erabakiko duenean forma ere finkatuko dela. Hitanoaz denaz bezainbatean, testuari eutsiko dio batzordeak. *Ikusiko gara baino Ikusiko dugu elkar* hobeki dagoela esango da. *Bere/haren* eta sail horretan, hobetsiko da bereizketa (*Manu bere etxera joan zen/Gu haren etxera joan ginen*). Datak ematerakoan, *urriarrik 15* gisakoa aposizioan eta tituluetan soiliik erabiltzea hobe dela adieraziko da.

Azkenik, Euskara Batuko batzordeak gaurko proposaturiko gaiaz mintzatu da. *Nornahi* eta antzekoen grafiaz luzaz eztabaидatu ondoan, proposamen hau eta *Nor/nortzuk* bereizketari datxekona otsaileko batzarrerako gelditu dira.

*Jean Haritschelhar
euskaltzainburua*

*Endrike Knörr
idazkaria*

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENAREN OSPAKIZUNAREN HASIERA

Bilbon, 1993ko urtarrilaren 29an, arratsaldeko lauretan, egoitzako hitzaldi-aretoan, egin du Euskaltzaindiak batzarre irekia, Erakundearen 75. urteurrenaren ospakizunaren iragarpenekoa. Mahaian jarri dira: J. Haritschelhar, euskaltzainburua; J.M. Lekuona, euskaltzainburuordea; E. Knörr, idazkaria; J.A. Arana, diruzaina, eta Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia. Bertan ziren: L. Villasante, F. Krutwig, P. Altuna, M. Azkarate. P. Charriton, J.-L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Larre, T. Peillen, I. Sarasola eta J.M. Satrustegi euskaltzainak; G. Aurrekoetxea, R. Badiola, F. Barrenengoa, B. Gandiaga, X. Gereño, J.L. Goikoetxea, X. Kintana, J.M. Larrarte, J.L. Lizundia, A. Muniategi, J. Oleaga, K. Rotaetxe, P. Uribarren, X. Videgain eta J.J. Zearreta urgazleak.

Leku erreserbatuetan jarri dira: M. Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia; José M. Rodríguez Ochoa, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia; Tomas Uribeetxebarria eta M. Jesus Aranburu, Bizkai eta Gipuzkoako Kulturako foru diputatuak; Balendin Lasuen, Eusko Jaurlaritzako Bizkaiko kultur ordezkaria; Aitor Esteban, Bizkaiko Diputazioaren idazkari nagusia; Jokin Apalategi, Eusko Ikaskuntzaren ordezkaria, eta Adrian Celaya, Euskalerriaren Adiskideen Erret Elkarteaaren ordezkaria. Kosme Elgezabalen seme-alaba eta ilobak eta Felix Landaburen senitarteko batzuk ere etorri dira.

J. Haritschelhar euskaltzainburuak hasi du ekitaldia. Bere hitzaldian gogoratu du, batez ere, Bizkaiko Diputazioari zor zaion merezimendua, handik sortu baitzen Euskal Akademia sortzeko oihartzuna izan zuen asmoa. Gero, Euskaltzaindiaren historia laburra egin du, bereziki, Arantzazuko biltzarra aipatuz, 50. urteurrenari, euskara batuarentzat garrantzi handikoa, eta azken hogeita bost urteak eta 1975z gero euskarentzat mugaz honanzko lege-status berria. Azken hitzak Euskaltzaindiaren urteurreneko eginkizunak iragarri ditu hizlariak.

Hitzaldi hau bukatu ondoan, egungo bi omenduen gorazarrezko harlandu bat agertu dute J. Haritschelharrek eta J.A. Praderak. Hona zer dioen harlanduak: "Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu Bizkaiko Diputatuak, Euskaltzaindiaren sorerra bultzatzaileak, 75. urtemuga ospakizunean, omenduak izan dira gaur. Bilbon, urtarrilak 29, 1993".

J.A. Arana Martijak hitz egin du ondoren. Kosme Elgezabal (1877-1953) eta Feliz Landaburu (1866-1918) jaunen bizitzaz jardun ondoren, biek aurkezturiko asmoa jasotzen duen agiria irakurri du, bai eta Bizkaiko Diputazioaren 1918ko urtarrilaren 25eko batzarrean gertatua kontatu. Euskaltzaindiaren lehen urratsak gogoratz eta hasiera hartako euskaltzainen izenak aipatuz bukatu du hitzaldia.

Azkenik, J.A. Pradera jauna mintzatu da. Poza agertu du, Bizkaiko Diputazioak Euskaltzaindiaren sorreran partaidetza handia izan zuelako. Zorion agiankatu dio gero Euskaltzaindiari, urtemuga hau dela-ta, eta etorikizuneko fruituan bere itxaropena azaldu du.

*Jean Haritschelhar
euskaltzainburua*

*Endrike Knörr
idazkaria*

Donostia, 1993ko otsailaren 26a

Haritschelhar, J., euskaltzainburua; Lekuona, J. M., euskaltzainburuordea; Knörr, E., idazkaria; Arana, J. A., diruzaina; Altuna, P.; Azkarate, M.; Charriton, P.; Davant, J.-L.; Diharce, X.; Irigoyen, A.; Krutwig, F.; Larre, E.; Oyharçabal, B.; Ondarra, P.; Salaburu, P.; San Martin, J.; Sarasola, I.; Satrustegi, J. M.; Lizundia, J. L., idazkariordea; Zearreta, J.J., ekonomi-eragilea.

Akademi-gaietan: Kintana, X.

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1993ko otsailaren 26an, bildu da Euskaltzaindia, goizeko hamarretan hasita. Aldamenean aipatzen diren lagunak etorri dira. Ezin etorria L. Villasantek adierazi du.

Agiria

Urtarrileko agiria onartu da, zenbait zuzenketarekin.

Barne gaiak

Eragile teknikariaren arazoa izan da lehen puntuoa. Testu berritua aurkeztu da eta ondoren bozketa egin da, dei publikoa bai ala ez. L. Villasantek euskaltzainburuari eman dio idatziz botu-ordezkaritza. Alde hiru izan dira botoak; aurka hamabi, eta bi zuri. Hortaz, dei mugatuaz hornituko da eragile teknikoaren lantokia.

Zuzendaritzaz landako karguen hautapena egin da gero. Banan-banan bozkatu da eta hala onartu, gehiengoz, era honetara: Iker sailburua, P. Altuna; Jagon sailburua, E. Knörr; Gasteizko ordezkaria, M. Ruiz Urrestarazu; Donostiako ordezkaria, J.M. Lekuona; Baionako ordezkaria, P. Charriton; eta Iruñeko ordezkaria, J.M. Satrustegi.

Espaniako Kultur Ministerioak urteoro deitzen dituen Literatur sarietarako Zuzendaritzak proposaturiko epaimahaikideak onartu dira, hots, iazko berak. Ohar-

turik Ministerioak azken bi urteetako kideak aldatzea agintzen duela, J.M. Lekuona Literatura batzordeburuaren esku utzi da, idazkariordearen laguntzaz, aldaketa horiek gauzatzea.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak kide bat eskatu dio Euskaltzaindiari, nekazal hiztegia landuko duen taldean aritzeko. Jean-Louis Davant izan da izendatua, eta Kepa Enbeita urgazlea haren ordezko. Gutunean alor horretan orain arte egina dena kontuan hartzeko premia aipatzea erabaki da.

Onomastika batzordearen adierazpena aurkeztu da ondoren, erdaratiko dei-turen grafiaz. Onartu da.

Euskal Irrati Telebistako zuzendariaren gutuna izan da gero mintzagai. Ahozko erabilera eredugarria eskatzen du. Gai hori Euskaltzaindiaren 75. urteurreneneko biltzarrean kontuan hartuko dela erantzungo da.

Akademi-gaiak

Une horretan X. Kintana urgazlea sartu da batzar-gelan. *Nornahi* eta sail berekoen ortografia eztabaидatu da lehenik. Luzaz aritu ondoren, lehen osagaia *n-z*, *t-z* edo *k-z* bukatzen bada, hitz batez idatzi ahalko dira, soinu-aldaketarekin (*nonahi*, *zenbanahi*, *nondinahi*), edo letra guztiekin, marratxo batez berezia (*non-nahi*, *zenbat-nahi*, *nondik-nahi*). *Zenbatgura* eta antzekoen arazoa geroko utzi da.

Nor/nortzuk, *zer/zertzuk*, *zein/zeintzuk* galdegileen ortografiaz hitz egin da ondoren. A. Irigoinenek bere txostenia azaldu du. X. Kintanak irakurri du orobat berea, aurreko zenbait prozedura eta erabakiren aurka. Azkenean, *Nor da hori/Nor dira horiek* euskara batuko forma hobetsi bakarrak izango direnentz bozkatu da. Bozketa honetan ez dute A. Irigoinenek eta F. Krutwigek parterik hartzen. Hona non emaitzak: Bai, 10; ez, 6; zuri, 1.

Eta honekin amaitu da goizeko bilkura.

ARRATSALDEKO BATZARREA

Egun eta toki berean, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere batzarrea.

Bildu dira: J. Haritschelhar, J.M. Lekuona, E. Knörr, J.A. Arana, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Larre, P. Ondarra, B. Oyarzabal, J. San Martin euskaltzainak; J. Etxaide euskaltzain ohorezkoa; J.A. Arkotxa, M. Atxaga, R. Badiola, J.M. Etxebarria, J. Garmendia, X. Kintana, M.P. Lasarte, J.L. Lizundia, A. Zatarain eta J.J. Zearreta urgazleak.

Eusebio Osa jaunaren heriotzearen albisteaz hasi du bilkura Euskaltzainburuak.

Goizeko bilkuraren berri eman du ondoren Idazkariak labur: eragile teknikoaren hautabidea; sailburu eta ordezkarien izendapena; Espainiako Literatur

sarietarako epaimahaikideak; nekazal hiztegirako ordezkariak, erdaratiko deituren grafiaz adierazpena, eta eskuarteko zenbait gai.

Gerardo Lopez de Guereñu Galarragaz irakurri du ondoren E. Knörr-ek bere txostena, eta Arabako euskaltzain ohorezkoaren lan eskerga goraipatu.

Gero, P. Ondarrak “Goñerrin aurkitutako testuak (VIII)” izeneko txostena irakurri du. Bukatzean, E. Knörr-ek esan du forma interesgarri asko ageri direla testuotan: *gizi, gití, dakie, due*. P. Altunak ohar bat egin du *eskusatu* hitzaz.

Jose Garmendiak irakurri du, azkenik, bere txostena, “Iztuetaren *Guipuzcoa-co Condaira-ren inguruau*”. Liburuaren iturriak ikertu ditu txostengileak, bereziki Iztuetak Zamacolaren *Historia de las naciones bascas* liburutik harturiko materialaz.

Eta besterik gabe bukatu da batzarrea.

*Jean Haritschelhar
euskaltzainburua*

*Endrike Knörr
idazkaria*

Iruñea, 1993ko martxoaren 26a

Haritschelhar, J., euskaltzainburua; Lekuona, J. M., euskaltzainburuordea; Knörr, E., idazkaria; Arana, J. A., diruzaina; Altuna, P.; Azkarate, M.; Davant, J.-L.; Diharce, X.; Irigoyen, A.; Krutwig, F.; Larre, E.; Oyharçabal, B.; Ondarra, P.; Peillen, Tx.; Salaburu, P.; Sarasola, I.; Satrustegi, J. M.; Zabaleta, P.; Lizundia, J. L., idazkariordea; Zearreta, J.J., ekonomi-eragilea.

Akademi-gaietan: Aduriz, J.A.; Kintana, X.

Iruñean, Nafarroako Diputazioaren jauregian, 1993ko martxoaren 26an, bildu da Euskaltzaindia, goizeko hamarretan hasita. Aldamenean aipatzen diren lagunak eterri dira. P. Charriton, L. Villasante eta J. San Martinek ezin eterria adierazi dute.

Batzarrea hasi aitzin, Juan Cruz Alli, Nafarroako Gobernu-burua, aretoan sartu da, euskaltzainak agurtzeko.

Agiria

Otsaileko agiria onartu da, zenbait zuzenketa egin ondoan.

Barne gaiak

Eragile teknikarien hautapena izan da lehen gaia. Zuzendaritzak ez batzordeek proposamenik aurkeztu ez dutenez, apirileko batzarrean aztertuko da.

Batzordeen berriztapena egin da gero. Azken bi hilabeteetan jaso diren eskari-iradokizunak jaso ondoren, Zuzendaritzak bere proposamena aurkeztu du eta onartua gelditu da (ikus organigrama).

Kultur Ministeritzako Liburuaren Sailaren gutuna irakurri da. Euskaltzaindiaren ordezkariak eskatzen ditu sorketa dirulaguntzen deialdirako. Urgazle bat izendatuko du Zuzendaritzak.

J.M. Satrustegiren gutuna irakurri du ondoren Euskaltzainburuak. Antonio Tovar euskaltzain ohorezkoaren liburutegitik liburu anitz, oroz gain euskarareki-koak, Euskaltzaindiari eman nahi dizkio alargunak. Consuelo Larrucea alargunari Euskaltzaindiaren esker ona agertzea erabaki da, orobat J.M. Satrustegiri ere, bitartekari lanagatik.

J.M. Satrustegik Nafarroako *Oinarriak* elkartearen eskaria irakurri du. Euskal-aren legea aldatzeko eta gure hizkuntzaren alde zenbait ekintza burutzeko Euskaltzaindiaren suztapena eskatzen dute. J.M. Satrustegi bera izango da haietan. Gai honi datxekola, P. Zabaletak aipatu du eremu meharreko hizkuntzen aldeko gutuna, non irratibat gutxienez ezarri behar dela esaten baita. J.M. Satrustegik esan du gutun hori aztertzeko erabakia hartu dela.

Herri Batasuna alderdiak eskatu du Euskaltzaindiaren Zuzendaritzarekin elka-rrizketa. Apirilaren 28a proposatzea erabaki da.

P. Zabaletak gamazadaren ehungarren urteurrenara aurten betetzen dela azal-du du. Garai hartako giroa, euskarari dagokionez, aztertzeko hitzaldi bat edo bi egin litezkeela esan du. Hurrengo batzarrean erabiliko da gai hau.

Akademi-gaiak

J.A. Aranaren gutuna irakurri du Euskaltzainburuak, otsaileko bozketaz. Izan ere, badirudi gaizki ulertu bat gertatu zela gramatikazko puntuari buruzko bozketan. Gaiaz mintzatu ondoren, batzartuek aho batez erabaki dute bozketa hura dagoen-dagoenean uztea eta aurrerantzean bozkatzeko proposatuko den guztia idatzirik izatea.

X. Kintana eta J.A. Aduriz urgazleak batzar-aretoan sartu dira.

Euskara Batuko Hiztegiaren lehen zerrendaz egin du M. Azkaratek azalpena eta Arantzazuko Hiztegia (1968) oinarri duen zerrenda honetaz etorritako oharrez mintzatu.

Zerrendak aurkezteko irizpideez aritu dira gero batzartuak. Hiztegiaren era-bilgarritasuna kontuan hartuko da sarreretan, literaturan errotuak dauden aldaga-riak ezarriz.

BATZARRE IREKIA

PEDRO DE YRIZAR JAUNAREN LIBURUEN AURKEZPENA

Egun berean, eguerdiko ordubatean, jauregi bereko hitzaldi-aretoan, egin du Euskaltzaindiak batzarre irekia, Pedro de Yrizar euskaltzain ohorezkoaren *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (I, II)*, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* eta *Morfología del verbo auxiliar roncalés* liburuak aurkezteko. Mahaian jarri dira: Juan Cruz Alli Nafarroako presidentea; J. Harits-chelhar euskaltzainburua, eta E. Knörr idazkaria. Aretoan ziren J.M. Lekuona,

euskaltzainburordea, J.A. Arana, diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, J.-L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, B. Oyharçabal, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola, J.M. Satrustegi eta P. Zabaleta euskaltzainak; J.A. Aduriz, J. Apezetxea, J.M. Azpiroz, R. Badiola, P. D. de Ulzurrun, X. Kintana, J.L. Lizundia, M.M. Ruiz Urrrestarazu eta J.J. Zearreta urgazleak. Erakundeen ordezkarri zenbait ere aretoan ziren: José M. Rodríguez Ochoa, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia (hau mahaira pasa da, Juan Cruz Alli jaunak alde egin ondoan); M. Amigorena, erakunde bereko eragilea; Roman Berriozabal, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritzako aholkularia, eta bestelako jende anitz, tartean Pedro de Yrizar jaunaren laguntzaileak, Koldo Artola, bereziki.

Hasierako hitzak egin ditu Juan Cruz Alli jaunak, Nafarroako euskararen historiaz. Ondoren, beste bilkura bat zuela-ta, joan da.

Ondoren, J. Haritschelhar euskaltzainburuak P. de Yrizarren bitzitzera eta merezimenduak goraipatu ditu, haren lan handiaz gainera.

Gero, P. de Yrizarrek lau liburuki hauen sorreraz hitz egin du, izan dituen laguntzaileak aipatuaz eta Nafarroako Gobernuari eskerrak emanez.

Bukaeran, J. Haritschelharrek Euskaltzaindiaren domina eman dio P. de Yrizarri.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Jean Haritschelhar
euskaltzainburua*

*Endrike Knörr
idazkaria*

Bilbo, 1993ko apirilaren 30a

Haritschelhar, J., euskaltzainburua; Lekuona, J. M., euskaltzainburuordea; Knörr, E., idazkaria.; Arana, J. A., diruzaina.; Altuna, P.; Azkarate, M.; Charriton, P.; Diharce, X.; Irigoyen, A.; Krutwig, F.; Larre, E.; Oyharçabal, B.; Peillen, Tx.; Salaburu, P.; Satrustegi, J. M.; Villasante, L.; Lizundia, J. L., idazkiordea.; Zearreta, J.J., ekonomi-eragilea.

Akademi-gaietan: Aduriz, J.A.; Kintana, X.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1993ko apirilaren 30ean, bildu da Euskaltzaindia, goizeko hamarretan hasita. Aldamenean aipatzen diren lagunak etorri dira. J.-L. Davantek, P. Ondarrak eta I. Sarasolak ezin etorria adierazi dute.

Agiria

Martxoko agira onartu da, zenbait zuzenketa egin ondoan. A. Irigoyenek aurreko agirian haren esanak jaso diren, Euskaltzaindian inork kargu bat baino gehiago izateaz eta beste, jakin nahi du. Testu onartua emango zaio.

Barne gaiak

Euskaltzainburuak L. Villasante agurtu du, bere ebakuntzatik guztiz sendatua. R.M. Arza eta R. Badiola Euskaltzaindiko langileen osasunaren berri ere eman du.

Ohorezko kideen izendapena erabili da lehenik. Maiatzaren 20rako aurkeztu behar dira proposamenak, Barne-Erregelek adierazi bezala, hots, idatziz eta gai bakoitzen merezimenduen azalpenarekin. Irizpideez hitz egin da.

Arautegiaren eta Barne-Erregelen berriztatzea izan da gero mintzagaia. Euskaltzainburuak Zuzendaritzak prestatu testu-zirriborroa aurkeztu du. Arautegian, batez ere, ahalik zuzenketa gutien egin dira. Zornotzan egingo diren VIII. Barne-Jardunaldieta ikertuko dira testuak.

UZEIKo zuzendaria den Alberto Agirreazaldegi jaunaren gutuna irakurri da. *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren corpus informatizatua jaso dute Eusko Jaurlaritzako Informatika Erakundetik, Euskara Batuko batzordeak eskatzen duen oro eskaini ahal izateko. Hitzarmen bat jotzen du beharrezko UZEIK, ondare horren erabilera zehazteko. Euskaltzaindiak erantzungo du bat datorrela esanez, baina lehenik EJIErekin nahi duela hitzarmena sinatu, ondarearen jabea gure Erakundea baita.

François Bayrou Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorraren buruaren gutuna irakurri da gero. Euskaltzaindiaren eskariari erantzunez, 100.000 libera ematea onartu du aurtengo kontuetan erakunde horrek. Gutuna eginen zaio Bayrou jaunari, Kontseilutik lehendabizikoz datorren dirulaguntzagatik esker ona agertuz.

Cámaras de Comptos deituraren *comptos* hitza euskal ordainean gorde ahal den galduetu du Miguel Esparza erakunde horren idazkaria gutunez. Arazoaz eztabaidatu ondoren eta izen propioa delarik, *Comptos Ganbara* deitura ontzat ematea erabaki da gehiengoz.

Batzorde bilkuren kostuaz hitz egin du ondoren J.A. Arana diruzainak. Ahal dela, egun erdiko bilkurak egitea proposatzen du Euskaltzaindiak. Otorduen xahupenetan ere kontuzago jokatzea ere erabaki da.

Batzordeen zerrendetan bi aldaketa egin dira: I. Sarasola Hiztegi Batuko arduraduna izango da, batetik, eta, bestetik, Jon Casenave Literatura batzordean sartuko da aholkulari.

E.H.U.ko Kazetaritza Saileko gutuna irakurri da hurren. “Prentsa izkiriaturako eta ikusentzuteko komunikabideetako euskara” izeneko jardunaldiak direla-ta gondidapena iritsi da Euskaltzaindira. J.M. Lekuona joango da Akademiaren izenean.

Senperen, maiatzaren 9an, egingo den Herri Urrats ekitaldirako gonbidapena jaso da halaber. P. Charriton izango da Euskaltzaindiaren ordezkaria.

J.A. Aranak, berak eta J.J. Zearretak Antonio Tovarren alargunari egin ikustaldiaaren berri eman du ondoren. Euskaltzaindiarentzako liburu eta aldzikariak laster ekarriko dira Azkue Bibliotekara. Egun beretan Hezkuntza eta Kultur Ministeritzetan izandako harreman-elkarriketak azaldu ditu orobat Diruzainak.

R.M. Azkueren laukiaz, batzar-aretoan berriki ezarriaz, azalpen laburra egin du J.A. Aranak. Víctor Sarriugarte pintatzaileak, L. Villasante euskaltzainburu ohiaarena egin zuen berak, burutu du dohainik Euskaltzaindiarentzat. Azkue Lekeitioko *Abadeen moila* deritzan tokian ageri da bertan.

Aurreko batzarrean erabaki gisa, euskaltzain dominak banatu ditu gero J. Haritschelharrek. E. Erkiaga eta A.M. Labaieni, ezinduak baitaude, egingo zaien ikustaldian emango zaizkie.

Akademi gaiak

J.A. Aduriz eta X. Kintana sartu dira batzar-aretoan. *Nor/nortzuk* eta sail berekoen formaz txostenia, zintzilik zegoena, erabili da aurreen. A. Irigoyenek esan du bizkaieraz *nortzuri*, *nortzuren* eta abar bakarrik esaten dela, eta ez duela

bozketen parte hartuko. M. Azkaratek aurkako exenpluak aipatu ditu hizkuntza idatzitik, bukaeran *k-dun*, orobat P. Salaburuk. Testua onartu da, zenbait zuzenketarekin.

Euskal Hiztegi Batuaz jardun dute gero batzartuek luzaz, Iruñean hasitakoari jarraipena emanez. M. Azkarateren azalpenaren ondoan, hitz edo forma batek lehentasuna jaso dezan zer irizpide erabiliko diren (antzinatasuna, literatura tradizioan duen pisua, hedadura eta beste) izan da batez ere gaia. Bestalde, zuzenketak eta oharrrak egoitzara eta Donostiako ordezkaritzara bidaltzea erabaki da.

Euskaltzaindiaren 75. urteurrena

J.L. Lizundia idazkariordeak aurkeztu du irail-urrietako egitaraua, izendatu zen batzordeak bi egun lehenago prestatua. Irailaren 30ean, arratsaldean, egingo da Arantzazun hileko batzarrea. Biharamunean, toki berean, euskaltzainek eta dagozkien batzordekideek urteurren osoan zer egingo den finkatuko dute. Ondoren, arratseko 6etan, Oñatin, batzarre ageriko bat egingo da.

Eusko Ikaskuntzarekin batera batzarre ageriko hori edo besteren bat egiteko asmoa agertu du Euskaltzainburuak.

P. Charritonek urteurren horretan ebakera aintzat hartza eskatu du, bai eta Arantzazun orain 25 urte jorratu zenaz gain lehenagotik hasi eta geroago garatutako gaiei ere.

Hiruetan bukatu da batzarrea.

*Jean Haritschelhar
euskltzainburua*

*Endrike Knörr
idazkaria*

EUSKALTZAINDIAREN BATZORDE-ORGANIGRAMA (*)

I. HIZTEGIGINTZA

Buru: Ibon Sarasola
Idazkari: Mikel Zalbide

I.1. OEH azpibatzordea

Arduradun: Ibon Sarasola
Idazkari: Iñaki Segurola
Kideak: Arantza Egia
Gabriel Fraile
Elixabet Kruzeta
Blanca Urgell
Eduardo Valencia

I.2. LEF azpibatzordea

Arduradun: Miren Azkarate
Idazkari: Jose Antonio Aduriz
Kideak: Patxi Altuna
Xipri Arbelbide
Martxel Ensunza
Patxi Goenaga
Jose M.^a Larrarte
Luis M.^a Mujika
Beñat Oihartzabal
Lourdes Otaegi
Elixabet Perez Gaztelu
Andoni Sagarna
Patxi Uribarren
Tomas Uribeetxebarria
Patri Urkizu
Mikel Zalbide

(*) 1993.eko martxoan onartua.

I.3. Hiztegi Batuko azpibatzordea

Arduradun: Ibon Sarasola
 Idazkari: Jose Antonio Aduriz
 Kideak: Miren Azkarate
 Luis Baraiazaarra
 Pierre Charriton
 Andoni Sagarna
 Iñaki Segurola
 Mikel Zalbide

II. GRAMATIKA

Buru: Patxi Altuna
 Idazkari: Patxi Goenaga
 Idazkarioorde: M.^a Pilar Lasarte
 Kideak: Miren Azkarate
 Pierre Charriton
 Andolin Eguzkitza
 Alan King
 Jose M.^a Larrarte
 Jesus M.^a Makazaga
 Jose Antonio Mujika
 Beñat Oihartzabal
 Francisco Ondarra
 Karmele Rotaetxe
 Pello Salaburu

III. DIALEKTOLOGIA

Buru: Txomin Peillen

III.1. Atlasgintza azpibatzordea

Arduradun: Jean Haritschelhar
 Idazkari teknikoa: Gotzon Aurrekoetxea
 Idazkari teknikoa: Xarles Videgain
 Kideak: Isaak Atutxa
 Ana M.^a Etxaide
 Jose M.^a Etxebarria
 Izaskun Etxebeste
 Koro Segurola

III.2. Euskalkien Ikerketa azpibatzordea

Arduraduun: Txomin Peillen
 Idazkari: Iñaki Gaminde

Kideak: Gotzon Aurrekoetxea
 Ana M.^a Etxaide
 Jose M.^a Etxebarria
 Alfonso Irigoyen
 Rosa Miren Pagola
 Karmele Rotaetxe
 Xarles Videgain

IV. ONOMASTIKA

Ohizko batzordea

Buru: Endrike Knörr
 Idazkari: Mikel Gorrotxategi
 Kideak: Ricardo Cierbide
 Jose Antonio González Salazar
 Andrés Iñigo
 Alfonso Irigoyen
 Jose M.^a Jimeno Jurío
 Jose Luis Lizundia
 Jean Baptiste Orpustan
 Patxi Salaberri
 Juan San Martín
 Jose M.^a Satrustegi

Exonomastika lantaldea

Beñat Oihartzabal
 Jose M.^a Satrustegi
 Dionisio Amundarain
 Martxel Etxehandi
 Antton Gurrutxaga
 Iñaki Irazabalbeitia
 Xabier Kintana
 Jose Luis Lizundia
 Xabier Mendiguren

V. LITERATURA

Buru: Juan M.^a Lekuona

V.1. Herri-Literatura azpibatzordea

Arduradun: Antonio Zavala
 Idazkari: Pello Esnal
 Kideak: Jose M.^a Aranalde
 Antton Aranburu

Juan Manuel Etxebarria
 Jesus M.^a Etxezarreta
 Alfonso Irigoyen
 Jose M.^a Iriondo
 Emile Larre
 Abel Muniategi

V.2. Literatura-Ikerketa azpibatzordea

Arduradun: Juan M.^a Lekuona
 Idazkari: Jon Kortazar
 Kideak: Xabier Altzibar
 Aurelia Arkotxa
 Gorka Aulestia
 Jean Haritschelhar
 Juan Cruz Igerabide
 Luis M.^a Mujika
 Txomin Peillen
 Ana Toledo
 Patri Urkizu

 Jon Casenave (aholkulari)
 Jon Juaristi (ah.)
 Jesus M.^a Lasagabaster (ah.)
 Jean Baptiste Orpustan (ah.)
 Juan Otaegi (ah.)
 Bittor Uraga (ah.)

JAGON eta Egiturazko batzordeak

VI. JAGON SAILA

Buru: Endrike Knörr
 Idazkari: Andres Urrutia
 Kideak: Ramuntxo Camblong
 Pierre Charriton
 Andres Iñigo
 Xabier Kintana
 Federico Krutwig
 Juan M.^a Lekuona
 Jose Luis Lizundia
 Manuel M. Ruiz Urrestarazu
 Jose M.^a Satrustegi
 Jose M.^a Velez de Mendizabal
 Mikel Zalbide

Jose Antonio Arana Martija (aholkulari)
Juan Antonio Letamendia (ah.)
Patxi Zabaleta (ah.)

VII. AZKUE BIBLIOTEKA

Buru: Jose Antonio Arana Martija
Idazkari: Juan Jose Zearreta
Kideak: Federico Barrenengoa
Jon Bilbao
Juan Luis Goikoetxea
Jose M.^a Larrarte

VIII. ARGITALPENAK

Buru: Jean Haritschelhar
Eragile/idazkari: Ricardo Badiola Uriarte
Kideak: Juan M.^a Lekuona
Endrike Knörr
Jose Antonio Arana Martija
Patxi Altuna
Txomin Peillen
Ibon Sarasola

IX. JURIDIKOA

Buru: Jean Haritschelhar
Idazkari: Jose Luis Lizundia
Kideak: Juan M.^a Lekuona
Endrike Knörr
Jose Antonio Arana Martija
Abel Muniategi
Andres Urrutia
Patxi Zabaleta

Batzorde suntsikorrak**EUSKARA BATUKOA**

Buru: Patxi Altuna
Idazkari: Pello Salaburu
Kideak: Miren Azkarate
Beñat Oihartzabal
Ibon Sarasola
Luis Villasante

75. URTEURRENEKOA**Akademi azpibatzordea**

Jean Haritschelhar
Juan M.^a Lekuona
Endrike Knörr
Jose Antonio Arana Martija
Patxi Altuna
Pello Salaburu
Miren Azkarate
Beñat Oihartzabal
Ibon Sarasola
Luis Villasante

Antolakizun azpibatzordea

Endrike Knörr
Jose Luis Lizundia
Juan Jose Zearreta
Ricardo Badiola Uriarte

BATZAR-TXOSTENAK

GOÑERRIN AURKITUTAKO TESTUAK (VIII)

Donostia, 1993-02-26

Frantzisko Ondarra

Honako zatiok osatzen dute lana:

1. Sarrera (gisakoa).
2. Oharrak sarrerari.
3. Oharrak testuei.
4. Testuak.
5. Hiztegia (ez orokorra).
6. Adizkitegia (orokorra).
7. Eskuidatzi-fotokopiak.

Argitara emanak ditugu Goñerrin aurkitutako zenbait testu, eta orain beste lau argitaratzen ditugu (1). Denak, beste zenbaitekin, bilduma bat osatzen dute, bertan oraingoek 2. saila egiten dutela (2).

Honen antzoko beste lanetan bezala, gure asmoa da, testuak argitara eman ahala, beroien lehen hurbilpen bat egitea, horretarako gure ustez jakingarri gerta litzkeen fenomenoak plazaratzen ditugula, ukituz grafia, fonetika, morfologia, sintaxia, etab., eta kontuan hartzen dugula batez ere euskalki eta azpieuskalkkiekin erlazionaturik egon daitekeena, eta euskara historia eta geografian hobeto ezagutzen eraman gaitzakeena. Azken helburua da gure hizkuntza finkatzeko egokiak izan daitezkeen datuak biltzea, oinarri jator eta fidagarriak ezaguturik.

Ez dugu ahaztu behar, bestalde, ez dela erraza euskalki testu garbiak eta kutsatu gabeak aurkitzea, idazleek handik eta hemendik bildutako hizkuntza elementuz baliaturik moldatzen zituztelarik noski beren lanak eta ez leku jakin bakar bateko elementuz.

(1) Ondarra, Frantzisko 1989. "Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)". *FLV*, 53 (1989), 97-144; idem 1990. "Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. m.)". *FLV*, 55 (1990), 73-121; idem 1991. "Goñerrin aurkitutako beste sei testu". *FLV*, 57 (1991), 131-168; idem 1992. "Goñerrin aurkitutako testuak (IV)". *FLV*, 60 (1992), 297-333. Beste hiru lan *FLV*-n argitaratzeko emanak daude.

(2) Ondarra, Frantzisko 1981a. "Goñibarko euskara XVIII. mendeko sermoietan", *Euskera* XXVI (1981-1), 349-365. Ik. 352 h. or.; idem 1981b. "Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena", *Euskera* XXVI (1981-2), 633-649. Ik. 644. or.

TESTUAK

Lau prediku edo *lezio* dira, bakoitza paper multzo batean eskaintzen zaigula. Lehenengo testua hamasei orrialdek osatzen dute, besteek zortzina dituztela. Denak hari zuriz daude josiak, lehenengoan hari lodiagoa erabiltzen dela bestetan baino; eta, bestalde, esan daiteke hauetan hari bera erabili dutela. Neurriak hauek dira: 1. testuan c. 215 mm. luze eta c. 155 zabal da papera; 2. testuan c. 217 eta c. 155; 3. eta 4. testuetan c. 217 eta 155. Orrialdeak zenbatu gabe daude. Gaia bi zutabetan dago partitura, lehenengo lezioan marra bat hedatzten dela orrialde erdian beheraino, bestetan berriz marra bikoitza bat.

Ur marka hauek ikusi ahal izan ditugu:

1. I FARGUES/NAUARRE 1. eta 2. testuetan, eta I BRUN/BEARN 3.ean, horrelakorik ez dela ageri 4.ean.
2. Gainera, 1. testuan hiru zirkulu bata bestearen gainean, goikoaren barruan gurutze bat eta beste bat gainean, zirkuluaren ezker eta eskuin esku antzeko irudiak eta horien pean ezkerrean FIN eta eskuinean 1762.
3. Hiru zirkulu 2.ean ere, baina horien barruan ez da ezer ageri eta goikoaren gainean dagoena ezin izan dugu asmatu zer ote den. Urtea ere ez dugu irakurri ahal izan, hau baizik 17-8, falta dena gure ustez 5 izan litekeela, beraz 1758 eta ez 1768 edo, beste testuetako ur marka seguruak 1760 eta 1762 direlarik.
4. Hiru zirkulu 3.ean ere, barruan ezer ez dela ageri, goikoaren gainean gurutze bat, etab. Urtea 1760 da.
5. Hiru zirkulu 4.ean, goikoaren barruan gurutzea eta gainean koroa (?) bat agian, etab. Urteza ez dugu ongi ikusten, baina agian 1760 da.

Garizumarako lezioak dira, honela: garizumako 4, 3, 4 eta 5. igandearakoak. Guk antolatuak dira orden horretan, eta orain pentsatzen dugu ea ez ote legokeen hobeto azken lekuaren lehenbizikoan ipini duguna, besteak beste ur markaren data hartzen dugula kontuan.

NORK, NOIZ eta NON

Egilea nor den ezin dugu esan, baina uste dugunez parrokuren bat da, herriko gauzak ongi ezagutzen baititu. Ebanjelioak omen dio “izan gaitecela escusatuac janean, eta edanean, contentacen garala vicie conservaceco bear duguna arcen dugularic”, baina aholku horren eta beste gainerakoentzako kontra egiten omen du kristioak, eta jarraitzen du: “testigo (sic -o) dira, fiesta, eztai, Bataio, difuntuen funcio, eta *errietaco tabernac*, gucien gañecoa delaric *gure erricoa*, ceñetan escandalo andierequi gauac, eta egunac pasacen dituten ordiquerien ez gazteric, eta zarric vereisten dela; eta ain guti cargu, eta obligacio dutenac; eta aguien lendebicicoac (sic -de-) diralaric exemplo gaistoa ematen? Erremediaceco escandaloac modu bizarroa baita?” 1,5 sat.

Noiz idatziak dira? Proposatzen dugu, ur markek baliaturik eta horiek kontuan harturik, 1760-1762 urteen inguruan izan zirela konposatuak, grafian ageri

diren zenbait gertakari ez daudelarik proposamen horren aurka: hasierako *u*-bokalaren ordez *v*- kontsonantea erabiltzea, noizean behin hitz barruko *-v*- kontsonantearen partez *-u*- bokala idaztea, *c* ipini beharrean *q* ipintzea noizbehinka. Erants dezagun 2. testua 1830. urtean izan zela berriz predikatua.

Non izan ziren predikatuak? Nafarroako herriren batean, bertako euskara ageri baita. Horrela, deklinabidean *-ki* ikusten da beti, *-s* da instrumentalak, zenbait hitzetan bokal elisioa egiten da: *abras, atra, drexo, libru, obren*, etab. Hala ere, iraganaldian ez da galtzen bukaerako *-n* morfema, eta ez dira falta mendebaleko euskalkietako fenomeno ezagun batzuk. Horien artean aipatuko dugu ergatibo pluraleko *-ak* atzizkia, eta adizkietan gehienetan aldatu gabe mantentzen den bukaerako *-a*, morfemaren bat eransten zaionean adizkiari: *garan, zaran; zalantza* ageri da beste hauetan: *daukan-dauken, diran-diren, ziran-ziren*, baina *ninzan-ninzala* beti; eta hauen arabera: *nabilla-nabillala* eta *zebillala*. Askoz maizago erabiltzen da *esan erran* baino.

Bizkaiera zaharrean *ez* partikula aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean agertzen omen da usu, eta *ez*, laguntzailearekin batera, nagusiarenurrean (3). Egitura hori maiz ageri da gure testuetan, *Sintaxia-n* erakusten dugun bezala, eta mendebaleko euskararekin lotura berri bat erakusten du.

Esan dugunez, Goñibarren aurkitutako bilduman 2. saila osatzen dute testuok —ez ahaztu sailkapen hori guk egina dela—, eta beren inguruko bi sailetakoa baino euskara garbiagoa eta aberatsagoa eskaientzen digute. Sintaxia ere 1. sailekoa (4) baino hobea dute, ez ordea hurrengo saila —oraindik argitaratu gabea— osatzen duten 16 testuetakoa bezain ona.

Larramendiren aztarnarik ez dugu aurkitu.

HIZKUNTZAREN INGURUAN

Grafia

Bokaletan, hitz hasieran *v*- ageri da *u*- bokalaren ordez, salbuespen bakanen bat badagoela, eta noizean behin *-u*- aurkitu dugu hitz barruan *-v*- kontsonantearen partez: “*conuersacio*” 1, 2at., 3, “*Dauiden*” 1, 3, 1, etab.

Kontsonanteetan, hasierako *h*- kontsonantea erruz agertzen da 1. testuan, ia bat ere ez hurrengo bietan, eta franko samar 4.ean (5), hitz barruan ere *-h*-ren

(3) Lakarra, Joseba Andoni 1986. “Bizkaiera Zaharra Euskalkien Artean”. *ASJU* XX-3 (1986), 639-681. Ik. 655. or.

(4) *FLV*, 53 (1989), 97-144.

(5) Hona *h*- duten hitzak: *hara* 4, 3at., 2, *heriac* ‘gaixoak’ 4, 3at., 2, *herooc* 4, 4, 1, *hibilli* 1, 3, 1, *hicasi* 1, 3, 1, *hicusí* 1, 1, 1, *hill* 1, 4, 2, *hirabaztea* 1, 4at., *hirazarriric* 4, 1at., 2, *hire* 4, 3at., 1, *hitas* 4, 3at., 1, *hiriquicea* 1, 4at., *hiruretatic* 1, 5, 2, *hisill* 4, 2, 3, *hispillua* 1, 4at., *hisutuco* 4, 3, 2, *hichasoaren* 1, 1at., 2, *hiza* 1, 6, 1, *hizalico* 2, 3at., *hizcin* 4, 1at., 2, *hizan* 1, 1at., 2, *hizandu* 1, 1, 2; *hogui* 1, 2, *hondasuna* 3, 1at., 1, *horduan* 3, 3at., 1, *hora* (egun *hora*) 4, 2at., 2, *horo* (gau *horo*) 4, 3, 2, *horrazaren* 1, 5at., *huduqui* 1, 4at., *hucacea* 3, 2at., 2, *hume* 3, 3at., 1, *hura* ‘illa’ 1, 2, *hurbildu* 1, 2, *hurre* 1, 1at., 2, *hurten* ‘urte’ 1, 3, 1, *hus* ‘huts’ 1, 4, 2, *huzci* 1, 2at., 3.

bat ez dela falta: *ihartuac*, *ihoh*, *auhec*. Kontsonante bikoitzen bat ere aurkitu dugu: *eccar* 1, 2at., 2, *essaten* 1, 1, 2, *gucittic* 2, 4at., 1. Hiru bat aldiz *q* ipintzen da *c* jarri beharrean: *errenqura* 3, 2at., 2, baina *errencurarequi* 3, 3, 2, *joqu* 4, 1, 3 eta *quadracen* 2, 3, 2. Ezagutzen du *ts* digrama, baina oso gutxitan erabiltzen du: *lotxa* 2, 4at., 2, baina *losa* 2, 2, ez duelarik ezagutzen *tz* digrama eta honen ordez *zc* eta *zz* asmatzen dituela: *huzci* 1, 2at., 3, *hizces* 1, 2, *izzulcen* 2, 2.

Esan daiteke ez duela laburdurarik erabiltzen, bakarrik ikusi dugula silaba bukaerako *-n* kontsonantearen ordez ezkerreko bokalaren gainean marratxo bat ipinia.

Hitzak askotan biltzen ditu, batez ere 1. *izena* eta *bat*; 2. *aditz nagusia* eta *laguntzailea*. Beste askotan berriz banatzen eta hausten ditu, inolako legerik jarraitu gabe eta silabak kontuan hartu gabe hautsi ere, hori gertatzen dela bai lerro barruan bai lerro bukaera/hasieran. Adibidez, hauek ikusten ditugu 1. testuaren 1. orrialdean: *dezat en, mo duac, Evang elioac, g auceng a tic;* eta lerro bukaera/hasieran hau aurkitzen dugu testu horretako 4at. orrialdean: *eg-* lerro bukaeran eta *uitea* lerro hasieran, lotura marratxoa eta guzti, ez duela ipintzen lotura marra hori salbuespen gisa ezik.

Fonetika

Bokaletan, fenomeno gutxi gertatzen da. Esan dezagun *i-a* eta *u-a* bokal sekuentziak *i-e* eta *u-e* bilaka daitezkeela, ez ordea sistematikoki: *pisque* 2, 3, 3, *vecaturec* 2, 3, 3, etab. Ez dugu ahaztu nahi ere goian aipatu bokal elisioa, zenbait hitz jakinetan herskari eta dardarkari artean zertzen dena: *abras, atra, artraño, dembra* behin eta *dembora, dretxo, intres* behin eta *interes, libru, obren*.

Kontsonanteetan, hitz barruko *-zt-* multzoa hola mantentzen da, salbu *bistu, gaisto* eta *gaistakeria*, eta horregatik *gazte, dituzte*, etab. ikusten ditugu. Hori bera gertatzen da multzo hori fonetika sintaktikoaren bitartez sortzen denean: *ezta, eztakiela*, etab. Ikusten dugu baita ere *-sk-* multzoa, deklinabideko *-s* morfemaren bidez sortua: *siñesko, siñeski*, etab.

Morfologia

Deklinabidea

Ergatibo plurala *-ak* da: “*dicipuluac*” 1, 2.

Datibo plurala *-ei* eta gutxiago *-ai*: “*orlacoei*” 2, 2, “*orducoat*” 1, 5, 2.

Soziatiboa *-ki* da beti: “*andiarequi*” 1, 1at., 2.

Instrumentala ia beti *-s*: “*joateas*” 1, 1at., 2, baina “*hicez*” 1, 4at., eta pluralean *-es* eta *-as*: “*odioes*” 4, 3, 2 eta “*gauzas*” 3, 4at., 1.

Ablatiboa bizidunetan *-ganik*: “*anaia gazteaganic*” 1, 8.

Erakusleak hauek dira: *au, onek, onetan, onena, auek, auhek, abek; ori, orrek, ortan, orren, oiek; ura, ark, artan, aren, aiek.* Sar ditzagun hemen *bere* (baten edo askoren) eta *beren*.

Izenordain pertsonalak: *ni, nik, nere* (ez *ene*), *nerezat*; *zu, zuk, zure, zutas; gu, guk, gure*; (*zuek*), *zuen*.

Aditzaren arloan.

Iraganaldia behin bakarrik aurkitu dugu bukaerako *-n* gabe, eta beharbada okerrez: *zue* 1, 3at.

Geroaldia tajutzeko *-en* erabiltzen da *-n* bukaeradun aditzetan: “*esanen*” 1, 4at.

Agintera, ahalezkoa eta subjuntiboan partizipioko *-tu* atzizkia galtzen da gehienetan, baina oso gutxitan *-i* bukaera: “*beguirabezo*” 3, 3at., 1, “*guertadaite-quezu*” 4, lat., 2, “*ardezagun*” 1, 2at., 3, “*eccarcechetela*” 1, 2at., 2.

Egin aditzaren bukaerako *-n* kontsonantea galdu egin da bi aldiz laguntzailearekin biltzean: “*egui/zuten*” 1, 8 eta “*egui/tion*” 4, 1at., 2.

Goian esan dugunez, mendebaleko euskalkietako gertakarien antzekoak ez dira falta, han aipatzen genuela zenbait adizkiren bukaeran nagusitzen den *a* fonema, Nafarroako leku gehienetan *e* espero delarik: *garan, zaran*, etab (6).

Sintaxia

Zenbait aldiz genitiboa atzetik dago kokatua, baina bildu ditugun adibideetan *-ko* morfemaz tajututakoa ageri da batez ere: “*señale ... pobrezarena*” 1, 4, 2, “*vide ceruracoa*” 1, 5, 2 eta “*ceruraco video*” 1, 5, 2.

Objetua genitiboa behin ikusi dugu: “*aren joateas*” 1, 1at., 2.

Ergatiboaren morfema behar ez denean aurkitzen da bost bat aldiz: “*baldin tentatua denac abetas maiz valiecembada*” 4, 1at., 2; “*nai duenac izan, egui bedi*” 4, 4at., 2; etab.

Erlatibozko perpausetan badaki *bait-* arrizkiaz baliatzen: “*Hicusazue cer legue modua den graciascoa, baita gur orai dugun au*” 2, 4at., 2. *Non* adberbioarekin ere ageri da *bait-:* “*Plaza andi artan, non icusico baita vecatore(a)*” 2, 3, 3.

Bait- perpaus kontsekutiboetan ere ikusten dugu: “*ain fuertequi, eze penace vرا ezurretarao sarturic iharcen/baititio*” 2, 2at., 1.

Kausazkoetan ez da falta *bait-*, baina zaila da esaten kausazko ala erlatibozko perpausaren aurrean gauden. Benetan kausazkoa arras gutxitan ageri dela esango genuke: “*gaztea guelditu cen vere eche, eta ondasunequi, ezpaita mundu onetan verce ceruric nola vere gurasuequi viciea*” 1, 8. *Zerengatik* partikularekin batean

(6) Ik. goian NORK, NOIZ eta NON, bertako 3. paragrafoa.

ere ipintzen da: “eguin bedi munduaren esaia; *cerengatic ezpaita* posible bi nausi difrentatua ... ceruizacea” 4, 4at., 2.

Pasiboa -(a)c eta -ganik bitartez aurkitu dugu moldatua: “*ardoac arturic doienac*” 4, 3at., 1; “*bedicaturic Christoc*” 1, 2at., 2; “*izanen da castigatua ... Justiciaganic*” 2, 2at., 3.

Ohi partikula askotan erabiltzen da: “*Gendeac hibilcen oi dira*” 1, 1, 1; “*hisillceas ezta oi penaric izaten*” 4, 3, 1; “*Aita S. Guergorioc oi duen bezala conseju, eta abisoa ematendigu*” 4, 4, 2.

Ikus egitura hau: “*Bere buruaren jaun, eta jabe diranac*” 1, 6at., 4.

Hau guzia egitura —behin *guzi hau*— ematen da: *au gucia* 1, 1, 1; *aieci guciak* 3, 1, 2; *orrequi guciarequi* 2, 2at., 3; “*gauza abes gucias*” 3, 2at., 2; baina “*ondasun guci auhec*” 3, 2, 2.

Bizkaiera zaharrean *ez* partikula aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean agertzen omen (7) da usu, eta ez, laguntzailearekin batera, nagusiaren aurrean, eta gorago esan dugun bezala maiz ageri da hori lezio hauetan. Zehatzago izateko, esagun zappi aldiz aurkitu dugula 1. testuan eta hamar aldiz 2.ean egitura hori, bestea bederatzi aldiz ikusi dugula 1.an eta 12 aldiz 2.ean. Adibideak: “*Orlacoric eracusi ezuen Christoc*” 1, 5at., “*virtuteric vecatuac barcaceco ezutene*” 2, 4at., 2; *Asarracen eztirenac* 1, 6at.; “*Deus eguiñen ez zuten*” 1, 7; *galdu ez cedin* 1, 7.

Hiztegia

Hasteko, errepika dezagun ez dugula Larramendiren aztarnarik ikusi. Hemen aipatzen ditugun hitzak oso ezagun diren berben aldaera eta sinonimoak dira gehien bat, edo eta gure testuetan ere erabiliak direla adierazi nahi dugu. Hona hemen: *abre* ‘zaldi, mando, ganbelu, asto’, *aniz* eta *gutxiago asko*, *arima*, *arien arien* eta *aries aries*, *arloteria*, *arrazu* eta behin *arruzu*, *aizin* eta normalki *aurre*, *atze*, *baita*, *bekain*, *bekatore*, *biru*, *deus*, *difrentatu* ‘desberdin’, *diosala egin*, *edeki* ‘kendu’, *erran* baino gehiago *esan*, *gaizkieria*, *geago* eta *geiago*, *giti* behin eta *guti*, *gizi* eta gehienetan *guzi*, *iduki* eta behin *huduki*, *infarnu*, *kristande*, *largatu* ‘utzi’, *makurgabe* ‘zuzen’, *napur* ‘lapur’, *neke iduri* eta *neke izan*, *sandu*, *txiki*.

Adizkitegia

Morfologian esan dugun bezala, mendebaleko *a* nagusiturik ageri da zenbait adizkitan: *garan*, *zaran*, *ninzan*, etab.

Iraganaldia behin, okerrez edo, bukaerako *-n* gabe eman zaigu: *zue*.

Bukaerako *-u* bokalaren ordez, bi aldiz *-o* ematen zaigu: *tugo* eta *zaitugo*.

(7) Ik. 3. oharra.

Ez ditugu jakin arazi gabe utzi nahi *ziñuen* ‘zenuen’ eta *ziñuzen* ‘zenituen’ adizkiak, eta formaz horien antzekoa den *giñuzen* ‘gintuen’ (8).

T edo *z* gabe egiten dira zenbait aditz-joko: *dakie* ‘dakite’, *ditue* ‘dituzte’ –forma hau *z* eta *t* gabe–, *ditute* ‘dituzte’, *due* ‘dute’, *zituten* ‘zituzten’.

Agintera eta subjuntiboan adizki hasiera aldeko *itz a* etxe bilakatzen da beti (9): *betxe* ‘bitza’, *detxeke*, *detxen*, *txezu* ‘itzazu’, *zetxeten*.

Subjuntibo lehenaldiko formok aurkitu ditugu indikatiboko iraganaldia adierazteko: *zezaion* ‘zitzaión-zitzaien’, *zezaizkidan* ‘zitzaizkidan’ eta *zezaizkitioten* ‘zitzaizkieten’.

GURE LANA

Orrialdeak guk zenbatuak dira, eskuidatzian zenbakirik gabe daudelarik. Eman-ten dugun *Hiztegia* zenbait urte direla prestatu genuen, eta garai hartan 1, 1at., 2, 2at., etab. ipini genuen, eta ekartzen ditugun adibideak eta beste horren arabera aipatzen ditugu. Egin genuen besterik ere orduan orain egiten ez dugun moduan, hala nola sarrera hitza askotan parentesi barruan jarri, hitzen esanahia gaztelaniaz eman, orain determinatzaile bataiatzen ditugunak adjetibo bezala sartu, adibideetako hitz guziak, eta ez sarrera hitza bakarrik, azpimarratu eta beste zertxoren bat.

Latinezko pasarteetan dauden okerrak zuzendu egin ditugu, hori egin dugula jakin arazi gabe, baina orrialde peko oharretako batean zuzenketa guzien berri ematen dugula.

Hiztegia atalean ez ditugu sartu hitz guziak, bakarrik euskal jatorrizkoak eta bestelakoetatik hizkuntzak, gure ustez, beretuak dituenak formaren edo esanguraren aldetik. *Adizkietigan* joko guziak ematen ditugu, bi zerrendatan lerrotzen ditugula: adizki laguntzaileak eta trinkoak. Adizkiak amatean, lehenbizi forma garbiak ipintzen ditugu eta gero atzizikiren bat daukatenak, nolako fenomeno fonetikoak sortzen diren jakinarazteko: *da-den-dela*, *ditut-dituden-dituden*, etab. Agintera, ahalezko eta subjuntibokoetan saiatzen gara aditz nagusia ipintzen, bukaerako *-tu* edo *-i* galtzen diren ala ez erakusteko.

Zalantzak izan ditugu hitzak bildurik ala banaturik idatzi dituen edo idatzi nahi izan dituen erabakitzean. Arlo honetan eta dudak lerro bukaeran eta hurrengo lerroaren hasieran sortzen zirenean, lotu gabe utzi ohi ditugu berbak (10). Arazoa larriago bihurtzen da, *Grafi*an esan dugun bezala, ez delako lerro bukaeran marratxorik ipintzen hitz partitzean, salbuespen gisa ezpada.

Laburdurak: a. aditza, ad. adberbioa, adj. adjetiboa, at. atzetik, au. aurritzka, i. izena, ik. ikus, in. interjektzioa, io. izenordaina, j. juntagailua, p. posposizioa.

(8) Ik. 1. oharrean aipatu dugun Goñerrin aurkitutako testuen lehenbizio lana, eta bertako *Adizkiak* izeneko atalean *giñuzen* ‘gintuen’.

(9) Ik. 8. oharrean aipatu dugun lana eta bertan *Adizkiak* atala.

(10) Salbuespen bat badago hemen, adibidez, *paregabea* 1, 1at., 2 eta *paregabeco* 1, 7at., *pare* lerro bukaeran eta gabea/gabeco lerro hasieran daudela lotura marratxorik gabe.

1. TESTUA

Dominica Quarta Quadragesimae (1)

Abiit Jesus trans mare Galilaeae; et sequetabur eum multitudo magna. Ioan. (2) 6.

Gendeac hibilcen oi dira lecubazuetaic bercetara lecuetaco berriac jaquiteagatic, esatendutelaric lecubatean dagonac gauza aniz (3) eztaquiel;a; vaña gueienac joatendira verriac jaquiteagatic; eta particularqui vellelara doacenac, gendeac hicusteagatic, eta hicusi dezaten, emacumea beinceit bai, escusa paracen duela intencioa arturic dagola joateco confesacera, eta vere errezu moduac Sanduac eguietara: au gperia ongi da, vaña escusa onequi viceric gogoan dutela joan oi dira; eta orlacoac ez joatea obequi eguiñen luque, joatea baño; esperienciac eracusten oi du, cer ondore hizaten duten joate aiec.

Christo gure Jauna lecu anicetara joaten cen Evangelioac, essaten duen vezala, vaña ezcen joaten esandugun gaucengatic vaicic ciudad, eta aniz erritan hizanducen gendeai eracusteagatic, eta erri batetic viceric joatencenean damu arcenzuten, ceren joaten [lat.] cen, vaña esatencioten ni guciengatic etorri naiz, eta conveni da ni verce lecuetara noaien angoac (4) ere provecha daitecen; quia et oportet aliis civitatibus predicare (5).

Egungo Evangelioac dio Christo gure Jauna Galileaco hichasoaren costetan cebillala predicacen, eta nombracendu Tiberiaco ciudad, ceñetan predicatu zuen, eta ango aldia eguinic atracen andic, eta hicusiric baciola, pena arturic aren joateas, huzcric ciudad, ondoretic seguitucioten gusto andiarequi, conturic artu gabes veren echecho gauzas, guciak huzten citulolaric Christori seguiceagatic: sequebatur eum multitudo magna. Zorioneco gendeac Jaungoicoaren amores vere gauza guciak huztenditutetenac: gauza andia da gendeac huztea maite dituten mundu onetaco ondasunac; bai porcierto gauza paregabea, menospreciacea, eta oñen azpico loia adiña ez estimacea ain gauza maiteac, nola diran emengo interesa, eta ondasunac. Antigoasco Philosofo sabioac ezutenez aguzen virtute andiagoric verenbaian, nola cen mundu onetaco hurre, cillar, eta verce gañaraco gauzac largacea; eguin zuen vezala Crates Philosofoac; vaña au deus ezta Apostoluac eguin zuten aldean, contentu hizan ezpaiciran citutenean gauza guciak huzteas Christoren amores, onetas [2] landara seguitu baicioten vere vici gucion, eta azquenean vicia eman baizuten aren amores, ezpaitu guizonac viceric emateco. Artuzuen Christo gure Jaunac errietatic atracen bezala larre bazuetara, eta eguna aurrera cioalaric hurbilducen mendi saies batera, eta veguieci goraturic hicusizuen gende anicec seguicioli, eta ezagutuzuen beartua cegola gendea, eta necesitatea hura erremediaceco dicipulubatei galdetucion, nola emanencezaion alimentu pisca bat gendeai, errespuesta eman cion, Jauna aimberce gende da, vacochari

(1) Titulua agian beste esku batek ipinia da, eta hiru hitzak laburturik daude. Esku horrek erantsia izan daiteke 2. testu hasierako *latinezko* pasartea.

(2) Eskuidatzian (E) *Ian*, eta berriz ere 5,1 orrialde eta paragrafoan. Ik. ere behean 16. oharra.

(3) E “anniz”, *an-* lerro bukaeran eta *-niz* lerro hasieran.

(4) E “angoac”, hurrengo paragrafoan “ango” eta “andic” daudela.

(5) E “predicare”. Aurkitu ditugun latinezko okerrak: “dinariorum” 2; “suffiunt” 2; “cgnoventur” 3,1; “constitum” 4at.; “Ple” 5,2; “atritus” 7at., “crucifentes” 7at.

hogui zerrabat emateco verreun errealeen hoguiec, erosteco diruec balire ere, erreperticeco asqui ezpailiraque: ducentorum denariorum panes non sufficient inter tot.= Verce dicipulubatec goart emanic mutil gaztebatec zarecho batean cituela borz hogui, eta arraibazuec, esancion, emen bada norc dituen borz (6) hogui, eta arrai bazuec; vaña cer dira aimberce genderenzat? Bacequien Jaunac cer eguin bear zuen premi hora erremediaceco; certaco bada galdecen diote? Hicusteco nolaco siñestamentua zuten aren baitan vere dicipuluac, bacequien ere cer errespuesta emanencioten; vaña galdetuciotes barrenean zutena hizces esanzezaten, orrequi [2at.] jaquin cedin aien siñestamentua; hicusicen bada esanzute-narequi, nolaco siñestamentua zuten.

Manatuciotes Maistru cerucoac vere dicipuluei (7) gendeac ordenean paracetetela (8), eta au eguiñic ecarcechetela hicusicituten borz hogui aiec, ecarriric offrendatucition Christoc vere Aita Eternori (9) eta bedicaturic Christoc borz oguiac manatuciotes Apostoluei (10) ebaqui, eta particechetela gende guciei, ala eguiñzuten, eta vapedrac naizuen gucia janic, eta orrequi gosea erremediaturic, sobratuciran amabi (11) ceztera oguis beteac, manacenciotelaric ogui sobratua bilceco; ala eguin zuten.

Hicusizutenean, bada, gende aiec milagro andi hora, veren ertean conuersacioa artuzuten esatenzuelaric auda Profetac esaten zutena etorriocela demborarequi gure Erremediazalea, ona non dugun, ardezagun guciac gure Erreguezat, eta vitoriazagun eguiñ duen milagro andiagatic, ezta erraz verce olakoac hizatea, guc vearbezalacoa da, eztezogun huzci joatera, alto eguiñzegun; orlaco gauza (12), eta aniz gueiago esatenzuten gende aiec. Ezaguturic Christoc genden intencionia ausentatu cen aien veguietatic, eta verce lecutara joancen (13) vere legue sandua eracustera.

Abiit Jesus trans mare Galilaeae. &

[3] Judeaco erreinuen cegon Tiberiaco ciudadea, eta emengo gendeac, eta comarcacoac, eta erreinu gucicoac juduac deicen ciran, gu españolac bezala, auei, eta mundu gucico gendeai eracustera etorricen Christo gure Jauna ceruco videa, Judean (14) hibillicen predicacen, convenicenean milagroac eguitencituela, jaquin-cezaten orrequi nor cen. Vaña lastima! negar eguitecoa da! gende auengatic (15) Jaungoicoac diona vere Profeta Dauden agos: Quadraginta annis proximus fui generationi huic, el dixi, semper hi errant corde, ipsi vero non cognoverunt vias meas, quibus juravi in ira mea, si introibunt in requiem meam Psal. Esanaidu verroguei hurten aldean da gende aequi nabillala ceruraco videa eracusten, vaña

(6) E “borz”, zenbait hitz gorago “borz”.

(7) E “dicipu/et”.

(8) E “pacechetela”.

(9) Ez “Eternoari”.

(10) E “Aposto/et”. Ik. 7. oharra.

(11) E “am”.

(12) Ez “gauzac”.

(13) E “jancen”.

(14) E “Judeean”.

(15) E “aunengatic”. Ik. “auengatic” 4,3.

*Abiit Iesus trans mare Galilei; Et regne
batu. Cum multitudine magna. Ies. 6.*

Gendeac hibilcengi xa legubazuetat et taxax lecuetaco bex xiac Iaquiteagatic, eta tendutelaxic lecubate an dagonac gauraz an niz etzagueta; Van gencianac Joatenrix te xiac Iaquiteagatic, eta particularqui de lectaxa doacenaggen deac hicu teagatic, eta hicu i derat en, emacumea beinceit bai, Escua g aracen duela intencioa axtu nic dago la Joateco confusera, eta zex exezumo duac San duai eguzkeria: au qu cia originda, Van escua sa one qui rexciru o o o an zu tela Soanordixa, eta orlaco al ezbatze qui loquinentzique Joaten al año; Orrexit ciac txacutin oido Cex ondoxe hizaten dute Joate aicc.	Orxito zexa Iauna lecu anicetaxa Joaten cen Oñanz elioac, lisa tenduen Pezala, Van er cen Joaten Oñanz gun, o auzen gatic Vanice Ciudad, eta niz Orxitan hizan ducen gendeak Exa curteagatic, eta Lax batetic rexcixa Joa tencenean, dama az con inten, Cexen Joa
---	---

eztute hicasinai hizandu, ala beti macur dabilza, nere leguea artu nai gabes; vaña juramentuarequi esandiotet, valdin vide macurrac huzcric, nere videtic espadabilza, eztirela sartuco nere echean nerequi beti descansuan viciceco.

Christo gure Jaunac dio ni naiz videa, eguaia, eta vicia: Ego sum via, veritas, et vita (16), guciendaco naiz, videa, eguaia, eta vicia; eta hicusizagun nola (17) den; eta lendabicipicoa, videa dela dio ego sum via. Presentatuzuen Maria Santissimac Elizara vere seme Jesus ona legueac manacenzuen bezala, entregacenciolaric Eliza guizon Simeon venerable dembora artacoari, eta vere vesoetan ceuquelaric Jesus aurra, esancion Amari: Ecce positus est hic in ruinam, et [3at.] Resurrectionem multorum in Israel (18); et in signum, cui contradicetur. Luc. 2. Esancion Simeonec (19) Ama Virginari zorionean etorria dela zure seme on au, eldubaita vecatua galceria, eta virtute, eta obra onac vistucera, eta anicec contra eguinendio-te; et in signum, cui contradicetur: Hugo Cardenalac explicacendu; anicec contra eguiñagatic, aurtegui eguin cioten; ceren etorricen vecatua galceria, in ruinam vitiorum, ala contra eguin cioten soberviaco, lujurieco, avaricieco, eta gulaco vecatuei, Profeta Zachariasec erran zuen (20) bezala aicinic, Erit ruina equi, et muli, et camelii, et Asini: adicera emanaidu lau abre auetan, lau vecatu principaliac (21), baitira, Zaldia, Mandoa, Gabelua, eta Astoa; abre guisa auetan arquicendira torpeza guciac, eta vecatu auetara emaniqueco guizona, abrea da; orren-gatic dio Dauidec, guizona consejacenduelaric: nolite fieri sicut equus, et mulus, quibus non est intellectus: esan naibaitu, guizona (22) escusazaite abrea eguiteas, juicioric ezpaitute, vaña zu eguiñā Jaungoicoaren semejanzara baizara, ezagutu dezazun ona, eta gaiza (23) gaizquie escusaceco, eta ona obraceco; bada vecatua eguiten duzunean abrea vaño abreagoa zara, cerengotic abreac ezagumenturic gabe eguiten du (24), eguiten duen gucia, ceñi carguric eguiñen ezaion vere abqueries, vaña zuri bai guizona abretasun guicias eguiñenzaizu (25) gogorqui, eta ezpazara conturacen [4] gaizqui hizanen da zutas, seculaco condenatua hizanen baizara infarnura.

Guiai ona bezala, gure Maistru Jesus, vera asi cen eracusten obra, eta exemploarequi. Coepit facere, et docere. Jaíogenetic hill atraño guicia hizanducen guri eracustea obra, eta exemploarequi; señale eman zuen pobrezarena, humildadearena (26): in signum paupertatis, et humilitatis: in signum sapientiae et obedientiae, sabiduriaren, eta obedientiaren señalean huzcizuen vere burua crucificacera guizonari cion amoreagatic; atozte, atozte nere arrastotic, siguinazazue, eta seculaco ongi hizanenzarate, bada ortaco emandizuet exemploa: guerra claraa eguiñ diotet, vecatu guciac veguiten arturic, eta zuenac errepredicen ditut

(16) Bazterrean: *Ioan. 14*, egileak *Ian* idatzia.

(17) E “nala”.

(18) E “*Israel*”.

(19) E “*Simeonec*”.

(20) E “*zue*”, bukaerako *-n* gabe.

(21) E “*pricipalac*”.

(22) E “*guizana*”.

(23) E “*gauiza*”.

(24) E *eguitendu* errepikaturik.

(25) E “*eguiñ ñen*”, *eguiñ* lerro bukaeran eta *ñen* hurrengo lerroaren hasieran.

(26) E “*humil* humildadearena”.

gogorq[u]ji (27), esaten dudelaric hus eguinic zabilzatela, eta nic vecaturic ez eguitearequi, eta obra onac bai, exemploa eman dizutet vecaturic ez eguiteco, eta Jaungoicoaren videtic (28) hibilceco; ortaco etorri naiz bada cerutic, lurrera, zuetatic bat eguiten nintzala: in ruinam vitiorum, et in resurrectionem virtutum.

Munducoac venturas dabilza Maistru Jesus cerucoac eracustenduen videtic? Discite a me. Eracusizuen manso viocezcoa hizatea, pobreza vorondatecoa (29) estimacea, esaiei agravio eguintutenac varcacea, auengatic vere [4at.] Aita Eternoari otoiz eguitea varcacezotela, ceren ez cequiten cer eguiten zuten; eta gaiz-quiguiileari ongi eguitea eracusizuen, garbi hizatea; eta enfin virtute gucieciusenbaitan hicuscituzten, naibazuten vere moduan seguitu, Hispillua eguiten-celaric gucienzat. Fac secundum exemplar, quod tibi constitutum est.= Esacion Simeonec Ama Virginari zure Semea cerutic señalezat etorrida araraco videa señaladezan, in signum: vaña munducoac veti contra hizanenditu in signum cui contradicetur. Eta gauza au claro asqui aguirida, eta hicez trebe eztirenac, obras atribuac dira. Cer Jaungoicoaren legue edo, ez legue? Jaungoicoac verac guarda beza naibadu. Cer dugu Jesuchristo eracustera etorcearequi (30)? Humilla hizanducen, susfritua, pobre vorondatescoa (31), esaiari ongi eguinciona, Jaungoicoarequi, guizona baquecea, cerua hiriquirea, eta ango ondasun seculacoac hirabaztea? Cer ceru, eta ango descansu (32) eta gozoac? oiec verequi huduquibech; guc presentecoac, emengo aseguiñac, eta ondasunac naitugu; eta enfin guc eztugu verce ceruric nai; emengoas contentu gara; alferric necacenda Christo, eta vere lagun Apezac; eztugu berceric eguiñen gogoac ematenduguna (33) vaicic. Jauna guc eztugu esaten olacoric, bai ordea eguiten? Esanbezate cer eguitenden Jaungoicoaren mandamentuen contra; ongi consideratubedi; eta juicio duenac esanen de egua da ori guria, Jaungoicoaren Humeac [5] ezgarala, gu vicigaran moduan, vaicic Diabruarenac (34); bada Juduei esan bacioten Christoc Diabruaren semeac cirala: Vos ex Patre Diablo estis. Ioan. Ceren aien vicice era, cen Diabruaren guisacoa; guregatic milla arrazues obequiego esandaiteque, ceren guc (35), nai eztugula ere badaquigu, cer eguitendugun, ceren Jesus diuinoac adicera emandigun, eta siñestaturic gauden, vaña aiec ezutene siñestatu aimberce milagro eguinagatic; orrengatic Diabrueren semeac gara, ez naturalezaz, bai ordea legues, onena eguitendugularic, eta ez Jaungoicoarena.

Ego sum veritas, Dio Christo gure Jaunac ni egua naiz, macurtasun, eta malicia gabea; vide ceruracoa eracusten dizuet, ain cierto nola Jaungoicoa Jaungoico den, eta ni aren seme eguiascoa, eta inbisiblea delaric Trinidad guria, eta hiruretatic bigarren persona, guizon eguin baininزان zuen ertean visiblea (36)

(27) E “gorgorq[u]e”, gor- eta -q/u/e.

(28) E “videti”.

(29) Hemen “vorondateco” eta hiru hitz gorago “viocezcoa”.

(30) E “etorcearequi”.

(31) E “vorondescoa”.

(32) E “descansu”, silaba bukaerako -n kontsonantea adierazteko erabiltzen duen marratxoa -u gainean.

(33) “-diguna”ren ordez.

(34) E “Diabruarena”.

(35) E cerenguc, hitz bat eginik.

(36) Hamahiru bat hitz gorago “inbisiblea”.

hizateagatic, eta bialdu ninduen nere Aita Eternoac zuengana, eracusteco cerurako videa: Ad dandam scientiam salutis Plebi eius. Luc. 1. Bada gendeac Christo mundura etorricenean, guiac ignoranteac ciran, eta alia ez cequiten nola salvatu bearzuten, eta Christoc eracusioiten orducoai, eta ondoreco [Sat.] guciei: huzcidu esribituric vere evangelio Sandua, ceñetan eracustenduen, aurretic esan den bezala: esaiei varcaceco eguitendituten agravioac, ongi eguin daquiola gaizqui naidionari, varcatu agravio eguiña, eta orlacoengatic Jaungoicoari escatu varcadezotela. Munduco interesa, eta abrastasunac, aranzac araguiari oñace, eta dolore zorroza ematendion bezala, gogorrago, eta zorrozagot direla arimerenzat munduco aranza guiac vaño: abrasa neque dela salvacea; comparacioa eguiten du animale Gambeluarequi: facilius est, camelum transire per foramen acus, quam divitem intrare in regnum caelorum. Math. Esanaidu; gauza errazago da, Gambelua delaric animale andien erteau señalatu andienetacoa, errazago da sarcea (37) horrazaren veguitic, ari birua pasacenden bezala, abrasa ceruan sarcea vaño. Evangelioac dio, izangaitcela escusatuac janean, eta edanean, contentacengarala vicie conservaceco bear duguna arcendugularic vaña conseju onen, eta verce gañaracoen contra eguitendu christioac: testigo dira, festa, eztai, Bataio, difuntuen funcio, eta errietaco tabernac, guicien gañecoa delaric gure erricoa, ceñetan escandalu andierequi gauac, eta egunac pasacendituten ordiquerien ez gazteric, eta zarric vereisten dela; eta ain guti cargu, eta obligacio dutenac; eta aguien lendebicicoac (38) diralaric exemplo gaistoa ematen? Erremediaceco escandaloac modu bizarroa baita? Orlacoric eracusi ezuen Christoc, ez Apostoluec, eta ain guti (39) Evangelio Sanduac.

[6] Guiari chusena, vide macurgabea, da Christo, vici seucleoa ematen duena, aren videtic dabillan guciari. Ara vere agoco hiza, señalacen baititu nor dabilzan Christoc eracusiduen videtic; bienaventuratuac hizateco.

Bienaventuratuac dira vorondatesco pobreac, cerengatic arena (40) hizanenden ceruco erreinue.

Bienaventuratuac dira mansoac, cerengatic aiec hizanendiran lurreren jabe.

Bienaventuratuac dira negar eguiten dutenac, cerengatic aiec hizanen dira consolatuac.

Bienaventuratuac dira justiciaren gose, eta egarri direnac, cerengagatic aiec hizanendiria aspertuac, edo contentatuec.

Bienaventuratuac dira misericordiosoac, cerengatic aiequi vsatucoda misericordies.

Bienaventuratuac dira vioz garbia dutenac, cerengatic, aiec hicusico duten (41) Jaungoicoa.

Bienaventuratuac dira vacosoac, cerengatic aiec hizanendiran Jaungoicoaren seme deitua.

(37) E “sacea”.

(38) Normalki “lendabici” ageri da.

(39) Normalki “guti”.

(40) Honela: *arena*, lehenbizi aditza singularrean bait zegoen: “Bienaventuratu *da*”.

(41) E “deten”.

Bienaventuratuac dira justiciagatic persecucioac padecicendutenac (42), cerengatic aiena den ceruko erreinua.

Zorci Bienaventuranza auec cer dira?

Virtuteen, eta Espiritu Sanduaren Doaien obraric obrenac.

Nor dira pobre vorondatescoac?

Mundu onetaco honraric nai eztutena, ezta ere den abrastasun chiquiena, edo interesa.

[6at.] Nor dira mansoac?

Asarracen eztirenac ez veren varrenean, eta ez campoan, eta asarratasunaren movimentu guiac sujetacen dituztenac.

Nor dira Lurraren javeac

Bere buruaren jaun, eta jabe diranac, eta Jaungoicoaren gaucetan ongi disponicen dutenac.

Nor dira negar eguitendutenac?

Gusto, eta placer den chiquiena ere huztendutenac.

Nor dira justiciaren gose, eta egarri direnac? (43)

Jaungoicoari veguiraturic, obligaciosco gauza guiac cumplicendutenac.

Nor dira misericordiosoac?

Piedade, eta misericordias vsacendutenac proximoarequi, edocein dela.

Nor dira vioz garbitacoac?

Penacen, eta mortificacen ditutenac veren pasione guiac.

Nor dira vacosoac?

Vaquea obracenduten guiac, ala verebaitan, nola lagun proximoan.

Nor dira justiciagatic (44) padecicendutenac?

Virtute, eta santidadea erreparaceagatic, edocein trabaju, eta penara prest daudenac.

Deicendira Bienaventuranzac; cerengatic mundu onetan ongi hizateco, eta gueroraco esperanza ematen duten.

Auda, bada, gure deseoa gucia, eta ala hizanenda obracenbada. [7] Esanden videa eracusi zuen Jesus onac, emendic dabillanac seucleco vici descansuoa seguracendu, eta naibaduzue jaquin nola gueunden (45) Adanan Hume guiac, onen vecatuaren ondorean, adizazue, frantotan adituagatic, cerengatic ezpaita

(42) Honela: “persecucioac padecicendutenac”.

(43) E galdera gakoa falta da.

(44) E “justicagatic”.

(45) E “gueden”, lehenbiziko -e- gainean n adierazten duen marratxoa ipini duela. Ik. 32. oharra.

asqui esanen, beti esaten baleude ere guizon guiac. Gure hizate, edo naturaleza au bi eriotara (46) condenaturic cegon. Sugeto cegon vecatuaren eriora jaioces dacargun vecatuagatic, eta guc emen eguiten ditugunengatic, deicen baitira vecatu personal, edo actualac. Erio modu au hizanduzen Jaungoicoaren gracia edequicciona guizonari, bigarren erioa cen penascoa, eta ala condenaturie cegon infarnura jaiocen cen gucia erremedioric gabe. Estadu miserable onetan egonciren Adanan Hume guiac Christo gure erremediazalea etorricen artraño, cerengatic Ainguiru, eta guizon guiac juntatu balira gauza au erremediaceco, deus eguiñen ez zuten. Jaungoicoa vrricalduen, bada, vere ontasun infinituagatic guizonaren estadu miserableas, eta galdu ez cedin, erremedioa paratuzuen, guizonaren hizatea juntacencelaric Jaungoicotatasunarequi, auda, bigarren persona diuinoac artu zuen [7at.] guizonaren hizatea, guzones bezan batean pena, trabaju, eta eriocea padecicezan, eta Jaungoicotatasunac lagundu, eta indar emancion humanidade sanduari, alaco moduan baitio S[anto] Thomas Doctore Ainguiruac, pagu sobratua emaciola vere Aita Eternoari gure vecatuen zorras; orrequi libracenguinzelaric bi eroice vecatu, eta infarnuerenetic. S. Th. 3 p. q. 48 (47). Aniz da S. Thomasec diona, eta guizonac obligacioa duela eranzuteco fiñea paregabeko oni, bada libratuzuen vecatueren eriocetic, au deicenbaitu Profeta Davidec infarnuric andiena: Eruisti animam meam ex inferno inferiori. Libratuzuen bigarren infarnutic, baita arima, eta gorpuzari tocacenzaion pena, eta tormentu seuclecotic; arcenzuelaric vorondate osoarequi vere gain gure zor gucie, eta mille gustorequi pagatucion vere Aita Eternoari. Isaias (48) Profetac dion (49) bezala: attritus est propter (iniquitates nostras,) (50) dico scelera nostra, quia ipse voluit, Non da christioa, eranzutea fiñea oni zordiozuna? Ara San Pablo Apostoloac diona: Rursum crucifigentes Filium Dei, et ostentui habentes. Esanaidu vecatoreac verriro crucificacenduela Christo gure Jauna, burla, eta escarnio eguitendiolaric (51) vere vecatuequi, alaco [8] moduen, Juduec bezala acabatubaizuten (52) vicia edequicearequi gurucean, eta burla, eta escarnio azquenean eguin cioten; vaña on daguiotela. Heredia in Vita S. Ber. Aita S. Bernardoac cituen borz anaia, guciec ciren sei, lendabikico borzac Jesus diuinoaren videtic hibileagatic, borzac deliberatuzuten vere gurasoac, eta tocacenzaizaizquitioten ondasun (53) guiciac munduan, seigarren anaia baicen gazteena tocacenzaizaizquitioten (54) drecho guicies heredero eguzitzen (55) eta despedicean esan cioten (56) orra ondasun guicies eredero eguin zaitugu (57), ongui ongui (58) gozazite (59), eta vici zaite

(46) Lehenbizi “eriocetara”.

(47) Deslburturik: *Sanctus Thomas tertia pars, quaestio 48.*

(48) E “Jasias”, hasieran J- duela. Bestalde, “Isaias izan behar luke.

(49) E “dio”.

(50) Testua honela da: “Ipse autem vulneratus est propter iniquitates nostras, Attritus est propter scelera nostra”, Isaias 53,5.

(51) E “dolaric”.

(52) Honela izan daitake: “acabatubaizuten”.

(53) E “ondun”.

(54) E “cezaizquitioten” eta bederatzi bat hitz gorago “cezaizquitioten”.

(55) Hola: “eguizuten”. Ik. “eguiñion” 4, 1at., 2.

(56) E “cion”.

(57) E “zaitugo”. Ik. 2. testuko 33. oharra.

(58) Errepikaturik ongui.

(59) Hemen “zite” eta berehalaxe “zaite”.

munduco leguera, gu bagoaz guciac huciric, Jaungoicoaren ondasunac hirabazte-
ra, fiñic ezpaitue, zureac hizanenduten bezala; modu onetan despedituciren bor-
zac anaia gazteaganic, ceñec oranic ezagumentu osoric ezpaizuen; orrequi gucie-
requi tristetucen anaien despedice artas, eta esancioten, ai Anaiec errepidamentu
charra eginduzue ondasunes, nic nere moduen eguiñendut errepidamentu obea-
goa demborarequi: guisa onetan despeditucituen juicioric ez zuen anaia gazteac;
eta borzac joanciren Religioso hizatera, eta gaztea guelditu cen vere eche, eta
ondasunequi, ezpaita mundu onetan verce ceruric nola vere gurasuequi vicicea,
erricoequi, ezagunequi, adisquidequi, eta enfin gusto cumplituarequi [8at.] gueldi-
tu cen gazte hura, eta fiñean gurasoric gabe. Dembora vere videan joanic,
etorricen gaztea adiñera, eta onequi ezagumenture; golpea berritucezaion anaien
joate artas, eta oroituric nola Jesus diuinoagatic gauza (60) guciec hucicituzten,
berela gogora etorcearequi, arras verac hucicituen, eta vere anaia onen exemploa
arcenzuelaric, eta esatenzuelaric vere vaiten, ni christandean jaioa naiz, ceruraco
Jaungoicoac eguiñ ninduen, nere anaiac ceruco videtic hibilcera, vicicera, eta
hura erabazteagatic, huzcirkic mundu onetacoac, joanciren ni vacarric huzten
nindutela; cer aienzat bezala nerezat ere cerua da, ni aiec vecain guraso hunra-
tuen humea naiz, eta aiec vecain Jaungoicoarena, eta onen amores nere anaiec
mundue, vere gauza guciec hucibaditue nic ere bai, ala joan cen religioso hizate-
ra, eta vere anaiec bezala ona, eta virtutosa (61) hizanducen, eta vere viecie
eramanic Jaungoicoaren seruizuen, pagatucion graciaren prenda ederrarequi, bai-
ta cerua animeri seguracdiona Ainguiru (62), eta Bienaventuratu guciequi
deschosoa hizatea, arzagun guc ere onen exemploa, on, eta virtutosoac garalaric
emanendigu ceruco Jaunac betico gozo, eta contentue. Amen.

(60) E “guaza”.

(61) Hemen “virtutosa” eta paragrafo bukaeran “virtutosoac”.

(62) E “Aingu”, bukaerako *-ru* silaba falta dela.

2. TESTUA

Erat (1) Jesus ejiciens Daemonium (2), et illud erat mutum. Luc. 11.

*Garicimaco irugarren Igandeko Lecioa
Confesio gaizqui eguiten oidiran gañean.*

Confesioko sacramentuaren gracia errecibitu naiduenac confesio ona egui-mbeare du; eta ona ezpada confesioa, ezaio vecaturic batre varcacen, eta condenaceco penan verritu bearditu confesio gaisto guiac. Confesioko sacramentua Eliza guizon principal guiac erien iturri (3) sandua deicendute, eta eriac sendaceco paratu-zuen Jesus diuinoac; vaña au icusiric gure esai gaisto Diabruac eguin al gucia (4) egitendu eriac allegatu eztaitecen vearden moduan, eta orrequi lenvan-ño gaizquiago gueldidaitecen, eta osasunaco iturrian sendacera eldudiranac veca-tuco gaizatic sentadu gabe gueldidaitecen, arc iturri onetan botacenduen cusu gaistorequii; vaita gracia errecibiceco embarazua paracenduelaric gaizqui confesa-razten (5) duelaric eldudena confesacera.

Eri vecatore tristeña naibaduzu sendaturic guelditu confesioko iturri sanduara elduzaranean, atoz ongi prestaturic, ezce orlacoendaco (6) du virtutea. Adizazu bada eguiten diran confesio gaistoac, eta noiz den obligacio berriro confesaceco vecatu mortalaren penan. Lendacibicoa: Confesioa gaistoa eta sacrificioa da, vecatu mortalenbat daquelaric mortala dela [lat.], edo veres ez izanagotic mortala, vstebadu dela, edo dudacenbadu mortala dela, modu onetako vecatuac vzten badira losas, goarcen delaric, confesioa gaistoa da. Bigarren confesacendiranean (7) vecatuac vrriquimenturicgabe, eta asolaric eztuenac aiec eguiñas. Irugarrena confesacendirenean vecatuac propositu firmeric aiec vzteco eguin gabe, eta siñesqui ocasiotic apartaceco. Laugarrena confesioan guezurra erranzuelean vecatu morta-leco gauzan, edo cela vstezuelaric confesatu gabe vztenbadu: Bosgarrena confesa-cendena vecatuco ocasio peligrosoa vz cigabe, errazqui, dezaquelaric, eta vere escuan dauquena vzci naibadu; cerengatic orlacoac ezpaitu propositu firmea, eta beardena. Seigarrena (8), billacenduenac ignorante, edo maliciosoac confesore ignorantea ezagutu eztechen aren vecatu nasiac: confesacendena conciencia aurretic ongi esamiñatu gabe, cerengatic orlacoa eldubaita osoqui vecatuac confesaceco intencionaric gabe, guciz ignorantea ezpada. Essandiran confesio moduac eguiten dituenac (9) gaizqui confesacenda, becaturic batere ezaio varcacen, ceren confesatu eztiran confesioac escacenduen (10) bezala; eta orla confesacendena vecatubat gueago egitendu, alaber vercebat comecacenbada modu onetan; eta condanacioco penan du obligacioa confesio eguindituen guiac veren vecaturequi verrizeco comecacio gaisto guciequi batean.

(1) Goiko bazterreko ezkerreko zokoan 1830.

(2) E “demonium”. Ik. 1. testuko 1. oharra. Latinezko okerrak: “mutuum” 1, tituluan.

(3) E “iturri”.

(4) E “guzcia”, *guz-* lerro bukaeran eta *-cia* hasieran.

(5) Hola transkribatzen dugu, ezabaketak eta berridazketak izan direlarik.

(6) E “orlacoendaco”.

(7) E “diranen”.

(8) E “Seisgarrena”.

(9) Ergatibo markarekin.

(10) E “ezcacen-”.

[2] Esandiran confesaceco modu guciak dira gaistoac, vaña gucien gañetic gaistoena da, losas, eta alques vzcicea vecatu mortala confesatugabe, locendiolaric mingaña Diabru mutuac confesatu eztezan; naturale infame au dute Diabru guciac, Jaungoicoac vere sierbo vati errebelatucion vezala: egunbates Gende aniz confesacenzelaric elizan, icusizuen Diabrua choil diligenta cibillala (11) confesiotegui batetic vercera; eta galdetucion ia cer zuen ain diligenta ibilceko? eta errespuesta emacion vacochari edequizaciona izulcen cebillala; cer edequi diozue? Edequinioten beldurra, eta losa libreago vecatu eguin cezaten; eta orai nabilla veldur, eta losa izzulcen confesatu eztecheten beldurres, eta losas, vide onetas condenatudaitecen, vecatuac confesioan isillcearequi. Orlacoei, bada, guertacen-zaiote Erregue Dauidec diona: cerengatic isillic egonduninzzan, nere ezur guciac secatucezaizquidan (12), egun gucian oius egonagatic: puntu onen gañean dio Aita S. Gregorioc; confesioan vecatuac isillzendituenac oivec ematen ditu vere varrenean conciencia inquieto dagolaric, eta sosegua gabe onec penacendu, confesioan vecatuac essan ezcituarenarena (13), ain fuertequi [2at.], eze penace vra ezurretarao sarturic iharcebaititio.

Aita S. Agustinec dio: manifestatubeardituten vecatuac isillcentutela, eta escusatu, eta isilldu bear ditutenachequiac ez oi dira aspercen essateas; emendic elduda ezurrac secacea, cerengatic vecatu isillduaren venenoa sarcenden (14) viozaren varreneraño, eta consumicendio graciac ematenduen vicia, eta onequi edequicendio oneraco vide, eta indar gucia; alaco moduan, ece gauean eta egunean guelditugabe Jaungoicoari escatuagatic, oracioarequi (15), barucearequi, eta edocein penitencia den gogorrena eguitenbadu ere, eztu adituco, cerengatic confesioan vecatua isillcenduenac eztuen bearden bezala escacen.

Losa, eta beldurric niorc izan eztezan confesioan vecatu mortal guciac manifestaceco, den arrigarriena izanagatic, vstedut badaquizula: orrequi guciarequi verricenda, ceren aniz conueniden. Jaquifnic zaudeque bada confesorea Christo gure Jaunaren lecuan dagola, aren aldiac eguiten dituela, eta confesoreac munduguciagatic, eta errececo penan emen eta verce munduan, ecin essandezoqua niori confesioan aditu dituen becatuac; irabaquicen, edo señalacen badu norc confesatu dituen izanenda castigatua Jaungoicoaren, eta mundo Justiciaganic. Au adituri, venturas izanen da beldur, eta losaric confesioan vecatuac (16) manifestaceco confesoreari, delaric puntu onetan guizon ilbat, edo gutiago? Juicio naturala [3] badu ez beincet.

Ondasun andiac galcen ditu losagatic confesioan vecatuac isillcendituenac; juicioco egunean mundu gucian aguertu bearciran vecatuac deshonra andiarequi, ongi confesacearequi libreda losa paregabeco onetatic, eta aguertuko da gucien aurrean seculan vecaturic eguin ezkpalu vezala, eta lendabicico graciarequi vecain eder aguertuko da. Vadu pareric ondasun onec? Ez. Adizazu tristea Aita S. Agustinec (17) diona: A gaizoquia losaric izan ez ciñuen vecatua equiteco, eta

(11) Pixka bat beherago "cebillala".

(12) Lehenbizi "ceizquidan".

(13) Lehenbizi "ezcituena", gero -ena gainean *rena*, ezer ezabatu gabe.

(14) Lehenbizi "da", gero "de", *n* adierazteko marratxoa -e gainean.

(15) E "oraciequi".

(16) E "vacatuac".

(17) Hemen "Agustinec", goiko orrialdeko 2. paragrafoan "Agustinec" diocla.

losarequi arquicen zara confesaceco! Ez, ez tristea, votazazu zureganic losaren esai andi ori, orai andiago dela iduriaratzendizu Satanasec, den vaño; orrequi izanzaiztenarenzat (18). Por cierto ezara Nausi gaistoas quadracen!

Ezta aspercen Aita S. Augustin consejaceas puntu onen ganean; dio: Ezta obeago orai losa pisque bat arcea guizon vaten aurrean, guero mundu gucicoen aurrean vaño, juicioco egun (19) losagarriartan? confesoreoa guizon vacarbat da, eta oni essatea vecatuac orai izanenda prouechu pareric eztuembat, vaña egun artan aguertuco dira Josaphateco Plaza andi artan, non icusico baita vecatore gogortucena losagatic guizon bacarbatii essatea confession vecatuac, an arquicidren guciac jaquiñenbaituzte, eta confesoreoa ere an izanenda, eta orai zuc essanai eztitiozun vecatuec, zuc essan gabe jaquiñen, eta icusico ditu guciequi batean. Bai bai gaurdachezu vioceco zoco ortan, orduan atra daitecen campora, eta guciec jaquin decheten.

[3at.] Gendeac Adanen becatuarequi guciac cusuturic eldugara, eta vecatura inclinatuac, eta ala guri emanada vecatu eguitea; vaña Christioari emanada vecatutic atracea, apartacea, eta siñesqui vztea; vaña Diabrulei emana da gogorturic egotea veti vecatuarequi: confesio onarequi, bada, erremediacen dira gaiz guciac; aniz estimacien da munduko honra, eta gendeen aurrean losaric gabe ibilcea; eztu bada pareric ceruan duen honra, eta estimacioa confesio ona eguin, eta erdistendenc (20). Aita S. Clementec dio: S. Pedroc anizetan consejacenzuela confescea; esaten zuelaric: Vere arimes contu dauquenac, baldin erorcen (21) bada vecatuan, confesoreari (22) confesaceco eztezala losaric izan, bada uzci zuen Jesus diuinoac vere ordean eriac sendaceco vecatuaen gaizcetic; eta ala vecatore eriac libratuco du vere burua (23) seculaco condenacioaren eritasunatic, eta ceruko osasun paregabeara erdechico du.

Explicacenduelaric S. Pedroren consejaua dio berce Eliza guizombatec; neque, eta gaiz iduri bazaizu, pensazazu ongui, eze eztela izalico (24) zure conciencias barrenean duen su penagarri ori confesio onarequi baicic, eta onequi gueroraco su fiñic eztuen vra hizalicoda. Acienda, eta mendico (25) eizac vere moduan ezagucenditue duten gaiza sendaceco cein diran belar onac; eta ezagumentu, eta primia duten arc billarazten diote veren erremedio (26) belarra. Naturalezako Maistruer eracustendigute oriñac nola billacenduen [4] eizlariac eman dion golpea sendaceco modua: billatu, eta arquituric Dictamo darizonek belarra jatendu, eta arc duen indarrarequi barrenean dauzquien dardo, edo balac botaraztentio eta orrequi gueldicen da descansuan, eta viciarequi. Guizona eritric arquincenzara (27) vecatuaen dardo zorrozarequi, vici naibaduzu botacen duzularic dardo zorroz

(18) Emeten du lehenbizi “-zaiztenarenzat” ipini duela.

(19) E “engun”. Ik. “langun” 3. testuko 24. oharrean.

(20) Paragrapho bukaera “erdechico”.

(21) E “erorcen”.

(22) E “confesoreari”.

(23) E “berua”.

(24) Pixka bat beherago “hizalico-” paragrapho honetan bertan.

(25) E “mendico”.

(26) E “erremedico”.

(27) Hemen *arkindu* dugu, normalki *arkitu* darabilela.

ori, eztuzu arquituco confesio ona bezalako bellanic, indarta baitu becatuaren dardoac zureganic botarazteco, eta osasuna emateco.

Zauri, edo llaga den secretuena balinbaduzu billacen oiduzu Barber, edo Medicua, eta verguenza, edo losagatic eztiozu huzten eracusteco zure llaga, naiz duzula zure gorpuzaren lecu losaizunean; eta au da zure gorpuz arrac janbearduten orren osasunagatic prestatuozara losaizun edoceñetara; eta zure honra, eta erreputacioa huztenduzu sarri sarri (28) banatuco duen escu, edo mingañean; naiz sendatu, edo naiz ez (29). A triste? Ventures gueago valio du zure gorpuz lur orren osasunac, ezce zure arimarenac? Arima ona duenak gorpuz ona izanendu bai bai (30) demborarequi, naiz emen gaiza darraiona izanagatic. Confesioan, ona delaric, den erienac vere gaiz gucien erremedioa arquitucodu (31), honra, eta erreputacio galantarequi arquituco da Jaungoicoaren eta ceruko bienabenturatu gucien aurrean [4at.] Arima, eta gorpuza edercendituelaric graciak, eta onequi seculaco honraturic vecaturic eguin ezkatu bezala, eta losaizun gúcittic (32) libre, cerengatic hucizuen seculaco, confesioan botacearequi.

Hicusazue cer legue modua den graciascoa, baita guc orai dugun au; eta Jesus diuinoac emanciguna. Legue zarrean gendeac ibilenciren necaturic, eta gogaituric vere (33) ofrenda moduac egunbearcitutenean veren vecatuengatic Jaungoicoari; ofrenda aiec virtuteric vecatuac barcaceco ezuten cirelaric aniz, eta legue choill gogorra; vaña guri aien lecuan paratudigu confesioco legue ariña, ceñequei eguitengaran, humilqui, eta lotsa vzciric confesacenbaitugu (34) gure vecatuac; vide onetas erreccibitric gracia, eta ederturic arima, Jaungoicoaren seme adoptivo maiteac, eta vere ondasun gucien heredero, aren presencia eder paregabecoa gozacendugularic Ainguiru, eta Bienaventuratu guciequi laudacendugularic eternidade gucian. Izanenda, bada, lotsa piscabat areztezan (35) vere vecatuac confesacearequi (36) ezcinc errandechequen guizon bati emen, eta verce munduan seculaco erreccoco penan? Ea bada izanzaite berce legue berribaten parazalea, eta zure gustocoa, eta orrequi izanen zara naiduzun bezala; vaña contu zure lotsa orrec seculacoa (37) eman eztezazun.

Erroman (38) guertatucena S.^a Princip.^a Diabruac (39) Tribunalera acusaturic. Billa beardu eta arq[u]ituco du. Aita Parran num.^o 363.

(28) Errepikaturik *sarri*.

(29) Bazterrean: *Emen Carlosen alabaren...*

(30) Errepikaturik *bai*.

(31) E “*arquitucadu*”.

(32) Errepikaturik *-tt-*.

(33) Hemen “*vere*” eta berehala “*veren*”.

(34) E “*baitugo*”.

(35) Honela eta ez “*arreztezan*”.

(36) E “*confasacearequi*”.

(37) E “*zelacoa*”.

(38) Testua bukatu ondoren erantsia.

(39) E “*Diaabruac*”.

3. TESTUA

*Garicimaren Laugarren Igandeko predicu, edo Leccioa.
Becalu mortala eguiñas galcedirán ondasunac, eta iduquibearden cuidaoa vra ez
eguiteco.*

Gure izates, eta naturalezas munduko ondasun eta interesetara inclinatuagara, eta inclinacio onequi eguiñ al guciac eguitenditugu izateagatic, aumentacea-gatic, eta conseruaceagatic abec; eta ezta pareric arcenoiden sentimentua galceas. Era cerbada galcenbadira vacocharen faltas? Enfin mundu onetako ondasunac vanoac, eta guezurtiac dira, enganio, eta chasco emaleac.

Naibada icusi nolako ondasun fingabeac galcedirán vecatu mortalbatequi, adibedi conturequi cein diran, vici oiden vaño cuidado gueagorequi vicidadin, vecatumortal escusaceco. Ezta, bada vecatumortal varcacen confesio ona eguitearequi (1): confesacera eldudenac jaquinbeza vecatu guciac confesatues landara damu, eta pena al dezaquen guiciarequi, siñesqui artubeardu vere viocean, viciabat duen bezala valitu eun milla ere lenago aiec guciac galceco deliberacioa, vecatu mortale bat eguitea vaño. Adibedi ongui comparacio au. Andre noble, honratu, eta prestu bat deliberaturic, eta prestaturic dagon bezala lenago milla vici balitu aiec galcera, Jaungoicoari ez ofensaric eguiteagatic, vere Senarrari [lat.] lealtadea goardaceagatic, obra onen merejimentua ez galceagatic, eta honra, eta erreputacioari veguiraturic esai gaisto, eta infame vere honra edequinaizionarenganic (2) lenenago (3) illcea, ezze faltacea lealtasunari: Modu onetan Christioac guardatu-beardio Jaungoicoari lealtasunaco (4) emanic daucan iza, faltatugabe, naiz dela vicia, hondasuna, eta honra galceco peligruarequi.

Cerengatic, bada, icusten den ain erreparo guitearequi vecatu mortal aniz eguitenden genden ertean, ez bercegatic, baicic veren naiera, eta gustoa cumpliceagatic, consideratugabe cer agrauio eguitendioten Jaungoicoari, eta cer ondasun galcenden; adizazue, eta cenzuric baduzue, arrituric escusaceco motiboric asqui bada.

Genden ertean essan oida eroa edequies cenzacen dela, castigatuas beldur-cendela gaistoa. Becatu mortalarequi linbicicoric (5) galcenda Espiritu Sanduaren gracia, baita Jaungoicoac guizonari mundu onetan emandezoquen (6) doairic andiena; ceren graciaren doai onequi eguitenda guizona Jaungoicoaren seme adoptiboa, eta onen ondasun gucien heredero ceruan: mundu onetan cembat placer arcenoida veren gurasoen heredero eguitendirenean? Verac daquie. Vecatumortalagatic galcenda Jaungoicoaren adisquidetasuna, beti biac elcarrequi baitabilza; Erreguearen adisquidetasuna galcea (7) cer damuac izaten eztira? Cer du bada cer icusi ceruco Erreguearenac galcea?

(1) Lehenbizi “eguitearequi *baicic*”.

(2) Lehenbizi “*zionaganic*”.

(3) Normalki “*lenago*” ageri da.

(4) Espero da “*lealtasuneco*”.

(5) Normalki “*lendabici*” ageri da.

(6) E “*emanadezoque*”, lehenbizi “*emaladezoque*” idatzi duelarik, *eman al dezoke adierazi nahirik edo*.

(7) Beharbada “*galcean*” behar luke.

Galcendira Espiritu Sanduaren virtute, eta doiaic [2] abec edercen baitute gure Jaungoicoaren aurrean aguerceco gauza izan dadin, indar ematendio Satana-sen, eta vere lagun gucien contra, vitorierequi atradadin laguncendio. Galcenda ceruraco zuen drechoa, cerengatic gracia dela medio ematenda ceruco gloria. Galcenda Jaungoicoaren seme adoptiboac izateco gracia; galcenda gutas, Aita onac bezala, zuen cuidadoa, baita mundu onetan izan daitequen ondasun andie-na; Orrengatic dio Profetac: Jauna, alegratuconaiz, icusten naicenean zure contuan nagola, eta Aita prouidenciecoac bezala beardudena ematen didazula. Galcenda Espiritu Sanduac ematen duen conciencieco sosegua eta descansua. Galcenda Espiritu Sanduac varrenean ematenduen alegranza, eta gozo pareric eztuena. Galcenda vere vicigucian obra on eguiten direnen (8) merejimentuac. Galcenda Jesus diuinoaren merejimentuetan izan bearzuen partea, eta enfin vecatoreac, arbolaren beso ihartuac onen zañetic vicia participacen eztuen bezala; ala eztu pareric izanen Jesusen arbola viciac, vere besoei, baitira graciak daudenak, ematen dioten sustaneia, eta gozoa.

Esandiran ondasun guci auhec galcendira vecatu mortale bacar batengagatic. Eta cer irabaztenda? Adizazu: eguiten duen irabacia da, condenaturic gueldicea seculaco (9) infarnuco su, eta garretara; gueldicenda borratadic (orduan orduan (10) bezala) Jaungoicoaren ceruraco asentuko librutic; Jaungoicoaren semetic (11) [2at.] eguitenda Diabruaren esclabo; eta celaric graciaren medios Trimidadearen temploa, eta toquia, eguincen napur, suguen, eta serpientes lecuia. Gueldicenda Sanson tristeza bezala, illeac ebaqui vere esaiac, eta indarric gabe guelditu baicen, eta beguiac atraric, errota arribati loturic, astoari bezala erabililaraciric, ihoaracicioeten (12) jateco laborea: lenago bere esaiac choll (13) beldur ciran Sansones, vaña illeac ebaqui, beguiac atra, eta loturic cerabilten, artas naizutena eguitenzutelaric; burla, eta escarnio andiequi.

Estadu triste, eta modu miserable onetan gueldicenda vecatorea, galcendue-nean vecatuagatic graciaren indarra, flaco gueldicenda, eta loturic pausuric eman eztezan obra onac eguiteco; veguiric gabe Jaungoicoaren gauzac ezaguceco; Dia-bruen sujecio, eta menean, abre lotuari bezala, naidutena eguiñ arazteco (14). Cer? Ara nai duten gaistaqueria eguiñ araci, bai, napurreria, luxuria, ordiqueria, maldicioa, juramentu falsoa, erreñqura, odioa, imbidia, nior iccusia nai baguea, izcic ez essatea, edo hucacea, diosalaric ez eguitea, carretic beguiracea, acetic, eta conuersacio gueienetan murmuracea, eta aldechequeten tacha, eta faltac atracea; eta enfin ezta picardiaric eguiñ arazten eztiotenic, eta abre lotua bezala eramatendute nora naiduten malcorceco, eta verena eguiteco. Por cierto icarace-coda, gendeac siñestamentua dutelaric gauza abes gucias, eta izanic Jaungoicoaren iza, eta vera baño gueago ezcín falta daitequena, atrebicea [3] vecatu mortal-bat eguitea. Pensa bada Jaungoicoac, cein beguitenarturic dauquen vecatua, eta

(8) E “diren”.

(9) E “secalaco”.

(10) Errepikaturik *orduan*.

(11) Orrialde bukaeran *semea*- eta hasieran *-tic*, “semetic” behar lukeela.

(12) Espero da “-cioten”.

(13) Normalki “choil(1)” ageri da.

(14) Lerro bukaeran “eguiñ” eta hasieran *arazteco*, eta sei bat hitz beherago “eguiñ” lerro amaieran eta *araci* hasieran.

nola castigatu dituen dembra gucietaco gendeac mundua den esguero (15); eta cembañ egun zuen Jesus diuinoac (16), ezpaicen guelditu illartraño vecatua galceagatic.

Becatore confesacera zoacenean, baldin baduzu cenzuric, eta naibaduzu confessioac prouechu egun dezazun, siñesqui izulibearduzu Jaungoicoagana, eta propositu ain firme, eta seguroarequi seculan vecatu mortalic ez egiteco, eta orlaco gaicic zure arimari eztiozula emanen. Propositua, bada, siñescoa izanenda vecatu mortale gucietatic, eta aben ocasiotic apartacea, gogotic arcea, eta cumplicea. Ara nola izanend firmea, eta confessio onac escacenduena: odio, edo errencurearequi zaude norbaiten contra, ezta asqui zuc esatea gaicic eztiozula deseacen, eta viocez varcacobiozula, baldin iza, diosala, eta lenagoco arequi (17) ciñuen tratu (18) modua faltacenbadiozu. Cusaturic zaude luxuriaren cusu maradicatuarequi, ezta asqui esatea confessioan vtzen duzula, apartatuko zarala aren vide, eta peligrutic, ezpaduzu cumplicen; eta ezta cumplicea, eta huztea gogoac ematendizunean joatea zuc daquizun lecura, nola baita, echera, videra, sasira, edo gauaren estalquiña billacea. Ara verris: verceren gauza daucanac Jabearen vorondatearen contra, ezta [3at.] cumplicen confessacearequi, eta iz ematearequi errestitucioa eguiñenduela, baicic berela izulibeardio verea ezten gauza; naiz dela napurreria, dela zorra, dela arquitua, dela elizari, edo aren ministroari (19) emangabe daucana, vere demboran ematen eztiotela, ala vatarri, nola berceari obligacio diona orlaco demboram pagaceco eman ciona, berebaitan erratenduelaric eztago premian, eztio faltaric eguiten; eta asco pensamentu eguitendelaric, guiciac excusa macurra dira, eta gauza escuetatic ez huciceagatic; Ai cein ederqui Satanasec eguiten duen vere naiera, eta enganaturic iduquicen dituen vici diren demboran, eta azqueneco horduan cargu emanendiote aguien vere hume, edo heredorei; eta cer eguiñen due abec? Verac adiña, edo gaizquiago consumicendutela (20) here-dancia gusto duten gaucetan, azcenduric defuntas! Puntu onen gañean essanac vaño essatecoac gueago dira: vapedrac beguirabezo vere barrenari, eta goacen verce puntubatera.

Batec verceari agrabioa egun dezoquen vezala intresa, hacienda, edo ondasunetan, egun dezoque ere personari tocacenzaizquion fama, eta honra, edo reputacioaren gañean. Fama, eta honraco bi joi eder (21) abec edoceñec estimacen oidoit; cerengatic abec faltabadituena ezcinc genden ertean aguer daitequen, juzgacendutelaric aien erteko gau[za] [4] ez- tela (22); ala gende gucien burla, eta escarnio izanoidira fama, eta honra galduac. Aldaquizue, fama edequicenzaiola personari eraiquicea (23), edo paracea eztuen tacha, edo mancharenbat, eta baldin baduere, eta banaturic ezpadago, edo secretuan badago, seculan alacoric egun ezpalu bezala baita secretuan dagoan artraño; fama ausencian edequi-

(15) Ez da erraza asmatzen nola idatzi behar diren morfemok, loturik ala banaturik.

(16) E “diuonac”.

(17) Lehenbizi *len arequi*.

(18) E “*tatu*”.

(19) E “ministrori”.

(20) E “consumicen-”.

(21) E “eder”.

(22) Papera hautsirik.

(23) Lehenbizi “eraiquicearequi”.

cenzaio lagun proximoari, edo azcetic esatendirelaric eztituen manchac, edo baditu, secretuac diralaric. Honra edequicen zaio vere presencian, edo aurrean, essatenzaizquiolaric iz charrac, deshonracoac, eta erreputacioaren contra direnac; eta diralaric izac grabeac, eta personac sentimentu andia ardezaquena, becatu mortala da; oroat murmuracea, Platiquerent medios, edo iolasagatic gauza importanciezcoaren gañean eztuen falta, edo izanagatic, secretua delaric, lagun (24) proximoagatic essaten badu Bataz (25), edo berceaz vecatu mortala egiten du.

Aditric bada dotrina au, confesacera elduzaranean, ñiori edequibadiozu fama, ezta asqui vecatua confesacea, ortan baldin egon bazara orai atraño, ignorancian egondu zara; eta ignorancia huciric, escusazazu aurrera fama galcea lagun proximoari; eta arengatic esanditzun [4at.] gauzas, eta aguertu (26) ditiozun tachas, secretuac cirelaric zuc aguertu ciñucenean, obligacio andiaren azpian zaude, errestitucioa eguiteco, auda, zuc paratubearuzu personari (27) fama edequiciñuen vra lenago zuen artan, au da, seculan alacoric ezpalu izanbezala; genden aurrean (28) laudacenduzula (29), eta ocasio gucietan arengatic ongi esatenduzula; eta particularqui aren falta lendabikico persona esanciñoten aien aurrean. Auda fama berceri edequizaion errestitucioa eguiteco modua; eta ezta obligacione barcacioa escaceco fama galduzasionari; Bai ordea honra edequizaionari; cerengagatic honra presencian edequicenden eta au izulcenza[jon bar]cacioa (30) escacearequi deshonratuduen personari.

Elduzara confesacera, etorri bearduzu, bada, propositu firme, eta siñescoarequi vecatu mota guciac huzteco, aien bidetic apartaceco, vici berribat arcenduzularic Jaungoicoaren alderaco, eta zure arimaren saluacioco (31).

Munduco (32) gauzai naiera, edo deseoa paregabecoa izatenden, desengañuko exemploa; eta auhec hucias nola saluatuzen bat. Aita. Parrac. fol. 231. eta fol. 346.

(24) E. "langun".

(25) Lehenbizi "Batar, edo bercear!".

(26) E "arguertu".

(27) Lehenbizi *persona*, gero luma meheagoz *-ri* erantsia.

(28) E "aurren".

(29) E "duzala".

(30) Papera hautsirik.

(31) Honela eta ez "saluacionaro".

(32) Beste tinta batez erantsia.

4. TESTUA

Garicimaren borzgarren Igandeko Leccioa- (1)

Jaungoicoa ez ofendiceco, eta propositu firmean egoteco erremediorembazuec ematendira

Gaiza darraionari ematenzaizquierdoa ez gaizquiceco erremedioac, orreki gaicesterik libre egondadik. Arimaren gaiza da vecatua, eta mortalak balinbada illekundu, eta infarnura condenaceko estaduan paracen du; eta gaiz onequi ez gaizquiceco christioiac, naibaditu artu, ematenzaizquierdoa erremedioac, baitira essaten diranak, eta aldaitequen cuidado guciarequi contuan artuko dituzue, medicuak ematendituen erremedioai kontu arcenzaion bezala gorputzaren gaiza erremediaceko.

Jaungoicoagana (2) izuliden vecatorea confesioaren medios, eta onequi artuduen graciaren erremedioia goardaceko (3), ezta asqui propositu firme egunduena, verari iduriagatic choill firmea, eta siñescoa dela Jaungoicoa ez ofendiceco, eta errecibituduen gracia confesioan ez galceco, ezpaditu erremedioac guardacen.

Lendabiko (4) ematen den erremedioia da, vecatuco ocasional gucietaescusadilla (5) nola baita joqu gucietaescusadilla, lagun [lat.] gaistoetastic, conuersacio, eta tratu sospechosoetastic; veguirece, eta adisquide emacumequi izatetic; cerengatic ocasional abec escusacen eztituenak eman dezake ia vere arima galdu, eta illzat. Guizombat aintzina flaco, eta indargabecoa balego oñen gañean ecin egon leitequen adina, tiraca guti bearlukue lurrera erorkeko. Bada guizona vecatuarque aintzina flaco, eta indargabe guelditzen, eze aniztan vere flaquezagatic erorcembaita verce ocasiorigabe; cer eguiñen dubada aimberce ocasional duelarik? Ona, eta justoa cucha iriquian peligru andian dago escua botaceko, eta verea eztena arceko.

Bigarren erremedioia da, maiz confesacea, eta comeceaea vecatu eguiñan varcaceko, eta ez gueiago eguitako. Eta dembora gucietaian izanagatic sacramentua virtutea au, gueiago dute tentacioak garaiceko, baldin tentatua denak (6) abetas maiz valiecimbada. Eta nior erorcenbada vecatuan tentacioari consentimentua ematen diolarik, eztadilla hizkina, eta lotan sartu confesatugabe, edo contricioa esangabe vioz guciaren damutasunarequi, veguiracen diolarik Jaungoico Soberanoari, eta barcaciona escacendiolarik eguiton (7) charqueria gicias. Aitxa S. Guergorioc (8) esatendiguna da au: Cer daquizu biarco egunera allegatutu zaran, edo ez? Eztu seguranzarik, guertadaitequezu loo zaudelarik infarnura jaistea, eta hirazarririk an arquiea; eta norc escua emanendiztu? [2] Esperazazu, vaña guertatatu zaizu verceari bezala, escatubaizuen alibiorenbat emancezotela, vana oraño ala dago.

(1) Lerro osoa azpimarraturik eskuidatzian.

(2) E “Jaungoicoa”.

(3) Hemen “goardaceko” eta paragrafo bukaeran “guardacen”.

(4) Normalki “lendabikico” ageri da.

(5) E “dadilla la”.

(6) Ergatibo markarekin.

(7) Honela, “eguinton” ipini beharrean. Ik. 1. testuko 55. oharra.

(8) Honela: “Guergorioc”.

<p><u>Gariçimaren bozgarren Igandea Leccioa -</u> <u>Taungoicoa ez ofendiceko, eta propositu fix-</u> <u>mearekoeteko Exxmedioen bazeak Ematendixa</u></p>	
<p>Gara darrionari Ematzenaizquierdo exga izquicco Exxmedio ac, oxegui gauetic libre egondadira. Axi maxen gara da gera tua, eta mortala ba linbada illeendu, eta infarnuxa condenace co Eradiaren paxacen du; eta gaitz onegii ex gairizquicco christiako naibaditu artu, Emat zenazquierdo. Exxeme dio ac, baitixa eraten dizanar, eta aldaten querentzia do gurria xegui kontuan ar tuzos dituzue, medi cuac Ematzen Exxmedio ai ontzi axenzion berri</p>	<p>Exxmedioengarabak zemediaceo. Taungoicoana izuli den Vecatoxean konfe sioaren medios, eta onegii artiburuengar cian Exxmedioa andaceo, eta ar qui propositu fixme egui-induna, tenor iduxiagatik choill fixmea, eta sonuca dela Taungoicoa ez ofendiceko, eta Exxe cibitutuengaraua confesioan er galceko, ezbaditu Exxmedio guradacen.</p> <p>Dendabiko Ematen den Exxmedio a da, Vecatuco oasio gauetic eruditza da dela, nolabaita Iogu gure elatic, lagun</p>

Irugarren erremedioia da, maiz Jaungoicoari escacea oracioaren medios indarra, eta gracia emandezola vecatuaaren contraco, eta emanendio, eta izanendu orlacoac Espiritu Sanduaren consolacioa, eta emanen dio gracia mundu onetako consolu guezurtiac largatu, eta menospreciaceco.

Laugarren erremedioia da leicen daquienac libru deuoturenbazuec leicea, cerengatic arc hisill hisilla erranendir conueniazquin eguiac; an leicendituen eguiac arien arien arguitucodiote entendimentua (9), eta eguiak aiequi veroturic vorondatea gauza onetaraco (10) artuco du afacionea, eta garaituric gaistaquerico (11) inclīoña (12) virtutera emanendu, eta presta egonenda tentatua denean (13) vecatura ari contra eguiteco. Jaquiñic zaude libru ombat dela consejari eguiascoa, eta batre pasioneric gabe emanendizula oneraco videa.

Bosgarren erremedioia da, alferric veñiere ez egotea, veti cerbait gauza on eguiten arizea; cerengatic persona alferra da lur alferra vezala, ezpaitu ematen aranza, sasia, eta maleza vaicic; ala da christio alferrac pensamentu [2at.] gaistoac eguiten baicic eztaqui, eta ibilcen da diabruac burua arturic nondic aiec obratuco dituen. Bota bota zureganic alferqueria beti cerbait lan eguiten duzularic ariman alderat.

(MEN) (i.) ‘poder, sujeción’. *Diabruen sujetio, eta menean*, 3, 2at.

MENDI (i.) ‘monte’. *hurbildu cen mendi saies batera*, 1, 2.

MEREJI (a.) ‘merecer’. *vecatuac merejiduten castigua*, 4, 2at.

- (MEREJIMENTU) (i.) ‘mérito’. *obra onen merejimentua*, 3, 1at.
- MILLA (adj.) ‘mil’. *milla arrazues*, 1, 5.
- MINGAIN (i.) ‘lengua’. *illik huzten du mingain sueltoa hisillac*, 4, 2at.; *mingaña*, 2, 2.
- MODU (i.) ‘modo, forma’. *modu onetan*, 1, 8; *errezu moduac*, 1, 1; *cer legue modua den graciaskoa*, 2, 4at.
- MOTA (i.) ‘clase, género, tipo’. *vecatu mota guciac*, 3, 4at.
- MUNDU (i.) ‘mundo’. *onetaco ondasunac*, 1, 1at.
- MUTIL (i.) ‘joven’. *mutil gaztebatec*, 1, 2.
- (MUTU) (adj.) ‘mudo’. *Diabru mutuac*, 2, 2.

N

- NAI (a.) ‘querer, desear’. *eta veperedrac naizuen gucia janic*, 1, 2at.
- NAIERA (i.) ‘gusto, placer; voluntad, deseo’. *veren naiera, eta gustoa cumpliceagatic*, 3, 1at.; *pasione, eta naiera*, 4, 2at.; *munduco gauzai naiera, edo deseoa*, 3, 4at.
- NAIZ (j.) ‘aunque’. *naiz dela vicia*, 3, 1at.; *naiz... izanagatic*, 2, 4; *naiz sendatu, edo naiz ez*, 2, 4.
- NAPUR (i.) ‘ladrón’. *napur, suguen, eta serpientes lecua*, 3, 2at.
- NAPURRERIA (i.) ‘latrocinio, robo’. *napurreria, luxuria, ordiqueria*, 3, 2at.
- (NASI) (adj.) ‘turbio (?). *aren vecatu nasiac*, 2, 1at.
- NAUSI (i.) ‘amo, dueño’. *Por cierto ezara Nausi gaistoas quadracen!*, 2, 3; *bi nausi difrentatuac*, 4, 4at.
- NEGAR (i.) ‘lloro’. *negar eguitecoa da!*, 1, 3.
- (NEKATU) (a.) ‘cansarse, fatigarse’. *necaturic, eta gogaituric*, 2, 4at.; *alferric necacenda Christo*, 1, 4at.
- (NEKAZARI) (i.) ‘labrador’. *orlaco gauzac eztira necazariari emanac*, 4, 3at.
- NEKE (adj.) ‘difícil, arduo’. *abrasa neque dela salvacea*, 1, 5at.; *neque, eta gaiz iduri bazairu*, 2, 3at.
- NERE (adj.) ‘mi, de mí’. *beti macur dabilza, nere leguea artu nai gabes*, 1, 3; *atozte nere arrastotic*, 1, 4; *bialdu ninduen nere Aita Eternoac zuengana*, 1, 5.
- NI (io.) ‘yo’. *ni guciengatic etorri naiz*, 1, 1at.; *nic*, 1, 4; *aienzat bezala nerezat ere cerua da*, 1, 8at.

NIOR (io.) ‘alguien; persona alguna, nadie’. *Eta nior erorcenbada vecatuan*, 4, 1at.; *beldurric niorc izan eztezan*, 2, 2at.; *niori*, 2, 2at.; *ñiori* (sic *ñ*), 3, 4.

NOIZ (ad.) ‘cuándo’. *Adizazu... noiz den obligacio*, 2, 1.

1 NOLA (j.) ‘como’. *ain gauza maiteac, nola diran emengo... ondasunac*, 1, 1at.

2 NOLA (ad.) ‘cómo’. *galdetucion, nola emanencezaion alimentu pisca bat gendeai*, 1, 2; *Hicusteco nolaco siñestamentua zuten*, 1, 2.

1 NON (ad.) ‘donde’. *Plaza andi artan, non icusico baita*, 2, 3.

2 NON (ad.) ‘dónde’. *ona non dugun*, 1, 2at.; *burua arturic nondic aiec obratuco dituen*, 4, 2at.

1 (NOR) (io.) ‘quién’. *emen bada norc dituen borz ogui*, 1, 2.

2 NOR (io.) ‘quién’. *jaquin cezaten orrequi nor cen*, 1, 3; *eta norc escua emanendizu?*, 4, 1at.

NORA (ad.) ‘a donde’. *eramatendute nora naiduten*, 3, 2at.

(NORBAIT) (io.) ‘alguien’. *norbaiten contra*, 3, 3.

NOSKI (ad.) ‘acaso, tal vez’. *berce legueremba nosqui bada orlacoenzat?*, 4, 3at.

O

(OBE) (adj.) ‘mejor’. *eguiñendut errepidimentu obeagoa*, 1, 8; *obraric obrenac*, 1, 6.

OBEKI (ad.) ‘mejor’. *obequi eguiñen luque*, 1, 1; *obequiego (contu) artuco du mortalees*, 4, 4.

HOGI (i.) ‘pan’. *hogui zerrabat*, 1, 2; *borz oguiaz*, 1, 2at.

OI (ad.) ‘(hábito, costumbre)’. *Gendeac hicilcen oi dira*, 1, 1; *billacen oiduzu Barber, edo Medicua*, 2, 4. *Ik. HISILDU*.

OIEK (io.) ‘esos’. *oiec verequi huduquibeche*, 1, 4at.

(OIN) (i.) ‘pie’. *oñen azpico loia*, 1, 1at.; *oñen gañean*, 4, 1at.

OITURA (i.) ‘costumbre’. *Vecaturaco oitura hora*, 4, 4.

(OIU) (i.) ‘grito’. *egun gucian oius egonagatic*, 2, 2.

(OLAKO) (adj.) ‘tal, de esa clase’. *ezta erraz verce olacoac hizatea*, 1, 2at.; *guc eztugu esaten olacoric*, 1, 4at. *Ik. ORLA*.

ON (ad.) ‘bueno’. *zure seme on au*, 1, 3at.; *onetaco onda... ematea*, 4, 2at.; *emanendizula oneraco videa*, 4, 2.

ONA (ad.) ‘he aquí’. *ona non dugun*, 1, 2at.

(HONDASUN) (i.) ‘bien, bienes’. *consideratugabe... cer ondasun galcenden*, 3, 1at.; *naiz dela vicia, hondasuna, eta honra*, 3, 1at.; *mundu onetaco ondasunac*, 1, 1at.

ONDORE (i.) ‘consecuencia, resultado’. *esperienciac eracusten oi du, cer ondore hizaten duten joate aiec*, 1, 1; *orducoai, eta ondoreco guciei*, 1, 5; *ondoretic seguitu cioten*, 1, 1at.; *onen (Adanen) vecatuaren ondorean*, 1, 7; *lendabician... eta ondorean*, 4, 4at.

ONEK (io.) ‘este’. *Ik. AU.*

ONGI (ad.) ‘bien’. *au gucia ongui da*, 1, 1; *ongui ongui goza zite*, 1, 8.

ONTASUN (i.) ‘bondad’. *vere ontasun infinituagatic*, 1, 7.

ÖÑAZE (i.) ‘dolor’. *oñace, eta dolore zorroza*, 1, 5at.

ORAI (ad.) ‘ahora’. *orai nabilla veldur, eta losa izzulcen*, 2, 2; *oraño ala dago*, 4, 2; *oranic* (sic -n-), 1, 8; *orai atraño* (sic -at-), 3, 4; *oraindraño*, 4, 3at.

(ORDE) (i.) ‘vez, parte, nombre’. *uzci zuen Jesus diuinoac vere ordean*, 2, 3at.

ORDEA (j.) ‘pero, mas’. *Beguire ordea... eguitea*, 4, 4. *Ik. (JARDUKI).*

ORDIKERIA (i.) ‘embriaguez’. *ordiqueria, maldicioa*, 3, 2at.

(HORDU) (i.) ‘hora’. *nic botacen aut nereganic ordugaitsoan*, 4, 3at.; *azqueneco horduan*, 3, 3at.

ORDUAN (ad.) ‘entonces’. *orduan orduan bezala*, 3, 2.

(ORDUKO) (adj.) ‘de entonces’. *orducoesai, eta ondoreco guciei*, 1, 5.

ORI (oi.) ‘ese’. *eguia da ori gucia*, 1, 4at.; *zure lotsa orrec*, 2, 4at.; *orren osasunagatik*, 2, 4; *orregui gucierequi*, 1, 8; *orrengatic dio Dauidec*, 1, 3at.; *zoco ortan*, 2,3; *ortaco etorri naiz*, 1, 4.

(ORIN) (i.) ‘ciervo’. *Naturalezaco Maistruec eracusten digute oriñac nola billacenduen... golpea sendaceco modua*, 2, 3at.

ORLA (ad.) ‘así’. *orla confesacendanac*, 2, 1at.

ORLAKO (ad.) ‘tal, de esa clase’. *ortaco ez joatea obequi eguiñen luque*, 1, 1; *ortaco gaicic... eztiozula emanen*, 3, 3. *Ik. (OLAKO).*

HORO (adj.) ‘cada, todos los’. *gau horo*, 4, 3; *gauoro*, 4, 3; *egun oroco*, 4, 2at. *Ik. EGUNORO.*

OROAT (ad.) ‘igualmente, también’. *oroat murmuracea*, 3, 4.

(OROITU) (a.) ‘acordarse’. *oroituri nola*, 1, 8at.; *oroicea... penas*, 4, 2at.

ORRA (ad.) ‘he ahí, mira’. *orra... eredero eguin zaitugu*, 1, 8.

(HORRAZ) (i.) ‘aguja’. *horrazaren veguitic*, 1, 5at.

ORREK (io.) ‘ese’. *Ik. ORI.*

(ORZILLARE) (i.) ‘viernes’. *Orcillaretan*, 4, 2at.

OSASUN (i.) ‘salud’. *ceruco osasun peregabea*, 2, 3at.; *psasunaco iturrian*, 2, 1.

(OSO) (adj.) ‘pleno, entero’. *vorondate osoarequi*, 1, 7at.

OSOKI (ad.) ‘plenamente, totalmente’. *osoqui vecatuaç confesaceco*, 2, lat.

OTOIZ (i.) ‘oración, súplica’. *Aita Eternoari otoiz eguitea vercacezotela*, 1, 4at.

(OZTASUN) (i.) ‘frialdad, indiferencia’. *oztasuna ematendio*, 4, 4at.

P

PAGU (i.) ‘pago, satisfacción; paga, recompensa’. *pagu sobratua... gure vecatuen zorras*, 1, 7at.; *Jaungoicoaganic pagu ederra*, 4, 2at.

PARATU (a.) ‘poner, colocar’. *erremedioa paratuzuen*, 1, 7; *escusa paracen duela*, 1, 1.

(PARAZALE) (i.) ‘que pone, establece’. *berce legue berribaten parazalea*, 2, 4at.

(PAREGABE)/(PARAGABEKO) (adj.) ‘sin igual, incomparable’. *bai porcierto gauza paregabea*, 1, 1at.; *fiñezza paregabeco oni*, 1, 7at.; *losa paregabeco onetatic*, 2, 3.

(PARTITU) (a.) ‘repartir, distribuir’. *manatucioten Apostoloei... particechetela gente de guciei*, 1, 2at.

(PAUSU) (i.) ‘paso’. *pausuric eman eztezan obra onac eguiteco*, 3, 2at.

PELIGRU (i.) ‘peligro’. *peligru andian dago*, 4, 1at.

PENAGARRI (adj.) ‘doloroso, atormentador’. *barrenean duen su penagarri ori*, 2, 3at.

PENATU (a.) ‘hacer sufrir’. *nola gure araguia penatu beardugun*, 4, 2at.

PISKA (adj.) ‘poco’. *alimentu pisca bat*, 1, 2; *lotxa piscabat*, 2, 4at.

PREDIKU (i.) ‘predicación, sermón’. *predicu, edo Leccioa*, 3, tituluan.

PREMI (i.) ‘necesidad’. *premi hora erremediaceco*, 1, 2; *eztago premian*, 3, 3at. *Ik. PRIMIA.*

PREST (adj.) ‘dispuesto, preparado’. *edocein trabaju, eta penara prest daudenac*, 1, 6at.; *eta presta egonenda*, 4, 2.

(PRESTATU) (a.) ‘disponerse, prepararse’. *atoz ongui prestaturic*, 2, 1.

PRESTU (adj.) ‘noble, honrado, virtuoso’. *Andre noble, honratu, eta prestu bat*, 3, 1.

PRIMIA (i.) ‘necesidad’. *ezagumentu, eta primia duten arc billarazten diote... belarra*, 2, 3at.; *primieric gabe*, 4, 3. *Ik. PREMI.*

(PROBETXUGABE) (adj.) ‘inútil’. *conuersacio prouechugabeac*, 4, 2at.

PUNTU (i.) ‘punto, asunto, materia’. *puntu onen gañean dio...*, 2, 2.

S

SAIES (i.) ‘flanco, ladera’. *hurbildu cen mendi saies batera*, 1, 2.

(SANDU) (adj.) ‘santo’. *legue sandua*, 1, 2at.; *Espiritu Sanduaren gracia*, 3, 1at.

SARRI (ad.) ‘pronto, en breve’. *sarri andietara jocaturopa*, 4, 4; *sarri sarri*, 2, 4.

(SARTU) (a.) ‘entrar’. *eztirela sartuko nere echean*, 1, 3; *errazago da...*, *abrasa ceruan sarcea vaño*, 1, 5at.

(SASI) (i.) ‘zarza, mata’. *aranza, sasia, eta maleza*, 4, 2.

(SEGURANZA) (i.) ‘seguridad’. *Eztuzu seguranzaric*, 4, 1at.

SEI (adj.) ‘seis’. *(anaia) guciec ciren sei*, 1, 8.

SEIGARREN (adj.) ‘sexto’. *seigarren anaia*, 1, 8; *Seisgarrena* (sic *Seis-*), 2, 1at., *okerra nonbait*.

SEKULAKO (ad.; adj.) ‘eternamente; eterno’. *seculaco condenatua hizanen baizara*, 1, 4; *gueldicea seculaco*, 3, 2; *ondasun seculacoac*, 1, 4at.

SEKULAN (ad.) ‘nunca, jamás’. *seculan vecaturic egun ezpalu vezala*, 2, 3.

SEME (i.) ‘hijo’. *vere seme Jesus ona*, 1, 3.

(SENAR) (i.) ‘esposo, marido’. *vere Senarrari lealtadea goardaceagatic*, 3, 1.

SENDATU (a.) ‘sanar’. *vecatuco gaizatic sendatu gabe gueldi daitecen*, 2, 1; *eriac sendaceco paratuzuen*, 2, 1.

(SENDO) (adj.) ‘fuerte’. *alimentu sendoac*, 4, 2at.

SEÑALE (i.) ‘señal, signo’. *señale eman zuen pobrezarena* ‘in signum paupertatis’, 1, 4; *señalezat* ‘in signum’, 1, 4at.

(SERBIZU) (i.) ‘servicio’. *Jaungoicoaren seruizuen*, 1, 8at.

(SIÑESKO) (adj.) ‘sincero’. *Proposuita, bada, siñescoa izanenda*, 3, 3; *propositu firme, eta siñescoarequi*, 3, 4at.

SIÑESKI (ad.) ‘sinceramente, de veras’. *siñesqui izulibearduzu Jaungoicoarengana*, 3, 3.

(SIÑESTAMENTU) (i.) ‘fe’. *hicusi cen... nolaco siñestamentua zuten*, 1, 2at.

SIÑESTATU (ad.) ‘creer, tener fe’. *aieczutzen siñestatu*, 1, 5; *ceren... siñestaturic gauden*, 1, 5.

(SOBRANIETU) (adj.) ‘desordenado (?), excesivo (?). *munduko ondasunetara izanduden deseo sobranietares*, 4, 3.

SU (i.) ‘fuego’. *su fiñic eztuen vra hizalicoda*, 2, 3at.

(SUGE) (i.) ‘culebra, serpiente’. *napur, suguen, eta serpienten lecua*, 3, 2at.

T

TIRAKA (i.) ‘tirón, estirón’. *tiraca guti bearluque lurrera erorceco*, 4, 1at.

(TOKI) (i.) ‘sede, morada’. *celaric... Trinidadearen temploa, edo toquia*, 3, 2at.

TREBE (adj.) ‘osado (?)’, atrevido (?). *Ik.* (ATRIBU).

(TXAR) (adj.) ‘malo’. *errepartimentu charra eguinduzue*, 1, 8; *iz charrac*, 3, 4.

TXARKERIA (i.) ‘maldad, obra mala’. *charqueria gicias*, 4, 1at.

TXIKI (adj.) ‘pequeño’. *vecatu chiqui, edo venialeac*, 4, 3at.

TXOILL (ad.) ‘muy’. *icusizuen Diabrua choil diligenta cibillala*, 2, 2; *choill firmea*, 2, 4at.

(TXUSEN) (adj.) ‘recto’. *Guiari chusena*, 1, 6; *vide chusenetic ibillico da*, 4, 2at.

U

HUDUKI (a.) ‘tener’. *oiec verequi huduquibeche*, 1, 4at. *Ik.* IDUKI.

HUKATU (a.) ‘negar’. *izcic ez essatea, edo hucacea*, 3, 2at.

HUME (i.) ‘hijo’. *Adanen Hume guciac*, 1, 7; *nere humei emandioteden exemplo gaistoes*, 4, 3.

HURA (io.) ‘aquel’. *necesidade hura erremediaceco*, 1, 2; *vra ez eguiteco*, 3, titulu; *arc hisill hisilla erranenditio*, 4, 2; *pena arturic aren joateas*, 1, 1at.; *ari contra eguiteco*, 4, 2; *egun artan*, 2, 3; *despedice artas*, 1, 8; *dembora artacoari*, 1, 3; *arengatic esanditzun gauzas*, 3, 4.

(HURBILDU) (a.) ‘acercarse’. *hurbilducen mendi saies batera*, 1, 2.

HURRE (i.) ‘oro’. *mundu onetako hurre, cillar, eta*, 1, 1at.

URRIKALDU (a.) ‘compadecerse, apiadarse’. *Jaungoicoa vrricalducen*, 1, 7.

(URRIKIMENTU) (i.) ‘arrepentimiento, pesar’. *vrriquimeturicgabe*, 2, 1at.

(HURTE) (i.) ‘año’. *verroguei hurten aldean*, 1, 3.

USTE (i.) ‘opinión, creencia’. *vste badu*, 2, 1at.

HUS (i.) ‘fracaso’. *hus eguinic*, 1, 4.

HUTZI (a.) ‘dejar, abandonar; dejar, permitir’. *naiera gaistoac huzci dechen*, 4, 2at.; *eztegozun huzci joatera*, 1, 2at.; *ocasio peligrosoa vzcgabe*, 2, 1at.; *huzciric ciudadea*, 1, 1at.; *huzten*, 2, 4; *vzten*, 3, 3.

Z

- (ZAIN) (i.) ‘raíz’. *onen (arbolaren) zeñatatic*, 3, 2.
- (ZALDI) (i.) ‘caballo’. *Zaldia, Mandoa*, 1, 3at.
- (ZAR) (adj.) ‘viejo, anciano’. *ez gazteric, eta zarric vereisten dela*, 1, 5at.
- (ZARE) (i.) ‘cesto, canasto’. *zarecho batean cituela borz hogui*, 1, 2.
- ZAURI (i.) ‘herida, llaga’. *Zauri, edo llaga*, 2, 4.
- ZAZPIGARREN (adj.) ‘séptimo’. *Zazpigarren erremedioa*, 4, 2at.
- (ZEAR) (i.) ‘lado, costado’. *cearretic beguiracea*, 3, 2at.
- 1 (ZEIN) (io.) ‘que, el cual’. *ceñec oranic ezagumentu osoric ezpaizuen*, 1, 8; *ceñi*, 1, 3at.; *ceñequi*, 2, 4at.; *ceñetan*, 1, 1at.
- 2 ZEIN (ad.; io.) ‘qué, cuán; cuál; cuán mucho’. *cein ederqui*, 3, 3at.; *cein diran*, 2, 3at.; *cein beguitenarturic dauquen vecatua*, 3, 3.
- ZENBAT (adj.) ‘cuánto’. *cembat placer arcenoida*, 3, 1at.; *eta cembat eguin zuen*, 3, 3.
- (ZENZATU) (a.) ‘volverse cuerdo’. *essan oida eroa edequies cenzacen dela*, 3, 1at.
- (ZENZU) (i.) ‘sentido, juicio’. *cenzuric baduzue*, 3, 1at.
- ZER (io.) ‘qué’. *eracusten oi du, cer ondore hizaten duten joate aiec*, 1, 1; *Cer Jaungoicoaren legue edo, ez legue?*, 1, 4at.; *Cer ceru, eta ango... gozoac?*, 1, 4at.; *certaco bada galdecen diote?*, 1, 2.
- ZERBAIT (io.) ‘algo, algún’. *cerbait gauza on*, 4, 2.
- (ZERBIZATU) (a.) ‘servir’. *bi nausi difrentatuac... ceruizacea*, 4, 4at.
- ZEREN (j.) ‘porque, debido a que; porque, pues’. *ceren joaten cen*, 1, 1; *ceren aniz conueniden*, 2, 2at.
- ZERENGATIK (j.) ‘porque, debido a que; porque, pues’. *cerengatic... esperanza ematen duten*, 1, 6at.; *cerengatic... eztuen bearden bezala escacen*, 2, 2at.
- ZERU (i.) ‘cielo’. *Cer ceru...?*, 1, 4at.; *Maistru cerucoac*, 1, 2at.
- ZERRA (i.) ‘rebanada’. *ogui zerrabat*, 1, 2.
- ZEZTERA (i.) ‘canasto’. *amabi ceztera oguis beteac*, 1, 2at.
- ZILLAR (i.) ‘plata’. *hurre, cillar, eta*, 1, 1at.
- ZOKO (i.) ‘rincón’. *guardachezu vioceco zoco ortan*, 2, 3.
- ZOR (i.) ‘deuda’. *arcenzuelaric... vere gain gure zor gucie*, 1, 7at.
- ZORIONEAN (ad.) ‘en buena hora’. *zorionean etorria dela zure seme on au*, 1, 3at.

ZORZI (adj.) ‘ocho’. *Zorci Bienaventuranza auec*, 1, 6.

ZORZIGARREN (adj.) ‘octavo’. *Zorcigarren erremedioa*, 4, 3.

ZORROZ (adj.) ‘afilado; agudo’. *dardo zorroz ori*, 2, 4; *dolore zorroza ematendion bezala*, 1, 5at.

ZU (io.) ‘tu, vos’. *zu eguiña... baizara*, 1, 3at.; *zuc essan gabe*, 2, 3; *vaña zuri bai guizona*, 1, 3at.; *gaizqui hizanen da zutas*, 1, 4.

ZURE (adj.) ‘tú, de ti, de vos’. *zure concienciac barrenean duen su penagarri ori*, 2, 3at.; *zureac hizenenduten bezala*, 1, 8; *votazazu zureganic*, 2, 3.

ZUEN (adj.) ‘vuestro, de vosotros’. *guizon eguin baininzan zuen ertean visibilea* (sic *-bi-*) *hizateagatic*, 1, 5; *eta zuenac erreprendicen ditut*, 1, 4.

ADIZKITEGIA

A-B

AUT ‘haut’. nic botacen *aut* nereganic ordugaistoan enganazalea? nic (sic -c) ... vitoriarequi atraco nauc, alde batera huzten *haudelaric* costumbre gaisto, eta galgarria? 4, 3at., 1.

BALIRA ‘balira’. *ezpalira*, 4, 4at., 2; *balire*, 1, 2.

BALITU ‘balitu’. *valitu*, 3, 1, 2.

BALIZ ‘balitz’. *ezpaliz*, 4, 4, 2.

BALU ‘balu’. *ezpalu*, 2, 3, 2.

BALUTE ‘balute’. eguiten *balute*, 4, 3, 2.

BEDI ‘bedi’. consideratubedi, 1, 4at.

BETXE ‘bitza’. *huduquibeche*, 1, 4at.

BEZA ‘beza’. *guardabeza*, 1, 4at.

BEZATE ‘bezate’. *esanbezate*, 1, 4at.

BEZO ‘biezaio’. *beguirabezo*, 3, 3at., 1.

D

DA ‘da’. *da*, 1, 1, 1; *den*, 1, 3, 2; *dela*, 2, 1, 2.

DADIN ‘dadin’. *viciadadín*, 3, 2, 1; *escusadadillala* (sic -*llala*), 4, 1, 3; *eztadilla* hizcin, eta lotan sartu, 3, lat., 2.

DAITEKE ‘daiteke’. *esandaiteque*, 1, 5, 1; *ezcin* falta *daitequena*, 3, 2at., 2.

DAITEKEZU ‘dakizuke’. *guertadaitequezu*, 4, lat., 2.

DAITEZEN ‘daitezen’. provecha *daitecen*, 1, lat., 1; condenatudaitecen, 2, 2; allegatu *eztaitecen*, 2, 1, 1.

DAITEZKE ‘daitezke’. *ezcin* bici *daitezquela*, 4, 3at., 1. Ik. 4. testuko 22. oharra.

- DAKION ‘dakion’. ongui eguin *daquiola*, 1, 5at.
- DETXEKE ‘ditzake’. errandechequen, 2, 4at., 2.
- DETXEKETE ‘ditzakete’. aldechequeten ... faltac, 3, 2at., 2.
- DETXEN ‘ditzan’. huzci *dechen*, 4, 2at., 2; ezagutu eztechen, 2, lat.
- DETXETEN ‘ditzaten’. jaquin *decheten*, 2, 3, 3; confesatu eztecheten, 2, 2.
- DEZAGUN ‘dezagun’. ardezagun, 1, 2at., 3.
- DEZAKE ‘dezake’. eman *dezaque*, 4, lat., 1.
- DEZAKEZU ‘dezakezu’. iduqui *dezaquezu*, 4, 4at., 1.
- DEZAN ‘dezan’. señaladezan, 1, 4at.; confesatu eztezan, 2, 2.
- DEZATEN ‘ditzaten’ (sic). hicusi *dezaten*, 1, 1, 1.
- 1 DEZAZUN ‘dezazun’. ezagutu *dezazun*, 1, 3at.
- 2 DEZAZUN ‘diezazun’. eguin *dezazun*, 3, 3, 2; eman eztezazun, 2, 4at., 2.
- DEZOGUN ‘diezaiongune’. eztezogun huzci, 1, 2at., 3.
- DEZOKETE ‘diezaioke’. *dezoque*, 3, 3at., 2.
- DEZON ‘diezaion’. emandezola, 4, 2, 2.
- DEZOTEN ‘diezaien’. varcaddezotela, 1, 5at.
- DIDAZU ‘didazu’. *didazula*, 3, 2, 1.
- DIGU ‘digu’. emanendigu, 1, 8at.
- DIGUTE ‘ditue’. *digute*, 2, 3at.
- DIO ‘dio’. laguncendio, 3, 2, 1.
- DIOT ‘diot’. emandiuden, 4, 3, 2.
- 1 DIOTE ‘diote’. eguin *diote*, 1, 3at.
- 2 DIOTE ‘die’. galdecen *diote*, 1, 2.
- DIOTET ‘diet’. eguin *diotet*, 1, 4, 2; *dioteden*, 4, 3, 2.
- DIOZU ‘diozu’. edequi *badiozu*, 3, 4, 2.
- DIOZUE ‘diezu’ (sic). cer edequi *diozue?*, 2, 2.
- DIRA ‘dira’. *dira*, 1, 1, 1; *diran*, 1, lat., 2; *diren*, 3, 2, 1.
- DITIO ‘dizkio’. erranenditio, 4, 2, 3.
- DITIOZU ‘dizkiozu’. *ditiozun*, 3, 4at., 1.
- DITU ‘ditu’. *ditu*, 2, 3, 2; *dituen*, 1, 2.

DITUE ‘dituzte’. *ditue*, 1, 8at.

DITUGU ‘ditugu’. *ditugu*, 3, 1, 1.

DITUT ‘ditut’. *ditut*, 1, 4, 2; *dituden*, 4, 3, 2; *dituten*, 2, 2at., 2.

DITUTE ‘dituzte’. *ditutetenac*, 1, lat., 2.

DITUZTE ‘dituzte’. *dituztenac*, 1, 6at.

DITUZU ‘dituzu’. *dituzun*, 3, 4, 2.

DITUZUE ‘dituzue’. *dituzue*, 4, 1, 1.

DIZU ‘dizu’. *dizu*, 2, 3, 2.

DIZUET ‘dizuet’. *dizuet*, 1, 4, 2.

DIZUTE ‘dizute’. *dizuten*, 4, 4at., 2.

DIZUTET ‘dizuet’. *dizutet*, 1, 4, 2.

DU ‘du’. *oi du*, 1, 1, 1; *duela*, 1, 1, 1.

DUE ‘dute’. *due*, 3, 3at., 1.

1 DUGU ‘dugu’. *dugu*, 1, 4at.

2 DUGU ‘ditugu’. *esandugun* gaucengatic, 1, 1, 2.

3 DUGU ‘digu’. *gogoac ematenduguna*, 1, 4at, Ik. 1. testuko 33. oharra.

DUT ‘dut’. *dut*, 1, 8; *duden*, 4, 3, 2.

1 DUTE ‘dute’. *dute*, 2, 1, 1.

2 DUTE ‘dituzte’. *padecicendutenac*, 1, 6, 2; *cumplicendutenac*, 1, 6at.

DUZU ‘duzu’. *duzu*, 2, 1, 2.

DUZUE ‘duzue’. *duzue*, 1, 7.

G-L-N-T

GAITEZEN ‘gaitezen’. *gaitecela*, 1, 5at.

GARA ‘gara’. *gara*, 1, 4at.; *garan*, 1, 5, 1; *garala*, 1, 5, 1.

GIÑUZEN ‘gintuen’. *libracenguiñucelaric*, 1, 7at.

LEITEKE ‘liteke’. *leitequen*, 4, lat., 1.

LIRAKE ‘lirateke’. *ez liraque*, 4, 3, 2.

LUKE ‘luke’. *luque*, 1, 1, 1.

LUKETE ‘lukete’. *ez luquete*, 4, 3, 2.

NAIZ ‘naiz’. *naiz*, 1, lat., 1.

NAUK ‘nauk’. *enganatunauc* oraindraño? bada ni izanen *nauc* hire esaia?, 4, 3at., 1; vitoriarequi atraco *nauc*, 4, 3at., 1.

NAZAZUE ‘nazazue’. *siguinazazue* (sic *si-*), 1, 4, 2.

NINDUEN ‘ninduen’. *bialdu ninduen*, 1, 5, 2.

NINDUTEN ‘ninduten’. *huzten nindutela*, 1, 8at.

NINZAN ‘nintzen’. *ninزان*, 2, 2; *ninzala*, 1, 4, 2.

NIOTEN ‘nien’. *edequinioten*, 2, 2.

TIO ‘dizkio’. *eguition* (sic, *-n-* gabe) charqueria gicias, 4, lat., 2.

TIOT ‘dizkiot’. *eguin tioden*, 4, 3, 2.

TUGU ‘ditugu’. *naitugu*, 1, 4at.; *baitugo* (sic *-o*), 2, 4at., 2.

TUT ‘ditut’. *isillcentutela*, 2, 2at., 2.

TUZTE ‘dituzte’. *tuzte*, 2, 3, 3.

TXEZU ‘itzazu’. *guardachezu*, 2, 3, 3; Escusa *chezu*, 4, 4at., 2.

Z

ZAGUN ‘dezagun’. *vitoriazagun*, 1, 2at., 3; *hicusizagun*, 1, 3, 2; *arzagun*, 1, 8at.

ZAIGU ‘zaigu’. *zaigula*, 4, 2at., 3.

ZAIO ‘zaio’. *ezaio*, 2, 1, 1.

ZAIOTE ‘zaie’. *orlacoei ... guertacenzaiote*, 2, 2.

ZAITE ‘zaitez’. *izanzaite*, 2, 4at., 2; *gozazite* (sic *zi-*), 1, 8.

ZAITEN ‘zaitezen’. *izanzaitenarentzat*, 2, 3, 2. Ik. 2. testuko 17. oharra.

ZAITU ‘zaitu’. *zaitu*, 4, 4at., 1.

ZAITU ‘zaitugu’. *eguin zaitugo* (sic *-o*), 1, 8. Ik. TUGU.

ZAIZKIO ‘zaizkio’. *ematenzaizquio*, 4, 1, 1.

ZAIZU ‘zaizu’. *eguiñenzaizu*, 1, 3at.

ZARA ‘zara’. *zara*, 2, 3, 2; *zaran*, 4, lat., 2.

ZARATE ‘zarate’. *hizanenzarate*, 1, 4, 2.

ZAZU ‘ezazu’. *Adizazu*, 2, 1, 2; *Esperazazu*, 4, 2, 1.

ZAZUE ‘ezazue’. *adizazue*, 1, 7; *Hicusazue*, 2, 4at., 2.

ZEDIN ‘zedin’. *jaquin cedin*, 1, 2at., 1.

ZEIZKIDAN ‘zitzaizkidan’. secatuzeizquidan, 2, 2. Gero “zezaizquidan” bihurtua. Ik. 2. testuko 11. oharra.

ZEN ‘zen’. joaten *cen*, 1, 1, 2; *cela*, 1, 2at., 3.

ZETXETEN ‘zitzaten’. pa[r]alcechetela, 1, 2at., 2; eccarcechetela, 1, 2at., 2; particechetela, 1, 2at., 2.

1 ZEZAION ‘zitzaion’. berrituzezaion, 1, 8at.

2 ZEZAION ‘zitzaien’. emanencezaion, 1, 2.

ZEZAIZKIDAN ‘zitzaizkidan’. secatuzezaizquidan, 2, 2. Ik. ZEIZKIDAN.

ZEZAIZKITIOTEN ‘zitzaizkioten’. tocacencezaizquitioten, 1, 8. Ik. 1. testuko 54. oharra “tocacen cezaizqui/tioten”i buruz.

ZEZAN ‘zezan’. padecicezan, 1, 7at.

ZEZATEN ‘zezaten’. esan *cezaten*, 1, 2.

1 ZEZOTEN ‘ziezaioten’. emancezotela, 4, 2, 1.

2 ZEZOTEN ‘ziezaien’. varcacezotela, 1, 4at.

ZIGUN ‘zigun’. emanciguna, 2, 4at., 2.

ZIÑIOTEN ‘zenien’. esanciñioten, 3, 4at., 1.

ZIÑUEN ‘zenuen’. ciñuen, 3, 3, 2.

ZIÑUZEN ‘zenituen’. ciñucenean, 3, 4at., 1.

ZIOETEN ‘zioten’. ihoaracicioeten, 3, 2at., 1.

1 ZION ‘zion’. galdetucion, 1, 2.

2 ZION ‘zioten’. esancion, 1, 8. Ik. 1. testuko 56. oharra.

1 ZIOTEN ‘zioten’. seguitucioten, 1, lat., 2. Ik. ZIOETEN.

2 ZIOTEN ‘zien’. esatencioten, 1, lat., 1.

ZIRAN/ZIREN ‘ziren’. ciran, 3, 2at., 1; cirala, 1, 5, 1; ciren, 2, 4at., 2; cirelaric, 3, 4at., 1.

ZITE ‘zaitez’. gozazite, 1, 8. Ik. ZAITE.

ZITION ‘zizkion’. ofrendatucition, 1, 2at., 2.

ZITUEN ‘zituen’. cituen, 1, 8.

ZITUTEN ‘zituzten’. cituten, 1, lat., 2; citutenean, 2, 4at., 2.

ZITUZTEN ‘zituzten’. cituzten, 1, 4at. eta 8at.

ZUE/ZUEN ‘zuen’. zuen, 1, lat., 2; erran *zue* bezala, 1, 3at. Behin bakerrik aurkitu dugu iraganaldia *-n* gabe eta *zue* da.

ZUTEN ‘zuten’. zuten, 1, 1, 2.

ADIZKI TRINKOAK

A-B

ATOZ ‘zatoz’. *atoz*, 2, 1, 2.

ATOZTE ‘zatozte’. *atozte*, 1, 4, 2.

BALEGO ‘balego’. *balego*, 4, lat., 1.

BALEUDE ‘baleude’. *baleude*, 1, 7.

D

DABIL ‘dabil’. *dabillan*, 1, 6, 1; *dabillanac*, 1, 7.

DABILZA ‘dabiltza’. *baitabilza*, 3, lat., 3; *dabilzan*, 1, 6, 1.

DAGIOTEN ‘degien’. on *daguiotela*, 1, 8. Ik. goiko zerrendan DAKION.

DAGO ‘dago’. *eztago*, 3, 3at., 1; *dagon*, 4, 3, 2; *dagoan*, 3, 4, 1.

DAKARGU ‘dakargu’. *dacargun*, 1, 7.

DAKI ‘daki’. *eztaqui*, 4, 2at., 1; *daquienac*, 4, 2, 3.

DAKIE ‘dakite’. Verac *daquie*, 3, lat., 3.

DAKIGU ‘dakigu’. *badaquigu*, 1, 5, 1.

DAKIZU ‘dakizu’. Cer *daquizu* ...?, 4, lat., 2.

DAKIZUE ‘dakizue’. *Aldaquizue*, 3, 4, 1.

DARIZO ‘deritzo’. Dictamo *darizon* belarra, 2, 4, 1; gaiz bezala *darizo* gauza onei, 4, 4at., 1.

DARRAIO ‘darraio’. *darraiona*, 2, 4, 2.

DAUDE ‘daude’. *ezpadaude*, 4, 3at., 1.

DAUKA ‘dauka’. *daucan*, 3, lat., 1; *daucanac*, 3, 3, 2; *dauquena*, 2, lat. eta 3at.; 3, 3, 1.

DAUKETE ‘daukate’. *eztauq[u]etenac*, 4, 4at., 1.

DAUZKI ‘dauzka’. *dauzquien*, 2, 4, 1.

DIO ‘dio’. *dio*, 1, lat., 2. S. Augustinec *diona*, 2, 3, 2.

DOAZ ‘doaz’. *doacenac*, 1, 1, 1.

DOIE ‘doa’. *doienc*, 4, 3at., 1.

G-N

GAUDE ‘gaude’. *ceren ... gauden*, 1, 5, 1.

GEUNDEN ‘geunden’. *guenden* (sic), 1, 7. N.B. Egia esan, *gueden* dago, eta lehenbiziko —e— gainean marratxo bat, adierazteko *n* bat ipini behar dela.

GOAZ ‘goaz’. *bagoaz*, 1, 8.

GOAZEN ‘goazen, eamus’. *goacen*, 3, 3at., 1.

NABILLA ‘nabil’. *nabilla*, 2, 2; *nabillala*, 1, 3, 1.

NAGO ‘nago’. *nagola*, 3, 2, 1.

NOAIEN ‘noan, eam’. *noaien*, 1, lat., 2.

Z

ZABILZATE ‘zabilzate’. *zabilzatela*, 1, 4, 2.

ZAUDE ‘zaude’. *zaude*, 3, 3, 2.

ZAUDEKE ‘zaudeke’. Jaquiñic *zaudeque*, 2, 2at., 3.

ZEBILLAN ‘zebilen’. *cebillala*, 2, 2; *cibillala* (sic *ci-*), 2, 2.

ZEGON ‘zegoen’. *cegon*, 1, 3, 1; *cegola*, 1, 2.

ZEKIEN ‘zekien’. *Bacequien*, 1, 2.

ZEKITEN ‘zekiten’. *ez cequiten*, 1, 4at.

ZERABILTEN ‘zerabilten’. *cerabilten*, 3, 2at., 1.

ZEUKEN ‘zeukan’. *ceuquelaric*, 1, 3, 2.

ZIOAN ‘zihohan’. *cioalaric*, 1, 2. Beste hau ere: *hicusiric baciola* (sic *-ola*), 1, lat., 2.

ZOAZ ‘zoaz’. *zoacenean*, 3, 3, 2.

IZTUETAREN *GUIPUZCOACO CONDAIRA-REN* INGURUAN

Donostia, 1993-II-26

Jose Garmendia Arruebarrena

AURKIBIDEA

1. Pentsio baten obligazioa.
2. Argitalpena.
3. Gure asmoa.
4. Esku-idaztiaren azalpena.
5. Bi hitzaurre.
6. Bilboko hitzaurrea.
7. *Condaira*-ren azterketa.
8. Bachiller Zaldivia-ren *Kondaira* Iztueta-nean.
9. Iztueta-k dakartzan idazleak.
10. Zeintzuk idazle kopiatzen dituen.
11. Gipuzkoako herriko seme ospetsuak.
12. Zamakola Iztueta-n.
13. *Condaira*-ren balioa.
14. Iztueta bere tokian.
15. Bibliografia.

1. Pentsio baten obligazioa

Gipuzkoako Kondairari buruz euskaraz idatzitako lehenengo liburua, hau da Iztuetak idatzitako *Guipuzcoaco Condaira*-k ez du izan orain arte, estimazio haundirik. Zergatik? Iztueta bera hil ondoren argitaratu zelako? Ditekena da. Izan ere, Iztueta 1845.urtean hil zen, eta bere liburua 1847, bi urte gerogoa, argitaratu zen. Iztuetak lortu zuen Aldunditik 1840. urtean pentsio bat bere bizitza guztirako: sei errealdun eguneko.

Diru honen truke, Iztuetak Aldundiari eman behar zizkion Dantzari buruz idatzitako liburua, ta gainera Gipuzkoako kondairari ta ohiturei buruz idatziko zuen guztia. Hala Gipuzkoako kondaira joan zen Aldundiaria eta bertan gordea egon zen, harik eta argitaratu zuten arte.

Aidanez, Koldo Mitxelenak Iztuetaren Aldundiarekiko obligazio honen berri etzekien, ba berak esaten du:

“el texto de *Condaira*, cuyo original no se sabe al parecer dónde fué a parar, merecería un repaso, ya que la edición es claramente imperfecta: así, en la p. 258 *Marco Aurelio y Cleopatra* están convertidos en *Mario A y Elio Patra*, etc. Compárense —añade— las diferencias que se observan entre el texto original de la carta-prólogo de Larramendi a Mendiburu y el trozo copiado en *Condaira*: junto a retoques imputables a Iztueta, faltan algunas palabras indispensables y hay otras erratas. Por otra parte, la “página final del primer manuscrito de Historia de Guipúzcoa, cuyo facsímil da Garmendia no coincide más que en líneas generales con lo que se imprimió en 1847.”(1)

“Iztueta, testigo político da su época”, hortik atera ditut hitz horiek. Lan honekin parte hartu zuen Mitxelenak Bordeleko Unibertsitateko batzar batean gure Haritschelhar jaunak antolatu o eratua. Gaia liburuan argitaratu ziren 1978. urtean. Nik eskainita, Mitxelenak bidali zizkidan Salamanca-tik, bi urte aurrez 1976-X-26 (2). Geroago berrituko ditugu aipamen batzuk Mitxelena-ren iritziea buruz.

Aspaldidanik zetorren Iztueta bere idatzi hori burutzen eta antzinatik zeukan idazteko asmoa. Hala Bergara-tik 1829. urtean Santiago de Unceta, diputatuak, esaten dio: “Ya ve Ud. que no todos piensan como

(1) Ikusi Université de Bordeaux III. Institut d'Etudes Ibériques et Ibero-Américaines. Euskaltzaindia (Académie de la langue basque). *Euskal Herria (1789-1850) Actes du Colloque International D'Etudes Basques* (Bordeaux 3-5 mai 1976). Société des amis du Musée Basque. Bayonne, 1978. Mitxelenaren lana “Iztueta, testigo político de su época” azaltzen da 167-179 orrialdietan. Nire aspaldiko bihotzeko lagunek Hasparren-dik bialduak. Mila esker, Joseph Zubalo jaunari.

(2) Baita ere gutun interesgarria.

fray Bartolo, con que anímese Ud. decir más y más de nuestra Euskera y del genio, usos y costumbres de los antiguos auskaldunes..." (3).

1824. urtean, *Dantza liburua* argitaratu zuanean, Iztueta jotzen zuten "jakinsuenetako bat bezala gai ortan erderaztik euskerara itzultzen trebetzat". Hala zioen Ramón de Guerecak Zarauz-tik 1826. urtean (4).

1840. urtean, beste aitormen bat egiten du Agustín Pascual Iturriaga-k. Dokumentu hori aurkitu leike "Registros de las Juntas Generales de Guipuzcoa celebradas en Cestona". Bertan aipatzen da Iztueta-ri eman-dako pentsioa bere bizitza guztirako. "La reclamación de no haber cobrado seis meses en 1834 por obstáculos de guerra —se dice— ha sido objeto de un examen especial y se ilustró con un informe que D. Agustín de Iturriaga en 19 de julio de 1839 dió a la Diputación Provincial de que era vocal, y cuyas conclusiones adoptó dicha Corporación en decreto de 2 de agosto del mismo año, rechazando la reclamación". Geroxego irakurtzen dugu: "Con este motivo la representaciónn de la villa de Azpeitia puso en consideración de la Junta que en las circunstancias actuales convendría mucho estimular el celo de todos aquellos que quisiesen ocuparse en describir el carácter y uso de los Vascongados para que de este modo se hiciesen públicas las excelencias de este país: que teniendo noticia de que el guipuzcoano D. Juan Ignacio de Iztueta se ocupa hace tiempo en escribir una obra de esta naturaleza, desearía que se le consignase una pensión vitalicia, que le sirviese de incentivo para la conclusión de dicha obra y de premio para la que anteriormente tiene publicada sobre las danzas y canciones antiguas del pais. La Junta tomó en consideración y acogió con su acostumbrada benevolencia la precendente exposición, y en su vista, teniendo presentes los méritos contraídos por el referido D. Juan Ignacio de Iztueta, acordó señalarle una pensión vitalicia de seis reales diarios, a condición de que a su muerte habían de quedar como propiedad de esta Provincia, tanto la obra que anteriormente tiene escrita sobre los bailes y canciones antiguas del País, como cualquiera otra que publique o deje escrita sobre el carácter, usos y costumbres del País". (5)

(3) Ikus *Obras inéditas de Iztueta*, José Garmendia Arruebarrena, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968, 139.or. Unceta-ren gutunak bost gutunak bertan: 132-138.orr.

(4) XII-21.ean bertan. Ikusi Lecluse-n gutunak 1826. urtekoak.

(5) Ikus 112. ta 113.orr.

2. Argitalpena

Burura datorkigun lehenengo galdera hau da: Nork hartu zituen argitaratzeko lanak? Bere oso lagun zen esan ohi da Agustín Pascual Iturriagak hartu zituela. Honek, dudarik gabe, irakurri zuen liburua, zerbait erantsi ere bai, orri batzuk kendu ere bai; gero ikusiko dugu.

Guk esango genuke Aldundiko idazkari zen Ramón de Guereca-k parte haundia hartu zuela. Honek, manuskritoaren hitzaurrearen ondoren, orri batean jartzen du ohar horrekin:

“Don Juan Ignacio de Iztueta murió el día 18 de agosto de 1845, siendo de edad de 78 años y escribió esta obra en los tres últimos de su vida, teniendo temblorosa la mano, como se deja conocer por la misma forma de la letra”. Tolosa, 31 de diciembre de 1847. Ramón de Guereca. (6)

Ez dakigu liburuaren zenbat ale argitaratu ziren. Bakar-bakarrik *Registro de Juntas Generales* 1848. urtean berri hauet arkitu ditugu: “A Don Ignacio Ramón Baroja por el coste de papel e impresión de la obra de la Historia de la Provincia de Guipúzcoa que el difunto D. Juan Ignacio Iztueta dejó escrita en vascuence = 3.000 rs.”. Beste aipamen bat ere badago: “Al Sr. Diputado General adjunto en ejercicio D. Melitón Ramery por el coste que tuvo la encuadernación hecha en Bayona de dos ejemplares de la Historia de Guipúzcoa escrita en vascuence por D. Ignacio Iztueta = 53 rs., 8 v.” (7)

Iztueta-ren jaiotzaren bigarren ehungarren urtea ospatu zenean, 1967. urtean, oso ale gutxi bilatzen ziren. La Gran Enciclopedia Vasca-k argitaratu zuen Bilbo-n 1975. urtean facsimil bat, erdarara itzuliz eta Jose Lasa Apalategi-ren hitzaurrearekin.

3. Gure asmoa

Alderdi askotatik begiratu behar zaio idazti honi. Hasteko, Iztueta-k idatzitako manuskritotik, gero argitaratu zirenekin egin ziren alderdi edo diferentziak. Ikasketa bat hitzaurreari. Garrantzi haundikoa da nondik jaso zituen Iztuetak-k bere liburuko gaiak jakitea. Hauxe da, gainera, jakingarriena. Eta azkenik, komeniko litzatekeela argitaratze kritiko bat egitea, bere ohar eta guzti, Iztueta-ren liburuarena.

(6) Aldundi eta Biltzarren idazkaria 35 urte gehiagotan ezana ia 1850 arte. “Guipuzcoako Condaira-ri idazkiorri ohar bat ipini zion eta geroago hitzaurrea Lardizaba-len *Eusko-Gramatikari*. Tolosa-ko Artxibo orokorrean azaltzen da bere izena idazki askotan Aldundiari zor zikaizkion zirela eta, adibidez, Aldundiak eta Oñatiako herriek beren Gipuzkoako elkartasunerako egin zituzten itunean.

(7) Ikusi esan diren “Registros”-tan sarrerak eta irteerak 1847-VI-2-tik 1848 V-31 arte.

4. Esku idaztiaren azalpena

149 orri ditu (koartilla tipokoak) CF 89 seinalearekin izenpetua. Bera da 1845. urteko abuztuaren 21ean egin zen inbentario-ko liburuetan, eta honela dio:

“Doscientas noventa y seis en 4.^º completas, escritas por el finado D. Juan Ignacio de Iztueta y otra hoja principiada en describir el carácter y usos de los vascongados, cuya obra, con la que tiene escrita sobre los bailes y canciones antiguas del País, según el acuerdo celebrado al tiempo de la concesión de la pensión vitalicia de los seis reales diarios debe quedarse como propiedad de esta provincia...”.

Orria luzeran 22 zmt, zabalera 14'5. Azkeneko hiru orriak falta dira. Orri horietan ez dira aipatzen Zarauzko, Zumarragako eta Zumaiako seme ospetsuak. Zazpi errenkada bakarrik ekartzen ditu Zaldibia bere herriari buruz. Hitzaurreak sei orri betetzen ditu. Bat eta beste orri guztiak 292 folio izango ziren. Azal soil batekin, kanpotik izkirik gabe. Orriren bat falta bazaio, badaramatzat bertso luzea batzuk ahuntzaldeei buruz, Iztueta-ren manuskritoan ez datozenak.

Iztueta-k ez du azenturik erabiltzen. Aita Larramendi'ren *Diccionario Trilingüe-ri* jarraitzen dio. Orri bakoitzaren azpiko aldean, lerro baten, azpitik jartzen ditu euskarazko hitzak, erdarara itzuliz. Argitaturiko liburuau, oharra eztira ageri orri bakoitzean, bukaeran baizik, “lexiko” bat bezala.

Zergatik egin ote zen horrela? —Baliteke, askotan hitz berdinak azaltzen direlako eta inprintaren erraztasunerako.

Ikusi dazagun zehatzago esandakoa.

Iztuetaren liburuaren 55.or. (argitaratuaren 188.or.) harriturik esan da gero:

“¡Guipuzcoak beredim bat arto eta gari badu!”, idazten du: “Provincia onetako auntzen bicitza eta eriotza azaldutzeko neucan asmo egiña; bañan lanbide au batzubentzat dalako txit gozoa eta besteentzat dalako guztiz samiña, lagatzen det bere oñean ishill-ishilla”.

Esaera hauek ez dato argitaratutako liburuau; bai ordea ahuntzei buruzko estrofak (lehenengoan azaltzen ez direnak).

Estrofa horiek datoaz 188.or. (3 lerro), 189, 190 eta 191.or. (5 lerro bakarrik) Tolosa'ko “Archivo General de Guipuzcoa”-dalako horretan ikus liteke, urte haietan (1826-1844) zebilen eztabaidea ahuntzaren alde eta aurka. Horrela, azaltzen da getariar bat, Joaquin Maria de Berroeta Aldamar. Honek ekarri zituen Paris-tik Tibet-ko ahuntz batzuk,

hemengoen arraza hobetzeko. 1827. urtean azaltzen da Aldundiaren agindu bat, ahuntzak hiltzeko agintzen duena. Beste batzuetan, baimena emanez ahuntzak edukitzeko; eta baita ere ahuntzak akabatzeko (1844). (8)

Iztueta-k etzuen nahi izan, ez alde batera ez bestera jo. Agustin Pascual Iturriaga izango zen seguru asko liburuan azaltzea nahi izan zuena.

Hirugarren zatiko XVII. aburuan (519-525.orr.) kontatzen zaizkigunean frantsesen eta gipuzkoarren artean zeuzkaten hasarreak eta burrukak, ikusten ditugu ezberdintasun batzuk eta baita ere gertakizun bat ixildu egiten duela.

Inprimitu liburuan esaten da:

“Guipuzcoatarrak francesequin cenbat... (manuskritoaren 321.or. ‘hiru aldiz’, inprimatu du ‘lehenengo disida’ ez da ahaltsu...”

Monsieur Chanfarron jaun aundia, Irun aranzun datza illic ezarria”.

Gero manuskritoak “Iru agleandara illa” falta da hirugarren disida, batez ere gertakin bat Iztuetak hartzen duena Zaldibia XIX: “Un hijo del Solar de Améqueta, habiendo tratado casarse con hija y heredera del Palacio de Semper, que es en Labort, nunca quiso efectuar el casamiento a menos que primero vengase la muerte de su suegro, padre de la esposa a quien el Sr. de Urtubia mató a tuerto y para capturarle, le buscó en su tierra y le desafió e hizo armas con él y le venció y mató y llevó su cabeza a la esposa en arras, cosa ejemplar para los que mal matan a otros”.

Iztuetak idazten du manuskritoan: “Dempara bezperean egun izan ceban beste guipuzcoatar batec Franciako Lurrean bertaco echec jaun andi batequin pelea gogoz bat alcar disidaturic. Modu onetan Amezketa deitzen zaion Guipuzcoaco eche purubeco seme nagusia arquitzenan ezkontzeko itza ta eskua emanik, Franciako erri Semperecoen cegoen Jaureguico alaba eta Jabeari; ceñaren aita ondraduari bicia quendu izan ción Urtubia-co Jaunac salduqueriaz ya oquerca. Amezquetaco seme galai onore andico onecnet zeban escondu nai izan, alic eta bere emaztegaiaren aitari bide bague emandako eriotza itsusia ordaindu cezan arteraño. Beragaitic joan izan citzañon Urtubia-co jaunari bere atarira, eta guiza bidez disidaturic Jarri- erazo ceban armaturic peleat zera berarequin; bai ta garaitu eta bertan bota ere illozotric arin asqui; eta oen burua eraman cion ezcontzeco itza utzen (a) i (?) ceuban; Sempereco Jaureguico alaba ta Jabe maite maitatiari esaten ciolaric, ona emen non

(8) Ikusi leg. 179, bigarren zatian.

dardan (amodiozco naita = borrado con una linea) biotzaren erdi erdiko mamitic zureganaco daudan amodiozco maitasun iracequiaren sinitsgarri zure aita onari alduqueriaz ta oquerca bicia quendu izan cion Urtubia-co Jaun ta Jabearen burua; ceña zure beguiaren aurrean ifini (cent = borrado) artian laquieta zunic etzegoen nere barruan”.

Gero datozen estrofa hauek liburuan —inprimatuak— azaltzen ez direnak:

Amezquetaco seme prestuaren griña
Izandu zalaco ain leiala ta piña
Urtubiaco Jauna lagaturik illa
Escontza izanduzan maitaro eguiña.

Hirugarren zatiko laugarren aburuan, aipatzen ditu noiz eta nola hasi zen lurraren lanketa, eta horretarako erabiltzen zituzten tresnen izenak... esaten da *al nuben*. Mitxelenak esaten du *al na-ban* izango dela eta arrazoia dauka. Manuskritoan esaten da *al ne-ban*.

Mitxelenak esaten duena Mario Antonio eta Elio Patra, izan beharrez Marco Antonio eta Cleópatra, Iztueta-ren manuskrito-an idazten du inprimitua dagoen bezala. Esan beharra dago, orduan inprimitzaileak ondo gauzak egiten zituela, gaur baino hobetoago. Lan baten niri ipini didate: “*Cazadores vascos a Indias en el siglo XVII*”; *Cargadores vascos...* ordez.

Hirugarren zatiko VI. aburuan (orr. 242) “andia dutenac”/gero azaltzen dira bi errenkada borratuta manuskrito-an, gero 244.or. bezela “galai-gazteren bat”. Aburu bertan (268.or.), manuskrito-an *Lartaungo* eta *Lartaunen* azaltzen dira azpimarratuta edo indartuta. 269.or *Rege-n* partez dau *Reje*.

Gauza hau bukatzeko esan dezagun, horiek direla bilatzen diren ezberditasunak manuskrito eta liburu inprimituarekin; hirugarren aburuan lehenengo zatian manuskritoan esaten duela *Españaren icena gozoa*, ta inprimituan bakarrik *España-ren icena*. Baita ere “Noitzic, nondic eta noracoa”, manuskritoan *noralacoa*. Lerro batzuk gero, “oroitezcarrizco”, manuskritoan “oricercarrico”.

5. Hitzaurrea

Iztueta langile porrokatua zen, gauzak ondo egiten maite zuena. Hara zer esaten dion eskutitz batean, 1828. urtean; Pablo Ulibarri-ri: “Sinistatu bear nazu berroguei egun igaroetan ez dezana izan lo pizca bat eguiteco dui bat asti ere, cergatic izan deran eracutzi bearra 50 Ezpata dantzari-reguin, 25 motil gastechori anciñaco canta urritarac...

“Eta jarraitzen du: ‘Oizaz gañera izan det gauric gucienac galdu biarra euzcarazco itz neurtu eta beste itzquida anitz eguiten’.

Badakigu eta ezagutzen ditugu bi hitzaurreak Iztueta-k egin zituenak *Dantzako liburuarentzat* (9). Hori bera egin zuen *Guipuzcoako Condairarentzat*.

Arrazoi haundiarekin esaten du Mitxelena jaunak hitzaurrean falta direla hitz beharrekoak Larramendi-k 1747.ean Mendiburu-ri egin zion gutuneko hitzaurrean. Ohar honen aurretik ikusten dugu manuskritoan *opo orpo-ren* ordez eta *izkribu*, inprimituan *t* delakoarekin.

Lehenengo aurrena kopiatuko dugu Larramendiren testua (10), eta beraren barruan Iztuetak hitzaurrean dauden desberdinak eta diferentziak. Larramendik honela dio: “Escriturac nombait diona da ‘aurcho ogui esqué ceuden, ta etzan norc pusca cizaten’ azpimarratuta; ez Iztuetarenean; *ta* orain (Iztueta-k ez du ipintzen *ta*) ere auxé berá esán dezaquegu Euskalerriarentzat (Iztuetarenean berriz “orain bere esan dezaquegu, bada auishen berpera euskalerrientzaco”. “Bada Jaincoarén itzaren ogua chiquitu báqueaz, sequereác igártuac bezala goseác hilcen daude ascó ta ascó” (Bi errenkada hauek ez daude Iztuetarenean eta horregatik ez da Iztueta-ren testua ulertzen ondo).

“Ordea cer da ansi enzule guéyena erausi hurá aditzen ezpadute?”. Iztuetak berriz “cer da ansi ordea baldin entzuleric gueienac eraus ura aditzen ezpadute?”.

“Sinisterazó nai digute —idazten du Larramendi-k-adizen dala Gaztelania, are ikasi ez dutenen artean” Iztueta-k berriz: “Sinisterazi nai digute aditzen dala gaztelania” *are Iztueta-n ere*. Geroxego “provechuric gábea”, Iztuetan baguea”. *Edosqui*, Iztuetan “*edosquitu*”. “*Quinequien*” falta da Iztuetan. “Daquiten pisca arequin, hitz molcho, escunen baten diña eztan...”; Iztuetarenean berriz “itz molcho escumen baten diña ezdanarequin nola ecin adierazi ezdanarequin...”, “*Dela*”, *dala* Iztuetarenean, eta abar eta abar. “Achurlarien ta necazarien” achurlari ta necatzallen Iztuetarenean. “Gure izcuntza ederra”, gure euskara ederra Iztuetan. “Hizjario motel charr oyec”, “itz jario erausle motel char oec”, Iztuetarenean. Hauek dira desberdin batzuk Larramendiren testuarekin.

(9) Ikusi “Una dedicatoria inédita de Guipuzcoa-co Dantza...” *BAP*, XXXIII. 3. eta 4. kuadernotan, 545-549.orr., Donostia, 1977.

(10) Ikusi *Autobiografía y otros escritos*. Edizio, sarrera, oharrak argibideak José Ig.^o Tellecheak eginak. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A. 1973, 278-279. orr.

6. Bilboko hitzaurrea

Horrelaxe deituko diogu. Horrelaxe agertzen baita Iztueta'ren hirugarren emaztearen ondorengoeik (Perez Yarza Bajineta sendiak) dauzkan dokumentu eta idatzietan.

Familia honek daukan liburua, zenbaki honekin azaltzen da indizean: 4 eta ondoren dakar argitasun hau: "estudio o parecer del señor Iztueta, escrito en bascuence, sobre la necesidad de conservar el idioma Bascongado, si es que se quieren conservar los Fueros en estas Provincias". Bes-te dokumentu bat ere badago n. 13-kin "Notas escritas en vascuence y castellano por el Sr. Iztueta sobre la guerra de España contra Francia y Alemania". Honek Iztuetak idatzita eta *Guipuzcoaco Condairan* daude. Lehen da hitzaurrea eta beste hirugarren zatiko 14 eta 15 aburuko-ak.

Azter dezagun hitzaurre hau:

14 orri dituen liburuxka bat da. Bere tamainua, Gipuzkoako Aldundian dagoen *Guipuzcoaco Condaira* manuskritoaren berdina. Honek esan nahi du "borradore" bat dela, esateko era ezberdinekin.

Iztueta gehiago saiatu zen hizkuntzan, kondairan baino. Etxan histori-gilea, eta ezin eskatu historigile izatea. Horretarako etzituen izan ez libururik ezta ikasketarik ere. Bain... nola esaten dituen gauzak!

Ahalegin hau askotan azaltzen zaio, bai bertsoetan, baita prosan.

Eta hementxe dago gauzarik interesgarriena: Egiaztatzea bi liburuak, mamiz, berdinak direla, nahiz eta alderdi batzuk aurkitu, esateko era gehiago, esandakoetan baino.

Seguru asko, 1847.an argitaratutako idaztia, bera hil eta bi urte geroago, bigarren idaztia da eta beste hau, berriz, lehena.

Has gaitezen lehen testu imprimitorrekin eta gero Bilbo-ko hitzaurrearekin.

"Guipuzcoatar nere anaia maite leialac" (Bilbokon: "Guipuzcoatar prestu leial arguiac"); "mundu osoac badaqui" (Bilbok "mundu osoac badaquibada"); "lendabici" (B. "aurrenengo"); "burutzari doatsu" (B. "maitagarri"); "itzcun ederra" (B. "itzcuntz eder jaquintsua"); "behere adoratu ezdezutenac" (B. "gurtu ezdezutenac"); "gañeco oec eguiazcontzat guizon jaquintsuai beguien aurrean ifintzeco" (B. "obec"); "Ecin naiquidatu guentzaque arguibide zucenagoric eta indar andiagoric nola dan, gueuren echapean" (B. "Guipuzcoartarrac... Eusquera garbia baño arguibide zucenagoric eta indar andiagoric").

"Itzquera utsunerik bagueco onec España guztico mendi, ibai, aintearia, Erri ta beste toqui ezagugarria jarritaco icen egoqui beren berenquiac

adiretzen dute arguiroqui, bera bacar bacarric dala Erresuma andi onetara lendabici aguertu izan zana...” / B. “Anciña anciñaco eta are lendabico eterquien itzquera gozo utsunerik bagueco au, norc eta non ta ceren bidez irozotua izan dan jaquiteco, beguiratzea asqui da berari, eta Guipuzcoako orube garbian sortutaco sustrai pin sendoac ugari ematen dituzten erro mardul indartsuai, ceintzubetan icusten diraden arguiro, mundu guztiac guticiatzen dituen on gogoangarri anitz eta baliosoaoc chit”).

“Eguia ciertoro au on-eguitea da izan alditequean gauzaric erracena chori buru puztu ascoc uste ez badute ere”, lo que no se dice en el de B., y sí “Buru ezbezialoco doain maitagarri oec goratzen ditugu bada Guipuztoarrac, Tubal dosuaren odol garbicoac izanic, berac ecarritaco izcuntz ederra eta onetsiac zucenqui ta osotoro gordetzen ditugulaco. Eguia garbiro au on eguitea baño gauza errezagoric ezda. Ara nola, cerez bidez ta itz guchian”.

“Nor ucatu bear du, bada, Euskara Guipuzcoan irozotu ez dala” (B. “Nor izango da bada ucatuko debana Euscara Guipuzcoan gordea izan ezdala...”) “Guipuzcoatarrac dirala” (B. “guipuzcoatarrac guerade-la”). “Lenengo” (B. “lendabiczico”).

“Provincia onetaco mugapeac” (B. “Guipuzcoaco mugape apur onen zatiric guientsua, arcaiz tartez josia bada ere, gai guz-tietara da berez Izaquiac ondo doaindua gauza baliose ascorequin”) impreson “... bertako jaiotarrentzat ifion ere ez da bera dan baiño bicilecu leunagoric, gozacotsuagoric, jostalluagoric eta maitaroagoric”. Eta segitzen du “Cerequin ordaintzen dirade, bada, mendi chinchur oec berenez ematen dituzten lore indartsu urgariac, ezcur mamitsu gozoac, aitz irme ezadetsuac beren errai garbietatic oparo ishurten dituzten iturri guezagozo osasunguilleac...” B. “Esanal guztiengan gañecoac dirade bada, mendi goitiu oec uda ta negu gau ta egun beñiere aspertu bague ematen dituzten ondasun maitagarriac. Cerequin ordaintzen dira bada, arcaitz sendo oec beran errai garbietatic oparo ishurten dizquiguten iturri gueza gozo osasunguilleac; oetatic eguiñeratzen diran erreca ta ibai andi arrain gozanosadetsuz beteac; guizonaren laguntzaric bague berenez ematen dituzten berar sendagarri bazca ugari, arri pin, menasta balioso, zuaitz galant ezcur ioridun anitz eta beste onelaco gauza on asco doaric arten ditugunac? Mesede andi oec guztiac eta arc guiago eguiten dizquigute bada, zorionean sortutaco mendi goititu ongulletso oec; cein bere lecu egoquietan ezarriac ifinico dizquitzutedan bezala”.

Hemendik aurrera, Bilbo-ko Idatzia, nahiz berdina izan bere muiñeán bestearekin, desbideratu egiten da, eta ez gutxi, beste idatzitik.

Horrela, idatzi honetan aipatzen dira Probintzia honetara etorri izan zirela: feniziarak, cartago-tarrak, erromatarrak, godoarrak, arabiarak, t.a. Bilbo-koak, berriz, ez ditu aipatu ere egiten.

5.or. hasi eta 12garreneraino, alderdi haundiak azaltzen ditu Bilbo 5. or.-ko idazti honek beste idaztiarekin.

Bilbokoak ez du aipatzen, ez bere adinik, ez bere ezjakintasunik liburuei buruz, ezta ere ez ditu aipatzen euskaraz ez dakiten irakasleak, ezta irakasle horiek nola zigortzen zituzten beren ikasleak, euskarazko hitzen bat, uste gabe, esaten ba zuten.

Baita ere, moztu egiten du (11 bat lerro) Aita Larramendi-ren testu bat. Ezta ere ez dakar orain irakurriko dugun hau:

“Ah gure Aita on Larramendi Larramendi. Bozt onelaco egua esa-nic joan ciñan emendi”. Ez da ere esaten euskararen etorkizuna Fuero-kin erantsita dagoela. Diferentziak dira hitzaurreko estrofak liburu inpri-mituau eta Bilbo-ko manuskritoan. Honek honela dio:

“Guipuzcoatar prestu arguiac
Ona emen Euscaraz jarriac:
Zuen guraso maitagarriac,
Eguindaco azaña andiac”.

“Iracurri betaz
Enrike Zubiri «Manezaundi» (1867-1943) idazlari eta pintore luzai-dearrak beti **Iruñe** ibiltzen du. Bere artikuluen artean (90) “**Iruñeko itzulia**”, “**Iruñe zahar eta berri**”, “**Iruñetik**”, eta “**Iruñeko berriak**” izenekoak aipa daitezke. Aurkitzen ditugun beste lekukotasun batzuk hauek dira:

“**Iruñerat** heltzean haren igurikan zagon hemen bizi den herritar bat, eta eremaiten du Battitta soldadotegirat,...” (91).

“...biharamunetik aitzina eremaiten ditu **Iruñe** bazterretako sorhopil zabal bathetarat eta denak ibilarazten lerro luzian,...” (92).

“Bazter guzietan badakite zer aiphu haundia dien Ortzirale Sainduz **Iruñen** egiten den prosesoina” (93).

“Duela hogoi urthe **Iruñeko** hiriak hogoita hamar mila arima zituen” (94).

(83) *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak.* (I Euskal gaiak), Elkar, Donostia, 1984, 51.or. Autore honen hizkeran ez dago bokal-armoniaren aztarnarik.

(84) Id., 53.or.

(85) Id., 124.or.

(86) Id., 200.or.

(87) Id., 212.or.

(88) Id., 236.or.

(89) Id., 340.or.

(90) *Artikulu bilduma*, Euskal Editoreen Elkartea, Bilbo, 1990. Idazle honen hizkeran ez dago bokal-armoniariak.

(91) “Battittaren soldadogoa”, op. cit., 37.or.

(92) Id., 38.or.

(93) “Ehortze saindua”, op. cit., 59.or.

(94) “Yende arrotza”, op. cit., 223.or.

Autore honen arabera Iruñekoak **Iruñarrak** dira:

“Eta Naparroan, hain eskuara ederra izanik ere, **Iruñarrak** ari dira gipuzkoarraren ikasten!” (95).

“Ba... bainan **Iruñarrak** gipuzkoarra ikhasten, eta nahiz, goitiago erraten dugun bezala, erdia ere ez dugun ulertzen,...” (96).

R. M.^a Azkuek **Iruña** darabil:

“Igaz irureun urte argitaratu zan **Iruñan** liburu eder bat,...” (97).

Nicolás Ormaetxea “Orixé”-k (1888-1961) honako lekukotasun hauek ditu:

“Agertu bat aurrena Irutasunari; / urenya, Gudari dun Goi-aingeruari; / Meza-aurreti, inguruan ba dute ekuskari; / Aralar ez arontza Sakana da ageri, / Ziordi’ti **Iruña’ra** makiñabat erri” (98).

“**Iruña’k** ez nai; ez Naparroa’k / negar-egunik igaro, / zedila aientzat, eskatu zuten, / zigor ua biguiñago...” (99).

“Gezurra. Txango artan ikusi nennenan Martzillako azukreola geldi. Erriberan lanik ez... Orregatik eskeñi zienean Cubatar ezpain-aundi arek - arek sortuazi baitzun guda **Iruñako** emakume audi katolikuekin- ...” (100).

“Orduntxе **Iruñako** Apezpikuak: «Ez ixuri aurrera errugabeen odolik!» Itsuskeri orrek oso beltzaturik utzi yun Naparroa” (101).

“San Cristobalen nengonan, **Iruñan**” (102).

“Españian bi uririk lizunenak bai al dakin zeintzuk esaten zituten? **Iruña** ta Salamanka, Buruxkila zegoanekoa. Naparroa gudak gaiztoago egin yun Errepublikak baño” (103).

Nafarroako hiriburuaren izenaren inguruko lan interesgarri baten egilea den Iraizozko Polikarpo idazle nafarrak (104) **Iruñeko**, **Iruñan** eta **Iruñean** darabiltza testu berbatean:

(95) “Zuberoko eskuara”, op. cit., 259.or.

(96) Id., 260.or.

(97) J. de Urquijok aipatzen du, “Los Refrane s y sentencias de Sauguis”-en hitzau-rean, *RIEV*, 2, 1908, 677-724.orr.

(98) *Euskaldunak*, Auñamendi, Donostia, 1976, 222.or.

(99) Id., 226.or.

(100) *Quito-n arrebarekin*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 1987, 83.or.

(101) Id., 85.or.

(102) Id., 87.or.

(103) Id., 89.or.

(104) “Nombre vasco de Pamplona: Iruñea, Iruña, Iruñe?”, *FLV*, 12, 1980, 427-434.orr.

“Goizik apez izateko gogoa sumaturik, **Iruñeko** Seminarioan asi zituen ortarako ikasketak 1900ean” (105).

“Orditik aurrera **Iruñe-ko** komentuan egon zen egotez 1935-eraño” (106).

“Mateo Mujika, **Iruñeko** Gotzai izan zenak agindu-ta, Kristau- Ikasbide berria argitara eman zuen” (107).

“Eusko-Ikaskuntzak **Iruñan** urte ortan egin zuen batzarre aldi Nagusian, Euskaltzaindia ere antxe zan bere batzarraldiak egiten” (108).

“Orduan sortu zuen **Iruñean** «Euskeraren Adixkideak», deitu zuen Lagunartea.” (109).

Halarik ere, autore beraren 1934eko *Yesu-Kristo gure Yaunaren biziaren* inprenta-oinean **Iruña'ko** edireten dugu:

“Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan / **Iruña'ko** Kaputxinoetan.—1934”.

Damaso Inzak **Iruñean** eta **Iruñeko** darabil, hots, gaurregun **Iruñean** eta **Iruñeko** idatziko genukeena, ziurrenik:

“lenengoa, «Refranes y Sentencias» deritzana, **Iruñean** argitaratu zen 1596-garren urtean” (110).

“**Iruñeko** «Príncipe de Viana»-n Naparroako batzu agertu ziren” (111).

“Mezkiritz-en Perpetua Saragueta, oraiño **Iruñean** bizi zaigun andre buru-argi ta euskaltzale bikaña” (112).

Idazle eta euskaltzaina izan zen Piarres Lafittek (Luhuso, Lapurdi, 1901, Larresoro, 1985) behin gutxienez **Iruñen** darabil:

“Gure Herrian ager-arazi zuen ere lehenik *Beribilez*, liburu gozo bezain ederra. Eskual-herrian egin itzuliño bat aiphatzen dauku xehe-xehea: Kanbotik abia, Garazin eta **Iruñen** gaindi iragan, Loiola ikus, Donostia eta Donibane-Lohizunen barna itzul berriz ere Kanborat” (113).

Aingeru Irigarayk Oskotzen bildu zuen Aralarko Done Mikel eta Goñiko Teodosioren elezaharraren aldaeran **Iruñera** dugu:

(105) Damaso Inzaren *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak* lanaren aitzinsolasa, *PV*, Iruñea, 1974, 9.or. Ez dago bokal-armoniarik.

(106) Id.

(107) Id.

(108) Id.

(109) Id.

(110) Id., 11.or.

(111) Id.

(112) Id., 12.or.

(113) *Euskal literaturaz*, Euskal Editoreen Elkartea, Oiartzun, 1990, 282-283.orr. Ez dago bokal-armoniarik.

“Goñi-ko zaldune **Iruñera** doaie, obispoarekin kofesatzera;...” (114).

Lan berean ageri den Ezkarozeko erromantze batean honako lekuko hauek ditugu:

“Pedro Carlos Mendi, aur gazte / ogei ta bi urte, / hirurgarrena bete gabe / **Iruñara** preso daramate. // **Iruñeko** karzela / Nafarroan den handiena ...” (115).

Koldo Mitxelena hizkuntzalaria izan zen aldaera batutatzat **Iruñea** (- a) aurrenekoz proposatu zuena (116), eta horrela azaldu zen Akademiaren 1979ko *Izendegian*, *iruindar*, *iruinxeme* ‘Iruñeko’- ren aldamenean (117). Mitxelenak euskarazko bere lanetan **Iruñea**, **Iruñetik**, **Iruñera**, **Iruñeko**, **Iruñeak** (118) ... ibiltzen ditu. Mustra gisa “Iruñea” eta “Iruñetik” (119) artikuluez gainera honako hauek aipa daitezke:

“Euskal radioaz ari bagara, Segura dugu gaur euskaldunen hiri buruazgia, lehen **Iruñea** bezala” (120).

“Gogoan eduki behar da, gainera, badirela argitara gabe dauden euskal obretan zenbait ale bakan eta bitxi (Ulibarriren gutunak eta **Iruñean** dagoen *Doctrina para la instrucción de la familia de casa en vascuence* luzea datozi gogora),...” (121).

“Guztiok ezagutzen dugu **Iruñeko** ibilbide zabal batean Foruei edo Lege zaharrei eraiki zieten oroikarri ederra” (122).

2. Nafar hiriburuaaren izena egungo euskaran:

Damaso Inzak *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak-en* lekukotasun hauek biltzen ditu:

“Arre arre pottotto! / bier **Iruñerako** / etzi Tolosarako / Andik zer ekarriko? / xapata ta gerriko, / saski bat bete koko / t'oriek norendako / gure Iñaxiandako” (Uharte-Arakil) (123).

(114) *Noticias...*, 47.or.

(115) Id., 85.or.

(116) Oviedoko *Archivum-en* (8, 1958). Argia berriz SHLV-n (99-106.orr.) ikusi zuen. Beranduago “Iruñea” artikuluan esandakoak baieztu zituen (*Piarres Lafitteri Omenaldia*. Iker 2, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 445-457). Lan hau PT-en (187-193.orr.), eta EIG-VII-n (115-123.orr.) eman zen berriz ere argitara.

(117) *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1979, 41.or.

(118) 50. hamarkadako lanetan zenbaitetan -ñ-ren ordez -in- dugu, baina hau kontu grafiko hutsa da.

(119) EIG-I, 115-120.orr.

(120) Id., 99.or.

(121) Id., 234.or.

(122) Id., 243.or.

(123) 20.or. Uharteko hizkeran bokal-armonia bada.

“**Iruñe(a)n** baño Irunberrin kontu geiago” (Larraun) (124).

“«**Iruñen** zer berri?» galdezu omen zuen errege Karlos V’garrenak. Besteak erantzun: «**Iruñen** gari asko». Eta erregek berriz: «Gari asko, gari asko? Bat ere ez neretako»” (Ultzama) (125).

EAEL-k Gipuzkoako Elduainen hurrengo lekukotasun hauek biltzen ditu:

“Aizú, árek, gutxi-goraberá...**Irúñea**, irú ordu esate zuén...”.

“...ta géro, géro usté’t zuzènian **Irúñeaño** jute zála. Ní an, **Irúñean**, gutxitán jun izándu naiz (...), mutil-koxkorra, ttíki- ttíkie...”.

“...ola bíre motxian ez; eméndik Ollokiá ta óla ez. Oi **Irúñea** arté bai... kéak ítte zun...”.

“Da, Ollókin, elúrra áundiya zan batian, merkántzia **Irúñetik** etorrí, taeméndik biájeroana... **Irúñea** jun biár (t)zun.”.

“Da jíratzeko-re...buélta, mákinai ematekó, Léitzen, da Andoaiñén...da **Irúñean** e bai.”.

“...Bí kotxé, ta bí bagói, merkántziakuá o... gáuzak, **Irúñeako**” (126).

Bortzirietan EENEL-ek **Irúñetiká** biltzen du Lesakan, **Irúñétik** Arantzan, **Irúñetik** Etxalarren, eta **Irúñetik** Beran (127). Guk Etxalarren lehen informatzailearen ahotik **Irúñe** [irúñe] edo **Iruñi** (128), **Irúñetik**, **Irúñierà**, **Irúñin**, **Irúñekua**, **Irúñekù:k** ‘Irúñekoak’ bildu dugu (129), eta bigarrenaren ahotik (130) **Irúñe**, **Irúñen**, **Irúñetik**, **Irúñierà**, **Irúñekua**. Lesakan **Irúñea** [irunea], **Irúñetik**, **Irúñierà** [irúnerà], **Irúñean**, **Irúñekua** dugu (131), eta Beran **Irúñia** edo **Irúña**, **Irúñatik**, **Irúñaràt**, **Irúñean** [irúneàn], **Irúñakoà** edo **Irúñeko** (denean) (132).

(124) 42.or. Ez dakigu zein herrian bildu zen. Larraungo herri batzuetan bederen bokal-armonia badago (ikus EENEL). EAEL-n Alliko datuetan batzuetan (gutxienetan) armonia bokalikoa bada, baina beste batzuetan (gehiendetan) ez. Halaz ere, herri bereko etnotestuan (EAEL-II, 166-167 zkiak.) gertakari fonetiko hori garbi ageri da.

(125) 121.or.

(126) 108. etnotestua.

(127) 322.or., 252. zkia. Herri hauetan ez dago bokal-armoniarik.

(128) Bukaerako -i hori ez da inolaz ere i garbi bat; e eta i-ren arteko soinu bat da.

(129) Etxalarren 1926an sortu eta aspaldi honetan (azken berrogei urteotan) Lesakan bizi den Gregorio Galtzagorri (1926) izan da gure informatzailea. Ez dago bokal-armoniarik.

(130) Virginia Arburua Miuraren ahotik (1938).

(131) Ez dugu uste datuok osotara fidagarriak direnik. Gure informatzailea Santiago Aiestaran (1935) izan da. Ez dago bokal-armoniarik.

(132) M.^a Jose Errandonea (1946) izan da gure informatzailea. Datuok ez dira fidagarriak gure irudiz. Ez dago bokal-armoniarik.

Basaburu Txikian EENEL-ek **Irúñetik** biltzen du Areso eta Eratsunen, eta Irúñetik Beintza-Labaienen. Leitzan **Irúñe** edo **iruñè**, **Irúñtik** edo **Irúñetik**, **Irúñea** edo **Irúñea** ‘Iruñera’, **Irúñen**, **Irúñeko**, **Irúñekoak**, **iruñandràk**, **Irúñierriè**, **Irúñerrin** bildu genituen (133), Aranon **Pamplona** erraten dute eskuarki (134), nahiz azken aldi honetan **Irúña** sartzen hasia den, eta Goizuetan ere beste horrenbeste gertatzen da (135).

Malerrekan EENEL-en arabera **Irúñetik** dugu Ituren eta Sunbillan. Elgorriagan guk **Irúñe** eta **Irúña** (136), **Irúñaa** ‘Iruñera’, **Irúñetik** eta **Irúñitik**, **Irúñen** eta **Irúñin**, **Irúñeko** (bidià), **Irúñekuù** ‘Iruñekoa’ eta **Irúñekuà** (137) bildu ditugu, Itureneng **Irúñea** [irúñeà] (138) edo **Irúñia**, **Irúñian**, **Irúñetik** edo **Irúñitik**, **Irúñerà** edo **Irúñirà**, eta **Irúñekuà(k)**, eta Zubietan **Irúñea** (139), **Irúñetik** (140), **Irúñaa** ‘Iruñera’, **Irúñeainò** [irúñeaoŋ], **Irúñean** (141) eta **Irúñekuà** (142).

Bertizaranan EENEL-ek **Iruñatik** biltzen du Narbarten.

Baztanen EENEL-ek **Iruñétik** ematen du Almandoz, Arizkun eta Amaiurrerako, **Iruñetik** Zigarako (143). Urdazubirako lan horrek **Irúñetik** ematen du, eta Zugarramurdirako **Iruñétik**. Guk Arizkunen **Irúñe**, **Irúñen** eta **Irúñetik** (144) bildu ditugu, Lekarozten **Irúñea** edo **Irúñe**, **Irúñetik**,

(133) F. Olano eta Narciso Sestorain izan ziren gure informatzaileak. Lehenak hirurogeita hamar bat urte zituen 1988an, eta bigarrenak laurogei inguru.

(134) Gure informatzailea Ester Legarreta (45 bat urte ditu) izan da. Goizuetako datuak Jesus Etxegia (1933) eta Fermín Zubirigengandik (1920) bildu ditugu.

(135) Gure informatzailea Fermín Zubiri izan da. EENEL-ek etóri **dé pamplónatikán** ematen du, baina ez dirudi **dé ‘da’** Goizuetako forma denik, bertan bokal-armoniarik egiten ez delako. Areso eta Leitzan berriz present dago gertakari fonetiko hori, baina ez Beintza-Labaienen (EENEL-en bildutako datuen arabera).

(136) Severiano Urroz Saldias (1914) izan da gure informatzailea. Lehen aldaera solasean ari zelarik isuri zitzaiion; bigarrena berriaz “Pamplona” euskaraz nola erraten zuen galdeginik eman zigun. Ez dago bokal-armoniarik.

(137) Hemen jatorrena, bapatekoena **Irúñekuù** dela egingo genuke.

(138) Oso e itxia da, i-tik hurbil dagoena. Gure informatzaileak Itureneng sortua den Andres Iñigo (1945) eta beronen ama den Natividad Ariztegi Ziganda (1905) izan dira. Azken hau sortzez Oizkoa da, baina gaztetan Iturena ezkondua eta geroztik bertan bizi izan da. Ez dago alderik bataren eta bestearen ebakeren artean. Ez dago bokal-armoniarik. Natividadek gure «nola errain zinuke “pamplonés”» galderari **irtúñesa** erantzun zion, baina ez dugu uste hau une hartan bururatu zitzaiion izenaz besterik deus denik.

(139) Fco. Juanikorena Mutuberria (1914) izan da gure informatzailea. Izen honek atzean beste elementuren bat duenean **-a** galtzen du: **Irúñe hurbil hortako'úk** ‘Irúñe hurbil (“inguru”) horretakoak duk’. Ez dago bokal-armoniarik.

(140) Hizkera azkarrean erdiko **-e-** hori ia ez da aditzen.

(141) Tarteko **-a-** hori oso laburra da, eta ez da garbi aditzen.

(142) **Irúndarrà** Irungoa da hemen, Irunen sortua.

(143) Herri guztiotan bokal-armonia bada.

(144) Gure informatzailea Iriberrya baserriko Norberto Iribarren (laurogei urte orain-dik ez ditu) izan da.

Irúñera, Irúñen, Irúñekoà (145), eta Urdazubin Irúñea, Irúñea edo Irúñia, Irúñetik, Irúñerà, Irúñean, Irúñekoà (146).

Araitzen EENEL-ek Irúñatik biltzen du Azkaraten. Guri Gaintzan Irúñea ‘Irúñea’ eta ‘Irúñera’, Irúñetik, eta Irúñean (147) eman zizkigutenean, eta Betelun Irúñe, Irúñea ‘Irúñera’, eta Irúñetik (148).

Larraunen EAEL-k Irúñetik biltzen du Allin:

“...sóro (b)át eo... dána dá lézii... de jénde ásko etòrtzén da é? Irúñetik eta... ta sórgiñik émen tzabiltzén gáubeti” (149).

Ibar honetatik atera gabe, EENEL-ek Irúñetik du bildua Uitzin, Irúñetik Etxarrin, Oderitzen, eta Baraibarren, eta Irúñetik Albiasun. Guk Oderitzen Irúñe, Irúñea, Irúñeko (Kokoa), eta Irúñetik (150) bildu genituen.

Burundan EENEL-ek Irúñati biltzen du Bakaikun. K. Izagirrek Irúñeti (gatozi) ematen du Altsasurako (151).

Ergoienean EENEL-ek Irúñetik [irunetí] biltzen du Unanun “Irúñetik lleátu ók” testuinguruan. Guri Lizarragan Irúñia, Irúñetik, Irúñekuà, Irúñaa ‘Irúñera’, Irúñen, Irúñerriyà eta Irúñerriyè (152) eman ziguten.

Aranatzen EAEL-k Irúñen biltzen du Arruazun:

“órduen etzeón ba, órduen etzeón e lán-tokiik iñún e! etzeón fabríkeik... èmen éz béintzet! Irúñen te eongo zién zerbaít baño gutxí an e” (153).

Etxarri-Aranatzen Irúñaa ‘Irúñera’, Irúñaaño ‘Irúñeraino’ eta irunxe-me ditugu (154). EENEL-ek Irúñatik biltzen du Lakuntzan; guri Irúña, Irúñan, Irúñiaà, Irúñati eman ziguten (155).

(145) Graciosa Miura Ezkurraengandik jasotako datuak. Lekarozko Etxebertzeko bor-dan sortu zen 1907an, eta aspaldidian Etxalarren bizi da. Ez dirudi hasierako Irúñea hori berak normalean ibiltzen duen aldaera denik.

(146) Gure informatzailea Juan Agirre (1914) izan da. Hau “hiztun ikasi”-tzat jo dezakegu, eta beraz datuok baieztagikun (edo ezeptakizun, jakina) gelditzen dira. Ez bide dago bokal-armoniarik.

(147) Mikaela Otamendirengandik (60 bat urte zituen 1988an) bildu genituen datuok. Bokal-armonia bada.

(148) Santos Zubillaga (90 urtetik goiti 1988an) eta semea (60 bat urte) izan ziren gure informatzaileak. Bokal-armonia bada.

(149) EAEL, 167. etnotestua. Badago bokal-armonia.

(150) Juan Aldaiaren ahotik (40 urteak ongi beteak zituen 1988an). Herri guzti haue-tan bokal-armonia badago.

(151) “Altsasuko euskeraren gai batzuk”, ASJU, 1967, 45-97.orr. Bokal-armonia bada.

(152) Dolores Navarro (laurogei urte inguru zituen 1988an) izan zen gure informa-tzailea. Bokal-armonia bada.

(153) EAEL, 168. etnotestua. Bokal-armonia bada.

(154) *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia*, Karasatorre eta beste, Tafalla, 1991, 28 eta 86.or. Bokal-armonia bada.

(155) Eugenio Ulayarren ahotik (70 bat urte izanen ditu orain) jaso genituen. Ez dakigu datuok zeharo fidagarriak direnik.

Arakilen **Irúñe**, **Irúñen**, **irúndarrak**, **irúndarrak** edo **iruindarrak**, **Irúñeriè**, **irúñerritarrak**, **Irúñea** ‘Iruñera’, **Irúñetik**, **Iruñan** ‘Iruñaren’ (ondoko yendia), **Irúñinguruè** ditugu Urritzolan (156), eta **Iruñé**, **Irúñaa** ‘Iruñera’, **Irúñetik**, **Irúñen**, **Irúñerriè** Irañetan (157).

Atetzen EENEL-ek **Iruñetik** biltzen du Aroztegin, **Iruñeti** Beratsainen, eta **Irúñetik** (158) Beuntzan. Guk azken herri honetan **Irúñe** edo **Irúñè**, **Irúñen** edo **Irúñen**, **Irúñerà**, **Irúñetik** edo **Irúñetik**, **Irúñekoàk**, **iruñtarrak**, **iruñdarrak**, **iruindárrak** edo **iruindarrak**, **Irúñerriè**, **Irúñerrièn**, eta **irúñerritarrak** (159) bildu ditugu, eta Egillorren **Irúña**, **Irúñarà**, **Irúñ(e)an** edo **Irúñen** eta **Irúñekoà** (160).

Gulibarko Zian **Irúñe** eta **Iruñé** (161) dugu.

Basaburu Nagusian **Irúñetik** dugu Itsason, eta **iruñetik** Berueten EENEL-en arabera (162). Herri honetan **irúñi** ‘Iruñea’, **Irúñin** ‘Iruñean’, **Irúñea** ‘Iruñera’, **Irúñetèk** ‘Iruñetik’, eta **Irúñekoà** bildu ditugu guk (163), Udaben **iruñi** edo **iruñi** ‘Iruñea’, **Irúñin** ‘Iruñean’ (164), **Irúñetik** edo **Irúñtik**, **iruñà** ‘Iruñera’, eta **Irúñekoà** eman ziguten. Herri honetan Iruñiekoak **iruñdarrak** dira (165). Beramendin **irúñe**, **Irúñaa**, **Irúñetik**, **iruñàn** (**iruñèn** ere bai?) **Irúñekua**, **iruñdarrak**, **Irúñerri**, **Irúñaldeà** ‘Iruñe aldera’, **Iruñen** ‘Iruñearen’ (bueltan) (166) dugu, eta Ihabenen **Irúña**, **Irúñaa** ‘Iruñera’, **Iruñetik**, **Irúñen**, **Irúñekua**, **iruñdarrà** (167).

Imozko Latasan EAEL-k honako lekukotasun hauek biltzen ditu:

“**Iruñétik** zèa zún, zún paráda Saásan e; geó, emén apéaderoa déitzer zióna;...”.

(156) Bautista Etxarrenengandik (90 urte inguru ditu) jasotako datuak. Bokal-armonia bada.

(157) Miguel Esainek (hirurogei urteak ongi beteak zituen 1988an) emandako datuak. Armonia bokalikoa bada.

(158) Azken soinua ez bide da oso argia.

(159) Miguel Ezkurra eta Enrique Nazabal (biak 65 urte ingurukoak, 1988an) izan ziren gure informatzaileak.

(160) Jose Oiartzunengandik (1933) bildutako datuak. Informatzaile honek ez du ongi menperatzen hizkuntza.

(161) Hipólito Goñi (laurogei urte inguru zituen 1988an) izan zen gure informatzailea. Itxuraz, bokal-armonia bada.

(162) Bokal-armonia badago.

(163) Manuel Rekondo (1922) izan da gure informatzailea.

(164) **Irúñi**, **iruñi** edo **fruñi** eta **Irúñin**, **Irúñin** formen azpian ***Iruñea** eta ***Iruñean** ditugu: cf. **èsní**, **èsenf** ‘esnea’ (begi, begi ‘begia’ bezala), **belaunin** ‘belaunean’ (bègín ‘begian’ bezala)..., baina **zenbat es(e)ne**.

(165) Antonio Nuinengandik (65 bat urte ditu) bildutako datuak.

(166) Miguel Goñirengandik (50 bat urte ditu) jaso ditugu datu hauek.

(167) Juan Senosiainek (1930) eman dizkigu datuok. Bokal-armonia badago. **Irúña**-ren jatortasunaz duda asko ditugu.

“Ta Mérkantziik, ba onák, **Irúñeko** kuàrtelak é, dának, Látásako kánteratik árziúte(n), dának, ...”.

“orréa... eméndik bête, onéañó ez, túnelik... **Irúñetik** oneráñó”.

“Ni? Donóstiraño ere bái, ta **Irúña** (‘Iruñera’) e bái... bai”.

...udábideán, **iruñetik** etortzen tzeén, espéziala jarríta Latasaiño,...”.

“...éun únea pàsten tzutén ta geó, atsaldeán, buélta béis **Irúñea**”.

“Bai! oi! kántera primérakoa...! ói... andik, **Irúñ(e)a** (‘Iruñera’) ta toki askotaa ta...” (168).

Muskitzen, haran berean, **Irúñetik** dugu EENEL-en arabera, eta Etxalekun **Irúñetik**. Guri Oskozko lehen informatzaileak **Irúñea**, **Irúñea** ‘Iruñera’, **Irúñea** ‘Iruñera’, **Irúñen**, **Irúñetik**, **Irúñekoà** eman digu (169), bigarrenak **Irúñe** ‘Iruñera’, **Irúñea** ‘Iruñera’, **Irúñetik**, **Irúñen**, **Irúñekua** (170), hirugarenak **Irúñe**, **Iruñéra**, **Iruñetik**, **Irúñen**, **Iruñékoा**, **iruñindarrà** (171). Muskitzen **Irúñea**, **Irúñera**, **Irúñetik**, **Irúñean**, **Irúñekoà** (172) dugu, eta Goldaratzent **Irúña** edo **iruñá**, **Irúñan** edo **iruñén**, **Irúñetik**, **Irúñerà**, **Irúñekua**, **Irúñerri** ‘Iruñertia’ (173).

Ultzaman EENEL-en arabera **Irúñetik** dugu Gerendiainen, **Irúñetik** Arraitzen eta Auzan, eta **Irúñetik** Eltzaburun. Guk Auzan **Irúñe**, **Irúñen**, **Irúñera**, **Iruñétik**, **Irúñkókua** (**Iruinkókua?**) (174) bildu genuen, eta Gerendiainen **Irúñe**, **Iruñéra**, **Iruñetik**, **Irúñen**, **Iruñékua** (175).

Odietan **Iruñera**, **Irúñetik** edo **Iruñetik**, **Irúñen**, **Iruñékua** ditugu Gundulainen (176), **Irúñea**, **Iruñétik**, **Iruñéra**, **Irúñ(e)an**, **Iruñékua**, **iruñindarrà**, **Irúñe ingurúkua** edo **Irúñingurúkua** (177) Latasan, **Irúñe**, **Iruñéra**, **Iruñetik**, **Irúñan**, **Iruñékua** Gaskuen (178).

Anuen EENEL-en arabera **Irúñetik** dugu Etulain eta Aritzun. Txillardegik **Irúñen** ematen du Lantzerako (179). Guk **Irúña**, **Irúñerà**, **Irúñe**-

(168) EAEEL, 191. zkia. Bokal-armonia badago.

(169) Oskotzen sortu arren aspaldi honetan Odietako Erritan bizi izan den Josefa Azpirozengandik (1921) bildu ditugu datuok. Bokal-armonia bada.

(170) Celestina Zarrantz (1935) izan da gure informatzailea.

(171) Miguel Zigandak (1908).

(172) Juan Mari Ibero (1951) izan da gure informatzailea. Bokal-armonia bada.

(173) Manuel Olaetxearengandik (1926) jaso ditugu datuok.

(174) J. M.^a Berasainek (berrogeita bost bat urte zituen 1988an) eman zizkigun datuok.

(175) Rosa Oronoz (1925?) izan da gure informatzailea. Bokal-armonia bada.

(176) Mikaela Goldarazek (1929) eman dizkigu datu hauek. Ez du euskara menperatzen.

(177) Martín Elizondoren (1922) ahotik jaso ditugu datuok. Ez dakigu erabat fidagarriak diren. Bokal-armonia bada.

(178) Modesto Arzerengandik (1926?) bildu ditugu datuok. Bokal-armonia bada.

(179) *Euskal Azentuaz*, Elkar, Donostia, 1984, 363.or.

tilk, Irúñan, Irúñekua bildu dugu Burutainen (180), **Irúña** edo **Irúñe**, **Irúñerà** edo **Irúñarà**, **Irúñetik**, **Irúñan**, **Iruñékua** edo **Irúñekoà**, **Irúntiérrakoà** ‘Irúñerrikoà’ (181) Etulainen.

Esteribarren EENEL-en arabera **Irúñetik** dugu Inbuluzketan, **Irúñetik** Leronatzen, **Irúñetik** Iragin, **Irúñetik** edo **Irúñetik** Eugin. EAEL-ren arabera azken herri honetan **Irúñera** esaten dute:

“Yoan den asteartian yoan ginen **Irúñera** pillota partida ikustera ta si ziren pillostan...” (182).

Ilurdotzen, bailara berean, Koldo Artolak **Irúñé** (...gúzie), **Irúñe** (gúzie), **Irúñera**, **Irúñéra**, **Irúñen**, **Irúñetik** biltzen ditu (183). Eugin guk **Irúñe**, **Irúñen**, **Irúñetik**, **Irúñera**, eta **iruñetárrak** bildu genituen (184), eta Iragin **Irúñe**, **Irúñera**, **Irúñen**, **Irúñetik**, **iruñdarràk**, **Irúñerriè** edo **Irúñérrie**, **irúñe-rritarràk** edo **iruñerritarràk** (185).

Erroibarren EENEL-en arabera **Irúñetsk** dugu Aintzioan, eta **Irúñetik** Auritzten. Mezkirten guk **Irúñe**, **Irúñen**, **Irúñetik**, **Irúñekoàk** edo **Iruñékuak** bildu genuen (186). Gure informatzaileetako batek, gainera, **Irúña** eta **iruñà**, **Irúñatik**, **Irúñara**, **iruñàn** eman zigun (187). Lintzoainen **iruñà**, **iruña** eta **Irúñe** (?), **Irúñarà** edo **Irúñera**, **Irúñetik**, **Irúñan**, **Irúñekoà**, **Irúñeko ingurue** (188) bildu dugu; Erron **Irúñea** ‘**Irúñea**’, **Irúñera**, **Irúñetik**, **iruñárrak** (189), eta Aurizberrin **Irúñà**, **Irúñen**, **iruñtarràk**, **Irúñiningurua** (190).

Artzibarren **Irúñetik** dugu Orotz-Betelun EENEL-en arabera (191). Arrieta Koldo Artolak **Irúñera** (192) bildu zuen.

(180) Bokal-armonia bada, Lucía Larramendi (1908) izan da gure informatzailea. Ez dakigu **Irúña** jatorra den herri honetan, baina Luciak behin eta berriz bere hizkeran “Pamplona” **Irúña** dela, eta ez **Irúñe**, errepikatu digu.

(181) Juanperitzeneko Antonio Mariñelarena (1915) izan da gure informatzailea. Bokal-armonia bada. Oraingo honetan ere ez dago garbi **Irúña** jatorra den ala ez.

(182) 205. etnotestua. Bokal-armonia bada.

(183) “Hegoaldeko goi-nafarraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)”, *FLV*, 60, 1992, 187-227. Behin **Irúñ(e)an** ematen du. Bokal-armonia bada.

(184) Hilario Seminario (60 bat urte 1988an) izan zen gure informatzailea. Bokal-armonia bada.

(185) Jesus Lintzoainen ahotik (60 bat urte zituen 1988an) jasotako datuak.

(186) Gure informatzaileak Juanita Agorreta eta Martin Urrutia (Ureta) izan ziren, biak adin handikoak.

(187) Daniel Erreak. Jaun hau Mezkirten sortu zen orain hirurogeita hamar bat urte, baina hazi Zilbetin hazi zen. Zalantz handiak ditugu datuon fidagarritasunaz.

(188) Severino Torreak (1924) eman dizkigu datu hauek.

(189) Matias Bizkaik (70 urtez goiti zituen 1988an) eman zizkigun datuok.

(190) Jesus Urtasunengandik (70 urtez goiti zituen 1988an). Ez dugu uste oso datu fidagarriak direnik.

(191) Ez bide zegoen bokal-armoniarik (ikus A. Campionen *Orreaga*, **Irúñea**, 1880, 93-96.orr.).

Nafarroa Behereko Aiherran honako hau dugu:

“...horrék ikertu dú, izan dá **Iruñ(e)an**, eta lehénagóko... ba, istórian eta... ikértzen, heméngo... Bèltzuntzé, lehénagó, **Iruñeko** errégian azpiko zén, Beltzúntze,...” (193).

Aezkoarako Azkuek **Iruñeko**, **Iruñera**, **Iruñarako** ematen ditu (194). EENEL-en arabera **Iruñetik** dugu Abaurrepean, **Iruñetik** Orbaitzetan, eta **Iruñetik** Hiriberrin. Garraldan guri lehen informatzaileak **Iruñerà**, **Iruñetik**, **iruñèn**, **Iruñekua** eman digu (195), bigarrenak **Iruña** edo **Iruina**, **Iruñetik**, **Iruñarà**, **Iruñarà** edo **Iruñerà**, **Iruñan** edo **Iruñen**, **Iruñatik** edo **Iruñetik**, **Iruñekoa** [irúñekoa] edo **Iruñékoa** [irúñekoa], **iruindárra** (196), eta hirugarrenak **Iruñe** edo **Iruñea**, **Iruñetik**, **Iruñéra**, **Iruñen**, **Iruñékoa** [iruñéko], **iruindárra**, **Iruñeingúrrua** (197). Arian lehen informatzaileak **Iruñe**, **Iruñera**, **Iruñeti**, **Iruñe(a)n**, **Iruñekua** edo **Iruñekua** eman digu (198), eta bigarrenak **Iruñe**, **Iruñekua**, **Iruñera**, **Iruñetik**, **Iruñen**, **iruindarrà** edo **iruindárra** (199). Orbaran **Iruñea**, **Iruñera** edo **Iruñera**, **Iruñetik**, **Iruñe(a)n**, **Iruñekoà** (200) eman digute, eta Orbaitzetan **Iruñè** edo **Iruñe**, **Iruñera** edo **Iruñerà**, **Iruñetik** (**Iruñetik**), **Iruñen**, **Iruñekua** (201). Hiriberrin **Iruñe** edo **Iruña**, **Iruñetik** edo **Iruñetik**, **Iruñerà** edo **Iruñéra**, **Iruñean** [irúñean], **Iruñekoà** edo **Iruñekoa** [irúñekoa], **Iruñekoàk**, **iruindárra** edo **Iruindarrà** (202) bildu ditugu, Abaurrepean **Iruña**, **Iruñan**, **Iruñerà**, **Iruñerik** ‘**Iruñetik**’, **Iruñékoa** [irunéko] (203), eta Aburregainean **Iruñea**, **Iruñean**, **Iruñera**, **Iruñetik** eta **Iruñetik**, **iruindarràk** eta **Iruñerrià** (204).

Zaraitzun **Iruñarfik** ‘**Iruñetik**’ dugu Ihaurrieta EENEL-en arabera (205), eta Itzaltzun **iruñarfik**. Lehen herrian guk **Iruña**, **Iruñarà**, **Iruñarfik**,

(192) Ez dago bokal-armoniarik.

(193) EAEEL, 252. zkia. Ez dago bokal-armoniaren aztarnarik.

(194) “Aezkeria edo Petiriberro-inguruetako mintzaera”, *Euskera*, 1927, 179-300. Eman baino gehiago “erabili” egiten ditu, aezkeraz idatzten duenean. Euskalki hau hobekienik ezagutzen duen Iñaki Caminok jakinarazi digunez, Azkuek Aezkoarako ematen dituen datuak ez dira zeharo fidagarriak.

(195) Matias Iriarteak (1914) eman dizkigu datuok.

(196) Angela Iriarte (1916) izan da gure informatzailea.

(197) M.^a Lina Lerindegi Pedroarenaren ahotik (1936) jaso ditugu datuok.

(198) Benito Retegik (1920).

(199) Maria Maisterrak (1917).

(200) Gure informatzailea Domingo Burusko (1920) izan da.

(201) Jose Ignacio Legazek (1956).

(202) Julian Arrese Urrutiaren ahotik (1908) lortutako datuak.

(203) Joaquín Arozarena (1912) izan da gure informatzailea. Ez du euskara menperatzen, eta dakiene Aburregainean ikasi omen zuen.

(204) Segundo Arostegi, Maria Arozarena, Bittoriano Zelai, eta Emilia Bidondo izan ziren gure informatzaileak. 1988rako hirurogeita hamar urtez goiti zituzten denek. Aezkeraz ez dago bokal-armoniarik.

(205) 252. zkia, 322.or.

Irúñan eta **Irúñatarrak** (206) bildu genuen, eta Orontzen **íruñà**, **Irúñarik**, **Iruñára** edo **Irúñarà**, **Irúñan** eta **Irúñatarrak** (207). Espartzarako EAEL-k honako lekukotasun hauek ematen ditu:

“...géro bér(t)ze áinzpa bat badút -bizi báite (sic) **Irúñan**-, kárek emezórtzi úrte ztuelarik, fán zen **Irúñara** zerbitzatzra, ta ken barátu ni(n)tzán ní”.

Pues kén barátu g(a)rá. égun fán zaidá...sémia **Irúñara**; élki txióxu... kála, ezkérreko... bésoran, bólto bat” (208).

Herri honetan guk **íruñà**, **Irúña**, **Irúñan** eta **Irúñarik** bildu genituen. Iruñean jaioak **Irúñarrak** (209) dira.

Uztarrozen EAEL-ren arabera **Urúñara** dugu:

“Kóntu bát, amíntto bát... luzéxka: áldi batéz xoán zriá bí mázte biájez, eta buéltan zrérian... eztakiár nórta: èzta ere **Urúñara**, Izábara, ez...” (210).

Izaban Koldo Artolak **Uriña**, **Uríñan** eta **Uríñako** bildu zituen (211).

Azkuek **Uriña**, **Uruña** eta **Uruñerri** ematen ditu erronkarierarako, baina ez du zehazten aldaera bakotza zein herritakoa den (212). Mitxele-naren arabera **Uruña** dugu Uztarrozen, eta **Uriña** ibarreko gainerako herrietan (213). José Estornés Lasak **Urúñara**, **Urúñako** eta **Uruñárako** erabiltzen ditu (214).

3. Ondorioak:

Mitxelenaren iritziz aldaerarik zaharrena nafar hiriburuan argia ikusi zuten hainbat idazlanen inprenta-oinean azaltzen den **Iruñea** dugu. **Iruñea**, **Iruñe** primarioarekin (hots, bokal-armoniari zor ez zaionarekin) batera, bizirik dago gutxienez aezkeraz, Artzbarko hegoaldeko goi-nafarreraz (hemengo euskara bizirik dagoen neurrian. Bailara honetako lekukotasunen oinarrian dagoena **Iruñea** nahiz **Iruñe** izan daiteke), eta Basaburu

(206) Xalbador Karrika eta Eulalia Palazonengandik hartutako datuak. Lehena laurogeita hamar bat urte izanen ditu, eta bigarrena urte pare bat duela hil zen. Elkarrizketa egin genionean hirurogeita hamabost bat urte zituen.

(207) Sebero Azkotirengandik jasotako datuak. 1988an laurogei urtez goiti zituen.

(208) EAEL, 272. zkia.

(209) Jacinto Ramírez eta Dionisia Garaterengandik hartutako datuak. Lehenak laurogei ta hiru urte ditu orain, eta bigarrena duela gutxi zenu zen, laurogeita hamar bat urte zituela.

(210) 291. zkia.

(211) “Erronkariko uskararen azken hatsak... eino're!!”, *FLV*, 25, 1977, 75-107.

(212) “Particularidades del dialecto roncalés”, *Euskera*, 1931, 207-406.

(213) “Hispánico antiguo y vasco”.

(214) *Erronkari'ko uskara*, Auñamendi, Donostia, 1968, 136 eta 145.orr.

Nagusi; Malerreka eta Bortziriak iparraldeko goi-nafarreraz. EAEL-k Elduain (Gipuzkoa)-rako ematen dituen datuetatik ere oinarritzko forma **Iruñea** dela ondorioztatzen da.

Gure iritziz hiriburutik oso hurbil dagoen Elkanon sorturikako Joaquín Lizarraga idazlari euskaldunak **Iruñeko** eta **Iruñean** erabiltzeak garrantzi handia dauka, ezbairik gabe autore honen hizkerak hiriburuaren irudikoa izan behar baitzuen. *Anales del Reino de Navarra*-ren egilea den Moret iruindar euskaldunak ere **Iruñea** ematen du hiriburuaren euskarazko izentzat, baina honen aldamenean **Iruña** eta **Irunia** ere aipatzen ditu (215), eta beraz autore honen lekukotasunak izan lezakeen pisua guztia galtzen du.

Gaurregun herri bakoitzean ibiltzen den aldaeraren etorkia zehazteko orduan ezinbestekoa da bertan bokal-armoniarik baden ala ez den jakitea, zeren leku frankotako **Iruñe**-ren azpian ***Iruña** izan baitezakegu, aldaketa ezagun horren bitartez bukaerako -a > -e gertatu delarik, **ukatu** > **uketu**, **ikatza** > **iketza-n** bezalaxe.

Erreneriako hizkuntzalariaren arabera, ekiadeko (Zaraitzuko eta Erronkariko) **Iruña**, **Uruña**, **Uriña** aldaerak lehenagoko ***Iruñea** batetik atera dira, sabaiko kontsonanteak ondoko bokal ez silabagilea irentsi eta gero. Bilakaera, beraz, hau izan da: ***Iruñea(n)** [irúñea(n)], ***Iruñia(n)** [irúnja(n)] > **Iruña(n)**, **Uruña(n)**, **Uriña(n)**. Txillardegiren ustez (216) **Iruñean** > **Iruñan** pausoia **itxean** > **itxjan** > **itxan** ‘etxearen’-en dugunaren antzekoa da.

Hau berau gertatu bide da Nafarroako beste hainbat tokitan. Hauean analogiaz **Iruñatik**, **Iruñara...** eta beste sortu dirateke. **Iruña** sinpletutik bokal-armonia dagoen herrietan **Iruñe** atera izanen da, eta hemendik **Iruñen**, **Iruñetik...**

Absolutuan **Iruña** baina gainerako toki-kasuetan **Iruñetik**, **Iruñera...** (217) eta abar dugun herrietan sabaiko kontsonanteak bakarrik lehen kasuan (absolutuan) irentsi izanen du bokal ez silabagilea; gainontzeko kasuetan jatorrizko -e-k bere horretan iraun izanen du, hauetan testuingurua ezberdina izanik bokalak balio silabagile osoa atxiki baitu. Edozein moduz, honelakoetan **Iruñen** bide dugu inesiboan (hau eman omen zioten Iraizozko Polikarpori Beintza-Labaien). Honelakoetan **Iruñan** ere ager daiteke: cf. Anue), ez **Iruñean**, eta beraz garbi dago azken forma hau (**Iruñean**) dugun herrietan **Iruñea** ibili izan dela edo ibiltzen dela, ez **Iruñe** edo **Iruña**, hauen inesiboa esan bezala **Iruñen** edo **Iruñan** izaten

(215) Ikus Jimeno Jurioren “Pamplona y sus nombres”, *FLV*, 57, 1991, 55-76.

(216) Ikus *Euskal azentuaz*, 357.or.

(217) Saldiasen Iraizozko Polikarporen arabera. Iturengo **Iruñia** Saldiasko **Iruña**-tik hurbil dago oso, baina halaz ere lehen herrian **Iruñian** dugu, ez **Iruñen**.

denez gero (218). Guztiarekin, hemen ere badago salbuespna, hain zuzen ere geronek Aezkoako Hiriberrin bildu duguna (219). Kasu hau, dena den, bakarra da, eta gainontzeko guztietaen **Iruñe** primario nahiz sekundarioa badugu, inesiboan **Iruñen** daukagu.

Bokal ez silabagile bat aurreko sabaiko kontsonantez beretua izatea ezaguna da gaztelaniaz eta Nafarroako erromantzez (cf. viña < vinēa), eta horregatik ez da harritzeko eskualde honetako erdaraz **Iruña** erabili izana (aldaera hau, gainera, herri bateko baino gehiagotako euskaraz bizirik dago, ikusi denez), ez eta latinez edo erromantzez idatzitako Erdi Aroko agrietan ditugun lekukotasunen azpian aldaera hori (**Iruña**) ediretea.

Elkartuetan **Iruñ-**, **Iruin-**, e **Irun-** (**Iruñbidea**, **Irunbidea**, **Iruimportillua...**) aurkitzea erabat normala da (220), lehen osagaiak hiru silaba edo gehiago dituenean azken bokala, zeinahai ere den, galtzen denez gero, sarri askotan kontsonante aitzineko ñ-ren desabaikaltza gauzatzen dela (cf. **Usuñeta** baina **Usunbiribila** Leatxen (221)), batzutan -n- eta bestetan -in- atereaz (cf. Abaurregainekeo **Iruñea** > **Iruinea** desbustidura).

Laburtuz zera esan daiteke, **Iruña** (eta **Iruñe**, bokal- armoniaz) **Iruñea**-tik abiatuta aise azal daitekeen bitartean, alderantzizkoa ez dela gertatzen (222), eta beraz azken hau dela jatorrizko forma. Beste aldetik, **Iruñe(a)** (223), Iraizozko Polikarpok uste zuenaz bestalde (224), oraindik ere bizirik dago eta aski zabaldua, eta garai batez **Iruñe** inguruan ere erabilia izan zen, eta agian hiriburuari berean ere bai, nahiz hau seguritatez ezin baiezta daitekeen. **Iruñea** da, gainera, euskal Akademiak proposatzen duen aldaera.

Iruñea-ren etimologiaz:

Koldo Mitxelenaren iritziz autore klasikoek (Estrabonek, Pliniok) erresuma zaharreko hiriburuari ematen dioten izenean (**Pompaelo**. **Pom-**

(218) Jesús María Zubillagak bestela uste du. Ikus “Observaciones acerca del nombre de Pamplona en vascuence”, *FLV*, 40, 1982, 485-492.orr.

(219) Ikus Hiriberriko datuak. Arian, gainera, informatzaile batek **Iruñen** eta **Iruñean**-en arteko aldaera eman digu, hots, bata ala bestea dugun garbi bereizterik ez dagoena.

(220) Ikus AV, 26.or.

(221) NEEATB.

(222) Lehenik zera pentsatu behar genuke, **Iruña**-ren azken bokala artikula dela, zela izen arrunten antzera deklinatzen zela, eta bigarrenik **Iruñean** inesibotik **Iruñea** atera zela. Hau da Iraizozko Polikarporen iritzia (op. cit., 429.or.). Guk ez dugu uste hala gertatu den, baina edozein moduz toponimia txikian **Aranean** - n > **Aranea**, **Zabalea** - n > **Zabalea**-ren modukoak ugariak dira.

(223) Hots, **Iruñe** primarioa eta **Iruñea**.

(224) «Pero sea o no válida esa explicación, es que en Navarra se ha dicho y se dice aún el nominativo **Iruñea**? No me parece.», “Nombre vasco,...”, 430.or. Aitzinxago ere

pelo epigrafeetan (225) Pompeyo jeneral erromatarren izena eta euskaraz Nafarroako hiriburua izendatzeko erabili izan den izena bide ditugu (Estrabonen arabera **Pompaelo Pompeyópolis-en** adierakidea da), nahiz azken honek itxuraldaketa batzuk jasan behar izan zituen, usadio latinoei egokitze aldera (226). Autore honen arabera *-ilone* forma latinoa modu batera edo bestera euskarazko **Iruñea-ri** dagokio (227).

Orain urte batzuk aurkitu zen **olcairun** txanpon-inskripzioan A. Tovarraren aburuz (228) **olca** ‘ongi landutako alorra’ zeltiarra eta nafar hiriburuaren izena dugu, seguraski ‘olkako Iruñea’ adiera duen elkartu baten aurrean gaudelarik. Autore honen arabera **Irun**, **Iruña** aitzineko **Ilumbatetik** atera dira, euskaraz arrunta den **I > r** aldakuntzaz. **Pompaelo** aldaera ofizialean nafar hiriburuaren aldaera kontserbatzaileagoa izanen genuke, aipatu txanpon-inskripzioko **-irun** herrikoiaren parean.

Mitxelenaren arabera, konplexua dirudien **Iruñea-ren** lehen osagaia ili- izan liteke, hots, ekialdeko euskalkietan gorde den eta Penintsulako eta Frantziako hegoaldeko zenbait hiri-izenetan aurkitzen dugun (**h**)iri- ‘herria, hiria, ziutatea’-ren aitzindaria. **Iruñea** erromatarren garaien garrantzikoia izan zen **Iruña** arabarrarekin identifikatu behar genuke, bai eta, halaber, **Irunberri-ren** lehen osagaikoz (**< Iruñe + berri**, euskaraz ohizkoia den lehen osagaiko azken bokalaren erortzeaz, eta kontsonantearen desbustiduraz. Cf. Plinioren **Ilu(m)berritani**). **Irun** ere **Iruñea-ren** aldaki soila besterik ez litzateke (229).

Irakasle erreteriarrak dioenez, **Iruñea** ‘hiria’ hutsa baino zerbaite gehiago litzateke, baina ez da zeharo segura azken osagai hori **on** izenondoa den (230).

berdin: «Y en la actualidad no recuerdo haber oido *Iruñea* en los muchos pueblos de Navarra en que he residido o que me ha tocado visitar», id.

(225) Carmen Castillo, “La onomástica en las inscripciones romanas de Navarra”, in *Segundo Congreso de historia de Navarra. 1990, PV*, 14. eraskina (1993), 117-134.orr. Laster argitaratzen atera beharreko lana da hau.

(226) “Hispánico antiguo y vasco”.

(227) “La langue ibère”, *Lengua e historia*, Paraninfo, Madrid, 1985, 341-356.orr. Mitxelenaren arabera **Iru-** lehenagoko *il + Bokal-etik heldu da, ez *iL + bokal-etik, bestela euskarazko **-r-** azaltzerik ez bailegoke (cf. *hiri*, *Irun*, *Iruñea*, *Irunberri*). **Iruñea-ren** azken **-a** hori artikulua da, berria beraz (toponimo euskaldunetan XI. menderako azaltzen bada ere), inguruko hizkuntzei jarraikiz jaioa.

(228) “El nombre de Pamplona”, *FLV*, 25, 1977, 5-8. Ikus, gainera, Javier de Hozen “El euskera y las lenguas vecinas antes de la romanización”, in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1982, 27-56.orr.

(229) FHV, 500.or.

(230) FHV-n ideia hau onartzen duela irudi du, aurreko lanen batean (“Hispánico...”) ia arbuiatzen zuela esan daitetik arren. FHV-n honela dio: «...también tiene **-e** (como *Iruñe-*) el nombre de la ‘mano derecha’, compuesto de **on** ‘bueno’» (501.or.); «Las variantes de *eskui(n)*, y acaso los del ‘abuelo’, plantean el mismo problema que hemos visto a propósito de *Iruñea*, en composición *Irun*, *Iruin-*: *Iruñ aldean*, en ms. de Lizarraga,

Alfonso Irigoyen iritziz Mitxelenaren hipotesia onartzen bada, Pamplona izenaren oinarrirako *Pompe[i]- + *ilon ‘Pompeyoren hiria’-ren antzeko zerbait eman liteke. Honela dio autore honek:

«Si se aceptara esta hipótesis (Mitxelenarena) se me ocurriría señalar que nos encontraríamos ante algo parecido a **Pompe[i]- + *ilon*, ‘ciudad de Pompeyo’, declinado en latín con genitivo en *-onis*, sufriendo el nominativo, por constituir un tema en nasal, un alargamiento compensatorio de la vocal de la última sílaba a causa de la caída de dicha nasal final. La formación del topónimo sería semejante al de *Zenauri* 4< *Zean + uri*, ‘villa de Ceán’» (231).

Lanean erabilitako laburduren azalpena:

ASJU: *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*.

AV: *Apellidos Vascos*, K. Mitxelena, Txertoa, Donostia, 1973.

Eael: *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa*, bi ale, Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia, 1983, 1990.

EIG-VII: *Euskal idazlan guztiak-VII*, Koldo Mitxelena, Euskal editoreen elkartea, Donostia, 1988.

EENEL: *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, A. M.^a Echaide, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1987.

FLV: *Fontes Linguae Vasconum*.

Id: idem.

NEEATB: *Nafarroako Ekierdialdeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, P. Salaberri, argitara gabeko doktorego-tesia.

PT: *Palabras y textos*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1987.

PV: *Príncipe de Viana*.

RIEV: *Revista internacional de estudios vascos*.

SHLV: *Sobre historia de la lengua vasca*, bi ale, K. Mitxelena, Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Donostia, 1988.

UGDEN: *Una geografía diacrónica del euskera en Navarra*, A. Irigaray, Ediciones y libros, Iruñea, 1974.

aezc. sal. *iru(i)ndar* ‘pamplonés’, *Iruynberri*, 1351, *el prado de Yruinllarrea*, 1408, en documentos del ayuntamiento de Pamplona. Su vocal final, *-e, no parece estar etimológicamente justificada. Habrá, pues, que admitir que los hechos de apócope, apuntados en 21.5, a, podían conllevar, como contrapartida, otros de paragogé» (509).

Etimología, hortaz, *hiri* + *on* + *-e* (paragogikoa) litzateke. Cf. Lekhuine (Bonloc) < *leku + on + -e.

(231) “Replicas de topónimos vascos en América y Filipinas (origen y etimología)”, *De re philologica linguae vasconiae-IV*, Bilbao, 1992, 133-167.orr.

BERRIAK

**“RESURRECCION MARIA DE AZKUE” sariak
Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia**

*Bilbo, 1993-01-30
Jose Antonio Arana Martija*

Bilbon, 1993.eko urtarrilaren 30ean, Bilbao Bizkaia Kuxaren Elkanoko Kultur Aretoan banatu ziren 1992ko Resurrección M.^a de Azkue izeneko narratiba eta olerki sariak, aipatu erakundeak eta Euskaltzaindiak urtero ematen dituenak. Mahaien zeuden Daniel Soloaga jauna BBK ordezkatzentz eta Euskaltzaindiaren izenean Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina, Jose Luis Lizundia, idazkariordea eta Juan Luis Goikoetxea, epaimahaikoen izenean. 1991ko sariak argitaratzen dituen liburu ederra, Tamayo jaunak irudiz apaindua ere aurkeztu zen ekintza berean.



Ezkerretatik eskumatara:

Jose Antonio Arana Martija euskaltzain osoa, Daniel Soloaga Bilbao Bizkaia Kutxako Kultura Sailekoa eta Juan Luis Goikoetxea Arrieta “Resurreccion Maria Azkue” Sariko epaimahaikoa eta euskaltzain urgazlea.

Saria jasotzen duena: Aitor Sarriegi.

Sari hauek 1986an sortu zituela Bilbo Aurrezki Kutxak esan zuen hasierako hitzetan Arana Martija jaunak eta azken bi urteotan, kutxa hori Bizkaiko Aurrezki Kutxarekin bat egin denetik, Bilbao Bizkaia Kutxak jarraitzen duela Euskalitzaindiarekin batera ematen adierazi zuen. Haur eta gazteek euskaraz idatz zeazen hainbat arduratu zen Azkue jauna, bai Jardinesko Ikastetxean baita Bizkaiko Institutuan ere, nola poztuko zen 174 lan aurkeztu direla ikustearaz azpimarratu zuen euskaltzainak. Azkuek berak ere ipuinak idatzi zituela eta *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarietan idazleak sortzen ahalegindu zela aretoan zeuden entzule ugariei adierazi zien.

Jon Otaegi Otaegi, Xabier Alzibar Aretxabaleta eta Juan Luis Goikoetxea Arrieta jaunek osotutako epaimahaikoek erabakitako sariak iragarri zituen Jose Luis Lizundia idazkariordeak eta banan-banan eman zitzaien irabazleei:

1979/1982. urteetan jaiotakoak

NARRATIBA

- | | |
|--|-----------------------------------|
| 1. ^º Saria: Maia Duguine | Lana: "Amets eta negar" |
| 2. ^º Saria: Haritz Urizabarrena | Lana: "Halako batean" |
| 3. ^º Saria: Nagore Amondarain | Lana: "Hosto baten pentsakizunak" |



Ezkerretatik eskubitara:

Jose Antonio Arana Martija euskaltzain osoa, Daniel Soloaga Bilbao Bizkaia Kutxako Kultura Sailekoa eta Juan Luis Goikoetxea Arrieta *"Resurreccion Maria Azkue"* Sariko epaimahaikoa eta euskaltzain urgazlea.

Saria jasotzen duena: Olatz Merkader.

OLERKIA

- | | |
|---|--------------------|
| 1. ^o Saria: Beñat Ugartetxea | Lana: “Ikasturtea” |
| 2. ^o Saria: Unai Goti | Lana: “Akanpada” |
| 3. ^o Saria: Eñaut Ibarra | Lana: “Janariak” |

1975/1978 urteetan jaiotakoak**NARRATIBA**

- | | |
|---|--------------------------------|
| 1. ^o Saria: Erika Usabarrena | Lana: “Love Story” |
| 2. ^o Saria: Aitor Sarriegi | Lana: “Zuhaitz bat, Herri bat” |
| 3. ^o Saria: Olatz Merkader | Lana: “High on this Word” |

OLERKIA

- | | |
|--|--------------------------------|
| 1. ^o Saria: Iñaki Azurmendi | Lana: “Hizki ttipien harmonia” |
| 2. ^o Saria: Olatz Merkader | Lana: “Prometeo eta ni” |
| 3. ^o Saria: Aitor Sarriegi | Lana: “Hautsak jan naute” |

Saridunak zein ikastetxetik zetozen ere aipatu zen eta bultzatzaile eta laguntzaile izan dituzten maisuak ere, aipamen berezia Patxi Ezkiaga, Donostiako La Salle-ko irakaslearentzat izan zelarik

Bilbao Bizkaia Kutxak 1991.urteko saridunen lanekin argitaratu duen liburu ederra aurkeztu zuen Juan Luis Goikoetxeak, saritutako lan batzuen zati batzuk irakurriaz. Saridunekin argazkiak egin ondoren, *Globo gorria* filmea eman zen. Eta honekin bukatu zen eginkizuna.

EUSKALTZAINAK ANTZINATASUNAREN ARABERA

	<u>Izendapena</u>	<u>Jaiotza</u>	<u>Adina</u>
1. Krutwig, Federiko	1947.11.29	Getxo, 1921	72
2. Villasante, Luis	1951.09.28	Gernika, 1920	73
3. Haritschelhar, Jean Diharce, Xabier	1962.07.27	Baigorri, 1923	70
5. Erkiaga, Eusebio	1962.07.27	Donibane, 1920	73
6. Satrustegi, Jose Maria Irigoien, Alfonso	1963.04.05	Lekeitio, 1912	81
6. Satrustegi, Jose Maria Irigoien, Alfonso	1963.05.18	Arruazu, 1930	63
8. Labaien, Antonio Maria San Martin, Juan Zabala, Antonio	1963.05.18	Bilbo, 1929	64
8. Labaien, Antonio Maria San Martin, Juan Zabala, Antonio	1964.12.18	Tolosa, 1898	95
8. Labaien, Antonio Maria San Martin, Juan Zabala, Antonio	1964.12.18	Eibar, 1922	71
